



Herri biziak eta zahartzaro aktiboa, eskutik

Juan Antonio Urbeltz folkloristari elkarriketa

50 URTE ARRASATE MUSIKAZ HEZTEN

Arrasate Musikalek urrezko ezteiak ospatuko ditu ikasturtean zehar hainbat ekitaldi antolatuz; bihar hasiko dituzte ospakizunak, kontzertu berezi batekin, gazteen eta helduen bandekin, Monterronen. / 14



Arrasate Musikaleko ikasleak eta irakasleak martitzenean, Monterronen. XABIER URZELAI



África, las dos orillas musikalaren irudi bat. MIKEL LEGARISTI

Afrika musikara ekarrita, herriko artisten eskutik, Seminarixoan / 41



Errekak bizirik auzolanean ekimeneko kideak, Elorregin. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

Errekak garbituko dituzte eskualde osoan, auzolanean, urriaren 15ean / 2

Danbaka Musika Lehiaketako 19 talde aukeratu dituzte; 20. taldea herritarrek aukeratuko dute / 40

SINADURAK



MARIKE RUIZ DE AUSTRI / 10



JON ETXEBERRIA / 6



MIKEL BIAIS / 48



Erreka Eguna aurkeztu zuen eguaztenean *Debagoieneko errekek bizirik auzolanean* ekimenak, Elorregin. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

Auzolanak egingo dituzte erreketan urriaren 15ean

Bailarako herrietan auzolanak egin izan dira errekek garbitzeko, baina bateratzeko erabakia hartu dute zenbait herritarrek eta eragilek orain. Hala, Erreka Egunak helburu izango du Deba ibaia eta bere adarrak garbitzeaz gain, eremuak ezagutzekoa

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

Eskualdeko errekek bizirik mantentzeak duen garrantziaz jabetuta, *Debagoieneko errekek bizirik auzolanean* ekimena sortu dute bailarako zenbait eragilek. Eguaztenean egin zuten agerraldia, Elorregin, eta jakinarazi zuten urriaren 15ean egingo dutela lehen ekintza. Debagoieneko bederatzita herrietan garbituko dituzte ibaiak.

Orain arte, bailarako herri bakoitzak bere aldetik antolatu du erreka auzolana, batik batik, garbitzeko, baina Bergarako Erreka Egunak hamar urte betetzen dituen aitzakiapean, batasunaren alde egiteko erabakia hartu dute. Horrek elkarlana du oinarri, eta, gainera, asmoa da errekek garbitzeaz gain, horiek ezagutzea eta bizitzea.

Hezitzailea izateko nahia

Izan ere, ekimenak hezitzailea izateko asmoa duela azpimarratu dute bertako kide eta eragileek, hala nola belaunaldi berriei

erreka bizien garrantzia erakusteko. Eta, horretarako, aukera egokitzat jotzen dute urriaren 15eko Erreka Eguna. Uste baitute era horretan posible izango dela debagoiendarrei errekek duten harremanaz jarduteko eta hausnartzeko espazio bat ematea, eta, aldi berean, baita esperientziak partekatzea, adituak direnekin ikastekoa eta egun errekek duten egoera ezagutzekoa ere.

Gainera, antolatzaileek adierazi dute guztien ardura dela errekek bizirik mantentzea, nor beretik hasita. Nabarmendu dute ingurumena zaintzeko

ANTOLATZAILEEK USTE DUTE HERRITAR GUZTIEN ARDURA DELA ERREKAK BIZIRIK MANTENTZEA



Ekimenean izena emateko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

eta ekimena ikusarazteko ardura hartuta dutela, eta, era berean, egoera baliatu nahi izan dute dagokionari ardurak eta erantzukizunak eskatzeko, erreken biziberritze eta osasunerako egin beharreko esku hartzeak gogoan izanda, besteak beste.

Topalekuak egongo dira

Deba ibaiak Leintz Gatzagan hasten du bidea, eta Bergaraino iristen da. Baina, dena den, ez da Debagoieneko herri guztietatik pasatzen, adarrak ere badituelako. Bada, ingurune horiek guztiak auzolanean garbitzea eta ezagutzea da asmoa.

Horretarako, topalekuak egongo dira, eta, parte hartzeko, eremuetako bakoitzean eman behar da izena urriaren 11 baino lehen. Are, zalantzarik izanez gero, errekagarbitzeko@gmail.com helbidera mezu bat bidali daiteke. Oñatin, ordea, ez da egingo, urtebeteko etenaldi bat egingo baitute. Halere, beste ekintza batzuk egingo dituzte ibailagun jardunaldietan.

Statkraft enpresarekin bildu da Eskoriatzako Udala asteon

Udaleko ordezkarien arabera, proiektua "garrantzitsua" da energia subiranotasunerako, baina "epe luzekoa"

A.R.K. DEBAGOIENA

Statkraft enpresa norvegiarrak urratsak egiten jarraitzen du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eraiki nahi dituen parke eolikoaren proiektuaren inguruan, eta Eskoriatzako Udalarekin batu da.

Josu Ezkurdia Eskoriatzako EAJko Udal taldearen bozemailearen arabera, Itsarazko planaren berri eman zieten Udaleko ordezkariari konpainiako kideek, baina esan du "epe luzeko" proiektua dela, ikerketak egiten eta baimenak eskuratzen dabilzako, besteak beste. Dena den, azaldu du parkeak izango duen tamainarengatik, Eusko Jaurlaritzak baino gehiago Espainiako Gobernuak izango duela kudeaketaren ardura, baina proiektua garrantzitsua iruditzen zaiola energia subiranotasuna erdiesteko. Izan ere, zehaztu du 117.000 etxerentzako kontsumoa bermatuko lukeela. Informazio gehiago emango dute Hirigintza batzordean, "dakitena publikoa" bada ere. Eskoriatzako EH Bilduk ere informazio hori herritar guztiekin partekatzea eskatu du.

Aramaioko Udal Gobernuak, berriz, atzo zen batzekoa osoko



Haize errota. STATKRAFT

bilkuran, eta, lerro hauek idazteko orduan, ez zegoen berri gehiagorik.

Enpresaren informazioa

Jon Zayas enpresako proiektuen zuzendariak, ordea, informazio gehiago eman du. Haren arabera, asmoa da Aramaion zazpi haize errota jartzea eta Eskoriatzako bat. 205 metroko altuera izango lukete, eta 170 metroko diametroa.

Gainera, energia kooperatiboak ezartzeko dei egingo dute, jendea entzutearekin batera.

COVID-19aren aurkako laugarren dosiarekin hasi dira egoitzetan

Egoitzetako erizainak arduratuko dira txertoak jartzeaz, eta aldi berean jarriko dute gripearen aurkakoa ere

A.R.K. DEBAGOIENA

COVID-19aren aurkako laugarren dosiak jartzen hasiak dira egoitzetan, eta baita Debagoieneko batzuetan ere.

Oñatiko San Martin eta Bergarako Mizpirualde egoitzetan astelehenean hasi ziren; Eskoriatzako Jose Aranan, martitzenean; eta Arrasateko Iturbiden, atzo; Aretxabaletako GRS zahar etxean, aldiz, gripearen txertoak jaso dituzte, eta koronabirusaren aurkakoen zain daude.

Izan ere, aurten gripearen ere aldi berean jarriko dituzte.

Txertoak eta materiala Osakidetza ematen ditu, eta egoitzetako erizainen ardura da txertoak egoiliarrei jartzea.

Arrisku taldeek ere aukera

Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuaren arabera, arrisku taldeetako pertsonak ere jada badute hitzordua hartzeko aukera Osakidetza webgunean, eta urriaren 3tik aurrera hasiko dira haien txertaketarekin. Gainerako herritarrek, berriz, azaroaren 1etik aurrera.

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ARRASATE

25 urte bete ditu aurten Emun aholkularitza kooperatibak, eta, gizarteari ekarpena egiteko asmoz, Eraldaketan jardunaldiak antolatzen dihardute maiatza ezker, *Zalantzari leiho bat* lelopean. Online saioak egin dituzte orain artean, baina aurrez aurreko topaketa eta ekitaldi batekin emango diote amaiera urteurrenari, urriaren 6an, Emuneko lantaldeak dioen eran, zalantzari leiho bat irekita.

"Batetik, asmoa da bakoitzak bere zalantzei begiratzea, eta, bestetik, topaketetako gonbidatuen esperientzietatik zalantzen adibideak jasotzea", azaldu du Emuneko lantaldeak. Haien hitzetan, hipotesia da gizarte eraldaketan egonda ezinbestekoa dela zalantzan jartzea egungo errealitatearen zati txiki bat. "Hori nahi dugu esploratu. Hori ate bat edo leiho bat ireki nahi diogu".

Lau hizlarien esperientziak

Maiatzean eta ekainean online topaketak egin ostean, aurrez aurrekoa 09:45ean hasiko da datorren egunean. Naiara Goiak eta Nico Cuencak online saioetako analisi bana egingo dute, lehendabizi, eta, ondoren, eraldaketa esperientziak partekatuko dituzte Santi Ormazabalek, Julen Mendozak, Amaia Asuak eta Arantza Santestebanek. "Esparru ezberdinetako pertsonak ekarri nahi genituen, arlo bakoitzean egon daitezkeen zalantzarako aukerak behatzeko, eta bakarrera ez mugatzeko".

Ormazabalen kasuan, automobilgintza sektorean dihardu lanean, Panelfisa enpresan daramatza zuzendari ia 30 urte, eta haren ikuspegia ekartzeko

Emun-ek leiho bat irekiko dio zalantzari topaketan

25. urteurrenarekin batera, Eraldatzen jardunaldiak antolatu ditu Emun kooperatibak, eta topaketa egingo dute urriaren 6an Arrasaten. Lau izango dira gonbidatuak, eta bakoitzak beretik hitz egingo du zalantzen askotariko adibideak emateko



Emun taldeko kideek 25. urteurrena ospatuko dute urriaren 6an Arrasaten. EMUN

nahia dute. Mendozari dagokionez, ibilbidea eginikoa da Errenteriako (Gipuzkoa) alkate, eta, Emuneko kideen arabera, orduko hartan gauza "dezente" jarri zituen zalantzan. Asuak, berriz, euskara ikastea izango du mintzagai. "Euskara plan bati esker euskaldundu zen, eta eskatu dioguna da kontatzeko haren esperientzia, ea zer pasatzen

den euskara ikastetik euskaraz bizitzera, ea pertsonak berak zein zalantza dituen pauso hori

EMUNeko KIDEEK USTE DUTE GIZARTE ERALDAKETAN EGONDA, ZALANTZAK LEKUA BEHAR DUELA

ematean". Santesteban *918 gau* filma estreinatzeaz da, eta hor planteatzen diren zalantzak izango ditu gogoan, aurkeztar den doktore tesikoekin batera.

Barnera bidaia bat

Emunen nahia da topaketetan parte hartuko dutenen hizlarien esperientziak bertaratzen diren barne bidaietarako balia-

garriak izatea. "Azkenean, uler-tzen duguna da hara joango garen denok eraldaketan gaudela, esparru ezberdinetakoak, baina antzeko lanean; nahi duguna da pixka bat arakatu gutako bakoitzarengan zein aukera dauden zalantzari leiho bat irekitzeko". Lan horretan, Ainhoa Lasa Emuneko lankidea eta *coaching*-ean jarduten dena arituko da. Galdera batzuk botako dizkie airera bertaratuei, norberak beretik erantzuteko. "Hura izango da gidari bidaia horretan".

Topaketak 13:30ean amaituko dira, eta, amaitzean, Emunekoek jakinarazi dute ekitaldi bat egingo dutela. Are gehiago, luntxa ere egingo da.

Ekitaldia, aitortzarako

Ekitaldian, Emun sortzerakoan lan hori egin zutenak, haren beharra identifikatu zutenak, jarriko dituzte zentroan, eta baita kooperatiba bizirik irauten lagundu dutenen lana aitortu ere. "Emunek iraun badu izan da gure bezeroek gizarte eraldaketarekiko konpromiso bat eduki dutelako; azken batean, instrumentu bat gara".

Izan ere, haien hitzetan, orain 25 urte lan esparrua euskalduntzeko beharra identifikatu zuten Arrasateko eta Debagoieneko zenbait euskaltzalek, eta hala hasi ziren martxan jartzen egun Emun den proiektua, enpresak euskalduntzeko asmoarekin.

Bada, jende hori guztia omen-duko dute topaketan amaieran, eta, gainera, aurreratuko dute dantzari bat ere egongo dela. Dena den, datorren egunera arte itxaron beharko da gainontzeko xehetasunak ezagutzeko.

Bitartean, oraindik izena emateko epea zabalik dago www.eraldaketan.eus webgunean.

Gizartea eraldatzen eginiko lana aitortu diote Garabide elkarteari

Elkarteko lehendakariak uste du "premiatzkoa" dela era honetako sariketekin egitasmoen lana aitortzea

A.R.K. DEBAGOIENA

Gizartea eraldatzen duten nazioarteko pertsona eta erakundeen lana aitortzea du helburu Fair Saturday sariketarako, eta, aurten, Garabide elkartearen lana nabarmendu dute, hala

nola hizkuntza gutxituak biziberritzeko prozesuetan eginiko lanarengatik.

Bilboko Guggenheim museoan egin zuten sari banaketa astelehenean, eta Iñaki Martinez de Luna Garabideko lehenda-

karia joan zen. "Sari batek beti hauspotzen du animoa, eta hala izan da orainoan ere. Saio osoaren planteamendua izan zen hunkigarria". Izan ere, Garabiderekin batera beste zortzi egitasmo ere saritu zituzten, guztiak "gizarte osasuntsuagoa" erdiesteko lanean aritzen direnak, Garabideko presidentearen hitzetan.

Besteak beste, Nuccio Ordine idazle eta filosofo italiarra, Herbehereetako Musicians Without Borders erakundea eta Bilboko



Sari banaketa. ENRIQUE MORENO

Pabellon 6 antzerki proiektua izan ziren sarituetako beste hiru. Eta, era horretan, Fair Saturday fundazioaren helburua da ekintza eredu berriak sustatzearen balioa nabarmentzea.

"Garrantzitsuak dira horrelako sariketak, halako proiektuetan murgilduta dauden pertsonak ez baitute, normalean, saririk jasotzen", adierazi du Martinez de Lunak. Haren arabera, boluntarioa da egin ohi den lana, eta, beraz, horrelako aitortzak, "premiatzkoak".

Ekintzailtza, Bergarako erronkei erantzuteko

Miguel Lazpiur ekintzaile eta enpresari bergarra omendu zuten eguaztenean, Miguel Altunan. Ekintzailtza jardunaldiak egin ziren bertan, eta, Lazpiurren lekukoa hartuta, Bergarako hiru erronkari irtenbideak bilatzen jardun zuten 34 gaztek

Uxue Igarza Loiola BERGARA

Ekinola Etorkizuna zure eskue-tan izeneko ekintzailtza jardunaldia egin zuten Miguel Altuna ikastetxean eguaztenean. Mariaren Lagundiko Gizarteratze zikloko eta Miguel Altuna Lanbide Heziketako ikasleek hartu zuten parte, eta, jardunaldia borobiltzeko, Miguel Lazpiur ekintzaile eta enpresari bergarra omendu zuten.

Jardunaldiak egin diren bigarren urtea izan da hau, eta Tazebaez aholkularitza taldea arduratu zen saioaren dinamizazioaz. Balorazio positiboa egin dute parte hartzaile nahiz sustatzaileek. Antolakuntzari dagokionez, Miguel Altuna Lanbide Heziketa, Bergarako Udala eta Enpresare aritu dira elkar-lanean, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Tknikaren laguntzarekin.

Oxirondo eraldatzeko saria

Gazteen ekintzailtza sustatzeko, lehiaketa formatua baliatu zuten jardunaldietan. Bergaran kokatutako hiru erronkari erantzutea izan zen egitekoa –Oxirondo azokako kontsumo-joerak eguneratzea; digitalizazioa merkataritza eta ostalaritzan txertatzea eta Arina zentroaren zerbitzuak erakargarriago egitea–, eta talde bakoitzak bere proposamena aurkeztu behar izan zuen epaimahaiaren aurrean.

Talde irabazleak gazteak azokara gerturatzea xede duen proiektua aurkeztu zuen. Zehazki, Antton Esnaola taldekideak azaldu zuen eraikinaren egitura bera eraldatzea eta gazteak ekonomikoki laguntzea dela proiektuaren funtsa: "Gazteak merkaturara gerturatzea oztopatzen duen arrazoietakoa bat ekonomia da; hala, erosketa baleak eta beste-lako estrategiak proposatu ditugu". Bergarako Udalak 1.000 euroko laguntza emango dio taldeari lanean hasteko.



Ekintzailtza jardunaldian batutako taldea, Miguel Lazpiur erdian dela. MIREN ARREGI

MIGUEL LAZPIUR ENPRESARIAK EKINTZAILE IZATEKO GAKOAK AZALDU ZIZKIEN IKASLEEI

Ekintzailtza, aukera gisa

Talde irabazlearen ideiaz gain, beste bost jaio ziren jardunaldietan. Horretarako, gazteek prozesu bat egin behar izan zuten, eta Tazebaez kooperatibak gidatu zituen lan horretan. "Jardunaldien helburua ekintzailtza gazteengana gerturatzea da, eta horretarako ekintzailtza prozesuak nolakoak diren aztertut dugu. Ideia-zaparrada bat egin dute herriko erronkei irtenbideak bilatzeko. Ondoren, prototipo bat sortu eta negozio ereduaz zehaztu dute. Bukatzeko, epaimahaiaren aurrean saldu dute ideia", azaldu du kooperatibako Miren Fernandezek. "Oso aktibo egon dira prozesuetan eta ideia politikak irten dira", gehitu du.

Fernandezen arabera, geroz eta gehiago lantzen da ekintzailtza hezkuntza zentroetan.

Omenaldia Miguel Lazpiurri

Ekintzailtza jardunaldiak borobiltzeko, Miguel Lazpiur bergarra omendu zuten. Ekintzailtza, enpresaria eta Euskadiko Enpresarien Elkarteko presidente izandakoa da Lazpiur, eta "herriko bizi kalitate onaren erantzuleetako bat" izan delako egin zioten aintzatespena.

Miguel Altuna zentroa sortzeko lanen atzean ere izan zen Lazpiur; halere, uste du belaunaldi berriak direla aitortza behar dutenak: "Nik ez dut omenaldi hau merezi. Gazteei dagokie hau orain. Beraien baimekin hartu dut".

Belaunaldi berrien gainean galdetuta, "itxaropentsu" mintzatu zen Lazpiur, eta erreleboan laguntza eskaintzeko prest agertu zen. Ekintzaile batek izan behar dituen ezaugarriak zerrendatu zizkien gazteei. "Alde batetik, ilusioa behar da. Bestetik, konpromisoa –norberarena, familiar hartzeko dena, eta gizartearekiko konpromisoa–. Bukatzeko, egiten dugun horri balioa ematea eta hura maitatzea da ekintzailtza gakoak", zehaztu zuen, eta ideia horiek zabaltzen jarraituko duela gehitu zuen.

Ikus-entzunezkoak, "funtsezko", hizkuntza ohiturak aldatzeko

Gazteen ikus-entzunezkoen kontsumo ohiturak ezagutzeko ikerketa egin du Uemak

U. I. L. DEBAGOIENA

Uemak ikus-entzunezkoen kontsumo ohiturak aztertu ditu, 10 eta 17 urte bitarteko gazteen artean 11.600 inkesta eginda. Iratiz Lazkanok Elgetako alkate eta Uemako lehendakariak jakinarazi ditu emaitzak, eta baita hizkuntza-komunitate eta herri gisa ikusten dituen erronkak ere.

Ikus-entzunezkoen panorama "asko" aldatu dela azpimarratu du Lazkanok, eta horrek gaiari "urgentziaz" heltzea eskatzen duela dio; izan ere, lehendakariaren ustez, eduki horiek gazteen hizkuntza ohituretan bete-betean eragiten dute.

Euskarazko edukiak sustatzen

Edukiei lotuta, gaztetxoek fikzioa bilatzen dutela azaldu du, eta, hortaz, "apustu sendoa" egin behar dela horretan: "Goazen! telesaila da adibidea, lortzen baitu etxean euskaraz egiten ez duten gaztetxoengana ere iristea. Behar ditugu halako gehiago; hitz egin dezagun eskaintzari buruz ere".

Horri lotuta, EITBk eta RTVEk duten arduraz azpimarratu du lehendakariak: "Gure udalerrietako milaka gaztetxok jotzen dute egunero RTVEra marrazki bizidunak ikustera, eta euskaraz ez du batere presentziarik".

Telebistatik plataformetara

Halere, telebistak baino beste-lako plataformak ari dira indarra hartzen. "Urratsak egin dira

azken hilabeteetan, baina pauso horiek areagotu eta sakondu egin behar dira (...) Zenbat gazte dakite Netflixen jadanik badauzkatela euskarazko edukia?", adierazi du.

Ikerketako datuek diote gazteen %73,2k gaztelaniaz ikusten dituztela marrazki bizidunak eta telesailak eta %10,6 direla euskaraz kontsumitzen dituztenak. Adin tartean gora egin ahala, gehiago txikitzen da euskaraz kontsumitzeko joera. LKko ikasleek %19k ikusten dituzte edukia euskaraz, eta, batxilergoko ikasleek kasuan, %3,1ek soilik.

Sare sozialetan lotuta, Lazkanok nabarmendu du euskarazko "erreferente falta" dagoela: "Eguneroko hizkuntza euskara dutenek ere, sare sozialetan erdarara jotzen dute, besteak beste, erdarazko eremutat jotzen dituztelako sare sozialak".

Youtuberi erreparatuta, gazteen %70,5ek gaztelaniazko ikus-entzunezkoak aukeratzen dituzte, eta %9,4k hautatzen dituzte euskarazkoak.

Erreferente premian

Egoerari buelta emateko "erreferenteak" behar direla azaldu du lehendakariak, eta, horretarako, "euskal sortzaileen aldeko apustua" egin behar dela: "Eskaintza asko ugaritu egin da eta itsaso horren erdian proportzioan txikiago ageri da euskara".

Era berean, hizkuntza-politikan "sendotasun handiagoz" jardun behar dela dio.

Oroitze ariketa musikatua

Kandido Saseta, Telesforo Monzon eta beste hainbat gudari omentzeko ekitaldia egin zen martitzenean Bergarako Seminarixoan, Olaso Dorreak antolatuta. Historiari musikaren laguntzarekin egin zioten errepasoa. Garazi Barrena, Oihana Arana, Mikel Antza eta Edorta Jimenez aritu ziren oholtzan, kantu eta poema errezitaldian.



Izena eman dezakete Euskaraldian herritarrek

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da, eta 'ahobizi' nahiz 'belarriprest' roletan parte hartu nahi duen orok eman dezake izena Euskaraldiaren webgunean dagoeneko. Aurreko edizioetako partaideek berretsi baino ez dute egin beharko

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Bilboko Kafe Antzokian eginiko ospakizun-ekitaldian eman dute asteon hilabete eta erdi barru hasiko den Euskaraldiaren hirugarren edizioaren izen-ematea abiatu izanaren berri. Antolatzailerak adierazi bezala, beste behin lortu nahi dute herritarren hizkuntza ohituretan eta praktika linguistikoetan euskarak "gero eta toki zabalagoa" izatea.

Partaide guztiek ariketa "aholik eta modu prestatu eta ero-soanean" egin dezaten, *ahobizi* eta *belarriprest*-ei informazioa eta aholkuak ematen jardungo dute ekimena antolatzen ari diren herri batzorde eta koor-



Ariketa babesten. ELGETAKO EUSKARALDIA

dinazioko kideek. Hala, norbakoek Euskaraldia hasi bitartean eman ahalko dute izena; entitateek, aldiz, urriaren 31ra arte izango dute ariguneak sortzeko epea. 2020ko aldian, pandemia bete-betean, 24.000 arigune sortu ziren Euskal Herrian.

Batzordeak, mugitzen

Bailara mailan asteon aktibo egon dira Euskaraldia sustatzeko taldeak. Antzuolan, esaterako, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari Kike Amonarrizek hitzaldia egin zuen Olaranen atzo arratsaldean (Ikus 31. orria), eta, besteak beste, "euskararen erabileran urrats zehatzak egi-

teko ariketa" bezala deskribatu zuen Euskaraldia. Une berean, nobedadea den herri mailako Gazte Batzordea aurkeztu zuten Arrasaten, herriko gazteak erakartzeko helburuarekin; eguaztenean, bestalde, kalera irten ziren *Ahobizi* eta *Belarriprest*, izen-ematea zabalik dela gogoratzeke -dagoeneko, gutxienez, 75 entitatek eman dute izena ariketa linguistikoan-. Elgetan patata-tortilla lehiaketa arrakastatsua egin zuten asteartean, 24 talderen parte hartzearekin; herenegungo bilkuran partekatu zituzten, aldiz, aurrera begirako ideiak. Bergaran, martitzenean batu ziren helburu berarekin. Oñatin, ostera, urriaren 5erako deitu dute bilera irekia, 18:30ean, Euskaldun Berria gelan, eta jada egon dira elkarte zein dendarekin. Aretxabaletan urriaren 4an bilduko dira, eta ondorengo egunetan entitateei bisita egingo diete. Aramaion urri hasieran osatu nahi dute batzordea, eta Eskoriatzan urriaren 14an, 19:00etan, egingo dute, Fernando Eskoriatza plazan, aurkezpen eta izen-emate irekiera ekitaldia.

Eskuragarri dago 'Ttap' aldizkari digital multimedia berritua

Diseinu eta eduki berria estreinatuko ditu Goiena Komunikazio Taldeak kudeatzen duen aldizkariak. Monika Belastegi zuzendariak azaldu duenez, *Ttap*-en "interaktibitate-maila eta dinamikotasuna nabarmen areagotu dira, eta bisualagoa ere bada, irudiek, esaterako, pantailaren azalera osoa hartzen dutelako". Lau urteko ibilbidean, "aldatzen eta eboluzionatzen" joan da eskuko telefonoko aplikazioa, gaur egungo emaitzara iristeraino: "Edonoren eskura eta askatasunez partekatzeko eta zabaltzeko gertu dagoen edukia da". Edukien aldaketen artean daude elkarrizketa nagusiko *Deabruaren galderak* atala eta *Moda* atalari eskainitako leku nabarmenagoa. Eta orain artekoari jarraikiz, kolaboratzaile-sare sendoari eutsiko dio. Gainera, *ttap.eus* ataria gaurkotu egin dute, eduki gehiagorekin jantzita, *app*-aren lagungarri.

Egin *ttap*, zuzenean *labur.eus/ttap*-etik deskargatuta.

Gipuzkoak etorkizunerantz aurrera egiteko **ticketa. BAI.**

TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen tresna aurreratua eta solidarioa, etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko.

gipuzkoa.eus/ticketbai

TicketBAI
GIPUZKODAN | EN GIPUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentu Berria de Gipuzkoa

ETORKIZUNA OSATU
18.9.2020



ZABALIK

JON ETXEBERRIA

Telelana

Ziurrenik, goizegi da pandemiak epe ertain eta luzera gizartean izango duen eragina ezagutzeko. Konfinamenduan zehar, bazirudien gure bizitzak zeharo aldatuko zirela eta *normaltasun berria* aurretik ezagutu genuenarekiko oso desberdina izango zela.

Bi urte eta erdi pasa ondoren, badirudi pandemia *kontrolpean* dugula eta gure bizitza soziala %100ean berreskuratu dugula. Pandemia garaiko murrizketak atzean gelditu dira eta aurretik genituen ohituretara itzuli gara. Baina badaude pandemiaren eskutik etorri eta gure artean gelditu diren aldaketak, eta horien artean, seguruenik, garrantzitsuena telelana da.

Konfinamendu garaian, egun batetik bestera pertsona asko etxetik lan egin beharrean aurkitu ginen. Langileen eta enpresen ahaleginari esker, oro har, esperientzia

ARDURAZ JOKATU ETA ONDO KUDEATZEN IKASTEN BADUGU, GELDITZEKO ETORRI DA GURERA ERE

arrakastatsua izan zen, bai pertsonentzako eta baita enpresentzako. Lan mota asko etxetik ere egin daitezkeela ikasi genuen, horren abantailekin – desplazamenduak eta denbora aurrezteak – eta desabantailekin –harreman

sozialak gutxitzea–. Horregatik, ez da harriztekoa langile gehienak inkestetan lan formatu hibridoan alde agertzea –egun batzuk etxetik eta beste batzuk lantokitik–, abantaila eta desabantaila horiek uztartzeko.

Lan mota batzuetan, bereziki, teknologikoenetan, telelana ez da amaitu pandemiarekin. Alderantziz, oso ohikoak dira gutxienez egun bat telelanean eskaintzen duten enpresak, eta elkarriketetan arraroa da telelanaren aukerari buruz galdetzen ez duen ingeniaria. Oraindik asko daukagu ikasteko lan egiteko modu honen inguruan, bereziki, epe luzeko ondorioei dagokienez, nahiko berria baita gure inguruan, baina argi dago telelanak abantaila nabarmenak ekartzen dituela pertsonentzako eta, ondo kudeatuz gero, baita enpresentzako ere. Horregatik, guztiok arduratsu jokatzeko badugu eta ondo kudeatzen ikasten badugu, ez daukat zalantzarik telelana gelditzeko etorri dela gurera ere.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Aldegiteak

JOSEBA BARANDIARAN
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Aldea dago toki bakoitzetik nola alde egiten den. Aldegiteak eta aldegiteak daude. Eta irteera-agur hori ere zaintzea komeni da: bagozdelarik, baina baita bagozdelarik ere; nonondik alde egiten dugularik, agurrean. Geure alde (ere) bada.

Zer esan irail hasieran lanera itzultzen garenerako, ezta? Mahaia, *inbox*-a, nola laga genuen? Baina heriotza aldegitte bat da, batzuetan prestatu eta landu daitekeena; lan aldaketa bat, dibortzio bat, etxe edo hiri

aldaketa bat, zer esanik ez. Aldegiteak dira guztiak ere.

Nola joaten garen horrek – nondik eta nora ere sartzen ditut *nola* horretan, noski– asko esan dezake gutako bakoitzaz. Bueltarik izan ote litekeen eta beronen nolakotasuna ere baldintzatzen baitu.

Bada jendea aurrera soilik begiratzeko gai dena, eta, akaso, bizitzaren kiribilez, joan-etorriez eta ezustekoez ohartzeko ez dena. Nonondik *ongi* alde egiteak ez du esan nahi itzuliko garenik, baina doanari eta gelditzen direnei on egin diezaiekeen zerbait da. Ugazaba bat izan nuen – orduan ez bezala gaur jakintsutzat dudana– errefracu

bat hitzetik hortzera zerabilena: *De lo que no cuesta, llena la cesta.*

Alegia, zerbait norberarentzat erraza bada, gutxi edo batere kostatzen ez bada, egin: toki batetik *ongi* alde egitea kasu, dagozkion eskerrak emanez, dagozkion aitortzak eginez, barrenak dotoreziak hustuz –behar hori sentitzen bada–, baina zintzotasunez jokatzu...

Saski hori ongi bete izana nekez damutuko zaigu. Norberaren zein inguruko mesede izango delako, eta, bistan da, guztiok dugu zain azken agur bat, gutxienez. Egoki prestatzeko denbora izango ote dugun ez jakin arren.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ELGETA

Elgetako Eskolako zuzendari Libe Iñurriagarroekin mintzatu gara eskolaren eraldaketa gaitasunaz, komunitatearekin duten harremanaz eta energiaz, besteak beste.

Hezkuntzak berezko duen eraldaketarako gaitasunari zein garrantzi ematen diozue eskolan bertan?

Kontziente gara eskola bezala eraldaketarako dugun gaitasunaz, eta ari gara pausoak ematen, alde horretatik. Esaterako, kontzientziario gaitasun handia du eskolak, eta, hala, bizikidetzan, kontzientzia ekologikoan, elikadura osasuntsuan-eta dihardugu lanean. Poliki-poliki geroz eta proiektu gehiago ditugu gai horiekin lotutakoak.

Herri txiki bateko eskola izateak zein onura ditu komunitatearekin egiten diren lanketekin lotuta?

Onura handiak. Herri txiki batekoak izateak hainbat proiektu komunitatearekin lantzea dakar. Proiektu horren parte direnean eskola, familiak, udala eta bertako kideak, beti da onerako. Harremana gertuko da komunitateko kideekin eta komunikazioak garrantzi handia du proiektuak garatzeko orduan. Gure kasuan, komunikazio lotura handiak daude eta ideia asko partekatzen ditugu elkarlanean. Geroz eta gehiago dihardugu elkarlan hori lantzen, kanpoko komunitatearekin.

Non du abiapuntua elkarlan behar horrek?

Pandemiarekin hasi ginen elkarlan hori lantzen eta ikusi genuen onura asko ekarri zizkigula. Hori dela-eta jarraitu dugu bide horretan lanean.

Badira azken urteetan landu dituzuen proiektuak, eraldaketa nahiarekin lotzen direnak.

Esaterako, jangelarekin lotutako proiektua.

Eskolako jangelan betiko zerbitzua mantentzen dugu, baina bai izan dugu aldaketa hamaiketako osasungarriarekin lotuta. Joan den ikasturtean, guraso talde bat osatu zen jangelaren eraldaketaren bueltan. Eurek



Libe Iñurriagarro, Elgetako eskolan. LI

"Ikastetxe-Klik proiektuari esker jakingo dugu zelan gauden energiaren alorrean"

LIBE IÑURRIGARRO ELGETAKO ESKOLAKO ZUZENDARIA

Hezkuntza komunitateak eraldaketarako duen gaitasuna praktikara darama Elgetako eskolak. Elikadurarekin eta energiarekin lotutako proiektuak dira abidibe

"ELGETAKO ESKOLAN KONTZIENTE GARA ESKOLA BEZALA ERALDAKETARAKO DUGUN GAITASUNAZ"

"HERRI TXIKI BATEKO ESKOLA IZANIK, KOMUNITATEAREKIN DUGUN HARREMANA HANDIA DA"

"HAMAIKETAKO OSASUNGARRIAREN PROIEKTUAK ONURA ASKO EKARRI DIZKIGU"

proposatu ziguten hamaiketako osasungarriaren proiektua. Guk, gure hezkuntza proiektuarekin bat zetorrela ikusirik, aurrera egin genuen. 2021eko azaroan jarri genuen martxan.

Zertan datza?

Ikasleek ez dute hamaiketarik ekarri behar. Izan ere, Ereindajenetik asteen hiru egunetan fruta ekartzen dute eta beste bi egunetan Iurretako baserri batetik ekartzen duten ogia jaten dute olioarekin. Modu horretan lortzen dugu, batetik, hamaiketako osasungarria izatea. Bestetik, ikasleen artean desberdintasunik ez izatea, eta baita zaborraren murrizketa ere. Hain zuzen ere, plastikoaren sorkuntzaren arazoari heldu nahian genbiltzan eta horrela asko murriztu dugu hondakin mota hori. Beste onura bat da sortutako hondakinekin konposta egiten dugula, eta, zer esanik ez, tokiko eta sasoiko produktuak bultzatzearen garrantzia bertako ekoizleak laguntzen ditugun bitartean. Eskola komunitatea ere indartzen du proiektuak, denon proiektua dela sentitzen baitugu.

Debagoiena 2030ekin eta bailarako beste ikastetxe batzuekin batera Ikastetxe-klik proiektuan parte hartuko duzue, ikastetxeetan energia-aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzera bideratutako proiektua. Zergatik?

Proiektu oso interesgarria iruditu zitzaigun. Urtero lantzen dugu energiaren gaia Lehen Hezkuntzako geletan. Ikastetxe-klik proiektuak proposatzen duena da ikasleak parte hartzaile aktibo izatea, eta hori oso interesgarria iruditzen zaigu. Are gehiago, eskola komunitate osoak hartuko baitu parte; ikasleak, irakasleak, jantokiko begiraleak, garbitzaileak, udalak... guretzat onurak ekarriko ditu. Jakingo dugu zelan gauden energiaren arloan. Erakinak zer kontsumo maila duen, zein gabezia dagoen, zenbat bonbilla dagoen eta zenbat behar ditugun benetan, berogailuarekin berdin... Azken finean, nola murriztu dezakegun.

Adinekoen Nazioarteko Eguna

ITZIAR USANDIZAGA

DEBAGOIENEN DUINTASUNA ELKARTEA
DEBAGOIENA

Urriaren 1ean, aldarrikapena eta ospakizuna bateratuko ditugu.

Badira jasaten ari garen sistema kapitalista liberalaren aldeko zenbait ordezkari eta defendatzaile, modu miserablean adierazpen mespretxuzkoak egiten dituztenak eta gizatasunik ez dutenak.

Taro Aso, Mister Tin eta Cristina Legane eta mota horretako pertsonaiak, "arin hiltzeko" eskatzen dutenak.

Beste batzuek esaten dute pentsioak oso altuak direla; batez beste, pentsioa 1.000 eta 1.300 euro artean dago. Hain zuzen ere, horietatik %52 ez dira 1.000 eurora iristen eta emakume pentsiodunek gizonek baino %30 gutxiago kobratzen dute.

Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzak Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia onartu zuen.

"Adineko pertsona guztien bizitza autonomoa eta osoa sustatzea".

Inork uste al du miseriazko pentsioak dituztenek, batez ere, emakumeek, bizitza autonomoa eta osoa izan dezaketela?

Zahartzaro aktiboa eta osasungarria nahi badute,

has daitezela pentsioak 1.080 euroraino osatzen.

Belaunaldien arteko elkartasunez hitz egiten dute, baina ez diote irtenbiderik ematen adingabeen zaintzari, ilobak zaintzea erretiratutako adinekoen betebeharra izan ez dadin. Horretarako, gizartea birpentsatu egin behar da, antolatze modua, zaintzak sozialki nola hartu behar ditugun eta eztabaidatu behar ditugun. Baina gai horiek ez daude Eusko Jaurlaritzaren agendan sartuta. Beraz, plazetan jarraituko dugu.

Atzokoengatik, gaurkoengatik eta biharkoengatik.

Zerbait egin behar dugu!

LOLA ETXEBARRIA

ARRASATE

66 urte eta 4 hilabete ditut; hau da, bi hilabete daramatzat erretiroa hartuta.

Ez dakit zer pentsio dagokidan, ezta noiz ordainduko den ere. Ezinezkoa izan zait, orain arte, Gizarte

Segurantzarekin harremanetan jartzea.

Badakit nire egoera berean dauden pertsonak daudela.

Zerbait egin behar dugu! Izan ere, Espiritu Santuari esker bizi naiz ni?

Hasteko, astelehenetan udaletxeko plazan erretiratuekin bat egingo dut. Zuen zain nago.

Suizidioak

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT'
EGITAMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Etxekoren batek bizi duenean, sinetsi ezinik gelditzen zara.

Estatistikek diote bi egunetik behin euskaldun bat suizidatu egiten dela eta heriotza mota hori saihesteko orain arte egindako ahaleginak ez direla nahikoak izan.

Gizarte gaixo batean bizi gara eta ekintza gehiago bideratu behar dira suizidioak prebenitzeko; kontraesana iruditu arren, araututa egon beharko luke bere buruaz beste egitea erabakitzen dutenei heriotza duina bideratzeak.

Erabakia argi duenak lehenago edo geroago lortuko du *helburua*, legeztatuta egon edo ez.

Gizarte aurreratu batean, norberaren eskubidea izan beharko litzateke bere bizitza bukatzeko erabakia hartzea, itxaron gabe hirugarren pertsona batzuek zure sufrimendu fisikoari egiten dioten balorazioa.

Sufrimendu mota asko daude neurtu ezin daitezkeenak, eta bakoitzak mina eramateko gaitasun desberdina dauka.

Gakoa da erabaki hauek tramitatzekoan gizartean dauden indar guztiak bideratzea.

Hitz egiteak bakarrik jaitsiko ditu suizidioak.

Unai Zaballan dago

ENRIKE LETONA

ARRASATEKO SARE
ARRASATE

Unai Zaballara ekarri behar zutela jakin genuenean, beste berri bat etorri zitzaigun Frantziako Estatutik: Jon Kepa Paroti eta Jakes Esnali baldintzapeko askatasuna eman die Parisko Dei Auzitegiak.

Berri ederra, inolako zalantzarik gabe.

Badut susmoa Iparraldean egindako mobilizazioek eta, batez ere, udakoek zerikusi handia izan dutela erabaki honetan.

Bestalde, epaileen ebazpenean *bake prozesua* eta halako terminologia erabili dute, eta hori ere oso adierazgarria da.

Unai dagoeneko Zaballan dago; harentzat ez da askorik aldatuko bizimodua, lau pareta Euskal Herrian edo Leonen lau pareta dira, baina senidentzat eta lagunentzat askoz errazagoa izango da bidaia.

Poztu egiten gara, jakina, azken garaian gauza txikiek ere poztu egiten gaituztelako.

Egia da gero eta preso gehiago daudela Euskal Herrian, baina ahaztu egiten zaiguna da horietako preso gehienek kalean egon beharko luketela, gaur egun indarrean dagoen legea aplikatuta bakarrik era objektiboan.

Bestalde, ez genuke ahaztu behar legeak dioena, hitzez hitz hartuko bagenu ere, oso garbia dela. Legeak ez du hartzen zigorra mendeku bezala, birgizarteratze prozesu bezala baizik. Ziurtatu behar dena da espetxeratuak kalera aterako direnean legea ez dutela urratuko berriz.

ETAk borroka armatua aspaldi utzi zuen albo batean, ETA desagertu egin da, baina ez, ordea, ETakoak izandako presoak. Hauek ez dira desagertu Espainiako Gobernuak eta Auzitegi Nazionalak ez dutelako nahi legea aplikatu. Hemen ehunka preso atera dira espetxetik eta ez da ezer gertatu. Zergatik ez dituzte ateratzen batean, ETA amaitu prozesu hau? Baztertu ezazue, behin betiko, mendekua eta birgizarteratzearen alde egin.

32 urte daramatza Unai espetxean, mendekuaren alde egin dutelako eta zigorra gehitzeko trikimailuak erabili dituztelako.

Bazter ezazue jokabide hori eta, Frantziako Estatuan bezala, egin itzazue urratsak, legea betetzeaz gain bake prozesua bultzatzeko.


Gure aldetik, Unai eta beste preso guztiak kalean ikusi arte ez dugu amorerik emango.

Izan zaitez zu ere bidea presoak kaleratzeko.


GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Aurtengo irabazleak!



18. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA
egin klik!

1. SARIA



Kuba | Argazkia: Olaia Otero Aiausti (Oñati)
SARIA: Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiei esker, Kantabrian gau bat eta gosaria bi lagunendako.

2. SARIA



Esne Bidea Rinlo gainean (Galizia) | Argazkia: Mikel Lasa Murguizu (Bergara)
SARIA: Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, Samsung Galaxy A12, 32GB.

3. SARIA



Contis (Landak) | Argazkia: Juan Luis Zabala (Leintz Gatzaga)
SARIA: Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria.

PUBLIKOAREN SARIA



Kurtzetxiki, goizean | Argazkia: Unai Elorza (Arrasate)
SARIA: Bergarako Ereindajan-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Amaitu da Goienak antolatzen duen Udako Argazki Lehiaketa, eta honako lau argazki hauek izan dira aurtengo irabazleak. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi. Guztira, **481 argazki** jaso ditugu, eta, **Publikoaren saria** aukeratzeko, **400 boto** baino gehiago jaso dira. Urriaren 7ko GOIENA aldizkarian izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

BERGARA
EREIN DA JAN

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

Gerraren ondorio latzek oroimenean diraute

Intxorta 1937k eta Arrasateko Udalak antolatuta, ekitaldi bikoitza egin dute asteon; izan ere, 86 urte bete dira tropa frankistak herrian sartu zirela. Lore eskaintza egiteaz gain, 'Memoria partekatu baterantz' liburuaren bigarren argitalpena aurkeztu dute

Hasier Larrea ARRASATE

1936ko irailaren 26an, 16:00etan, sartu ziren tropa frankistak Arrasaten. "Euren lehen egin-beharra errepublikanoen lokaletara eta batzokira joatea izan zen; bertatik bandera eta liburu guztiak atera eta erre egin zituzten; batez ere, euskarazkoak", azaldu du Juan Ramon Garaik, Intxorta 1937 kultur elkartearen kidea. Bien bitartean, herri inguruko fronteetan erresistenten eta matxinatuen arteko borrokek bizi-bizi zirauten. Urriaren 4an, zibilak atxilotze-ari ekin zioten tropa frankistek: "Mola jeneral frankistaren tropek porrot egin zuten Udalatzen eta Elgetan, eta, ondorioz, euren ideien aurka zegoen jendea atxilotzen hasi ziren, lehendabizi Ondarretako espetxera eraman eta gero akabatzeke. Arrasatear ugari, 30, guztira, Oiartzunen eta Hernanin izan ziren fusilatutak, esaterako".

Pertsona haien eta beste dozenaka hildakoren izenak daude zerrendatuta Arizmendiarrrieta plazako monolitoan. Arrazoi horregatik egiten dute bertan urteroko ekitaldia; lore eskaintzara eta dantzarien aurreskura jende andana azaldu zen astelehenean; udalbatzako ordezkariak, hildakoen senitartekoak eta gerrako umeak barne. Haurra zela egin behar izan zuen ihes Arrasatetik, beste askok bezala, Nieves Abarrategi Mendizabalek: "Bordelera joan ginen Santandertik txalupan; hango hainbat herritan egin genituen hiruzpalau urte, harik eta etxera itzuli ginen arte. 1941a zen ordurako eta sekulako gosea pasa behar izan genuen hemen".

Kontakizuna osatzen

Antzeko testigantza gogorak jasotzen ditu *Memoria partekatu baterantz*. *Arrasate 1936-1956*, *Gerra*, *Erresistentzia* eta *Fran-kismoa* liburuak. 2017an agindu



Irailaren 26ko omenaldi-ekitaldiko partaideak, arrosa bana eskuan dutela. H.L.

INTXORTA 1937K 35 URTE DIHARDU MILIZIANOAK ETA GERRAKO UMEAK ELKARRIZKETATZEN

zion Udaleko ordezkariak osatutako Memoriaren eta Bizikidetza Mahaiak Intxorta 1937 elkarteari gaia ikertu eta liburuan aurkezteko, udalerraren historia berreskuratu eta gertatutakoa ezagutarazteko asmoz; 2019an lehen edizioa argitaratu ostean, dagoeneko aurkeztu dute ehun orrialde gehiago dituen bigarren argitalpena. Etxaluzen eman dute lanaren berri, Maria Ubarretxenaren eta Juan Ramon Garairen azalpenen bitartez. Alkateak egileen esfortzuari eman dio balioa, eta Garaik, berriz, oraindik ikertzeko asko geratzen dela gaineratu du. Izan ere, Intxorta 1937ko kideak Gipuzkoako gerrako umei buruzko kontuak ikertzen ere bada biltza. Arrasateko kontakizunak jakin nahi dituenak *arrasate.eus* eta *intxorta.org*-en deskarga dezake irakurgaia.

Testigantzak, informazioa jakiteko

Liburuaren bigarren argitalpenak 27 elkarrizketa gehiago jaso ditu; guztira, 179. Horiei esker, gaur-gaurkoz, jakina da gerrak dimentsio honetako kalteak eragin zituela Arrasaten:

- 220 eraildako.
- 515 atxilotu.
- 314 gerrako ume.
- 329 erbesteratu.
- Bizkaira ihes egindako 393 lagun.
- 632 langile Union Cerrajeratik kanporatuak.
- Lehen lerroan borrokatu ziren 955 lagun: 552 erresistente eta 403 matxinatu –horietatik 250, behartuak–.
- Arrasateko fronteetan hildako 145 erresistente eta 119 matxinatu.
- Giza eskubideen 2.719 urraketa.

NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Betikoei

Alkohola, drogak eta rock-and-rolla edo punka. Tiranteak, *mariteens*-ak, koadrodun alkandora. Edo talderen baten kamiseta, bakeroak eta azken zortzi parrandetako lohia pilatu duten botak. Ezer ez garela eta nihilismorako aldarria. Droga eta parrandaren goraiatzeak. Futbol partida baten irrika.

Bada jende purista, *betiko* musika aldarrikatzen. Euskal Herriko eszena berria mespretxatuz. Trapa, rapa eta halakoak ez omen dira *euskaldunon musika*. A, noski, jaiotze-agiriarekin datorkigu *tronpeteo*, *makarrada* eta kantautore klasikoek gain ez zaigula beste ezer gustatzen dioten ziurtagarria.

Bide batez, utz iezaiozue "ez da politikoa, drogak goraiatzen dituzte eta ez dira euskaraz aritzen" esateari. Punka ez da baldintza beharrezkoa mezu politikorik helarazteko. Mezu apolitiko, desaktibatzaile eta nihilistak gaztelera hutsean zuen *betiko musika*-n ere badira. Autotuneak ere balio du musika iraultzailerako, zuen ikusmira motzak ezetz esaten badizue ere. Cicatzen *Cuello de pavo* bezala, hau ere ez ezazue ahaztu: musika estiloak ez du mezua determinatzen.



H.L.

Modu duinagoan lanean

70 eguneko grebaren ondoren, Arrasateko lorezainek honako lan baldintza hauek adostu dituzte Prezero enpresarekin: urtean 50 lanordu gutxiago, ordaindutako baimenetan hobekuntzak, langileen soldaten arteko parekatzea hainbat plusen bitartez, erosteko ahalmena bermatuko duten soldadak eta Espainiako Lan Erreforma ekiditeko klausula berezia.

Gaurtik domekara, festa-giro paregabea Garagartza auzoan

Sanmigelak bueltan dira, betiko buzkantz, berakatz-zopa, dantza eta zuzeneko musikarekin. Gaur, barikua, Buzkantz Rock jaialdian, Etxepe, Crap, Sindy eta Banana Shake igoko dira plaza-ko oholtzara, 22:00etan hasita. Biharko, egun osoko egitaraua antolatu dute, 17:00etako bertso-saioa barne, eta domeka goizerako ere badaude ekintzak.

Aritz Murua izango da PSE-EEren Arrasateko alkategaia

Egun, Udaleko sozialisten bozeramailea da Aritz Murua arrasatearra, 43 urte ditu eta energia berriztagarrietan teknikari profesionala da. Dio "ilusioz eta indarrez" dagoela erronka berrirako, eta eskerrak eman dizkie Victor Fuentes eta Johanna Sanchez alderdikideei agintaldi honetan Udalean egiten ari diren "lan bikainagatik".

Ur-hoditerian, "Arrasaten inoiz ikusi bako aberia"

Arrasate osoa hornitzen duen ur-sare orokorrean matxura handi bat antzeman zuten astelehenean. Geroztik, Udala eta Gipuzkoako Ur Partzuergoa harremanetan daude, matxura "ahalik eta azkarren" konpontzeko. Datozen egunetan hasiko dira horretan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Maria Ubarretxena alkateak eta Victoriano Fuentes Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak zera nabarmendu dute: "Gure herrian inoiz ikusi ez den aparteko matxura baten aurrean gaude. Horregatik, Udaletik kontsultak egin ditugu Gipuzkoako Ur Kontsultazioan, eta mahai tekniko eta politiko espezifiko bat sortu dugu uraren hornikuntza-sarearen arazoei irtenbidea emateko". Atzo arratsaldean hainbat bilera egitekoak ziren eta aldizkari honen itxieran oraindik zehazteke zuten obrerkin noiz hasi. Edozelan ere, konpontze lanak "ahalik eta

azkarren" hasiko dituztela adierazi dute Udal Gobernutik.

Martitzenean egin zuten lehenengo ahalegina, eta ur-hornidura 16:00etatik 19:30era eten zuten horretarako. "Arrasatek dituen ur-deposituengatik eta herriaren orografiagatik, udalerrri osoari modu desberdinean eragin zion mozketak: goi-azuetan uraren presio baxuak eragin handiagoa izan zuen eta beste eremu batzuetan ia ez zuen eraginik izan", diote Gobernutik.

"Jarduketa berezi bat" behar da Matxura izandako eremuan lurra zulatu zuten, sei metro inguruko sakoneran. "Udalaren

asmoa matxura unean bertan konpontzea zen, baina hura aurkitzeko jarduketa berezi bat behar da: hodie ez dute kalterik, eta, beraz, hormigoizko dado baten barne-lotura batean dago matxura. Era ordenatuan eta segurtasunez zulatzeko, Udalak dagoeneko hornitu duen material espezifiko behar da".



Osiñako biribilgunetik ospitalerako bidean gertatu da matxura. E.A.

Gobernuak gaineratu du "eskura dituen baliabide guztiak" jarri dituela matxura "lehenbailehen" konpontzeko. "Barkame-na eta pazientzia eskatzen diz-

kiegu herritarrei, sortutako egoeragatik".

Nafarroa etorbidean dago matxura, Osiñako bidegurutzearen eta ospitalearen artean.

Inauguratu dute Udal Euskaltegi berria, 40. urteurrenarekin bat

Hamaika ikasgela, irakasle gela bat, liburutegia, aretoa, sukaldea eta tutoretza gela bat ditu euskaltegi berriak

E.A ARRASATE

Eguaztenean egin zuten inaugurazio ekitaldia. Udal Euskaltegi zuzendari Elena San Martinek, HABEko zuzendari Jokin Azkuek eta Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak hartu zuten berba ekitaldian. Halaber, han egon ziren, besteak beste, Garbiñe Mendizabal Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria eta hainbat udal ordezkari eta Arrasateko euskalgintzako kide ere.



Kaitin Allenderen bakarrizketa. E.A.

Lau hamarkadako ibilbidea

40 urte bete ditu Udal Euskaltegiak, eta zuzendaria "oso pozik" azaldu zen urteurrena Kulturolan ospatzeko moduan izateagatik. Era berean, eskerrak eman zizkien modu batera edo bestera Arrasateko Udal Euskaltegiak aurrera egin dezan laguntza eman dute guztiei". Alkateak

ere ildo beretik jo zuen. "Mila esker guztioi, Arrasateko Udalaren izenean".

Jada irekita dute ikasturte berrirako izen-ematea, eta hiru bide dituzte: euskaltegian bertan edo 943 79 70 77 eta 688 78 09 31 telefono zenbakien bitartez.

Jose Aranzabal

74 urteko ibilbide luzearen ostean, bezeroei eskerrak emanaz agurtu da Jose Aranzabal etxetresna denda

1948an abiatutako ibilbidea bukatu zaio Jose Aranzabal dendari, eta, agur esatea erraza ez den arren, aho-zapore gozoarekin amaitu gura dute dendako arduradunek, bezeroei "eskerrik beroenak" emanda.

Erraz esaten da: 74 urte arrasatearrei zerbitzurik onena eskaintzen. "Urte hauetan guztietan saiatu gara gertatu izan diren aldaketetara egokitzen, salmentak hobetu ahal izateko, baina, batez ere, gure bezeroak hobetu ezagutzen joateko eta haiekin batera ikasi ahal izateko", azaldu du Amaia Aranzabalek, dendako arduradunak.

Bezeroen mezuekin hunkituta

Asmo horiek beteta geratu dira. Izan ere, denda itxi behar zutela jakinarazi zutenetik, bezeroek askotariko



Aranzabal senideak, dendan.

"Eskerrik asko urte hauetan guztietan gurekin partekatutuzuen hainbat eta hainbat istoriorengatik".

falta nabarituko dutela. Horrez gain, beste behin ere, erakutsi digute gugan konfiantza izan dutela beti, eta hori zoragarria da", adierazi du Aranzabalek. Beste bezero batek zera esan die: "Gure gurasoek zuen dendara etortzen irakatsi ziguten eta ohitura horri jarraipena eman diogu. Pena handia dugu itxi behar delako".

Komertzio txikientzat babesa

Aukera hau baliatu dute komertzio txikientzat babesa eta laguntza eskatzeko, bai bezeroei eta baita instituzioei ere. "Kontsumitzen dugunaren zati bat, behintzat, herrian egin dezagun, bizitza osoko harreman pertsonalak mantenduz; eta, noski, komertzio berriak irekitzeko baliabideak dituzten instituzioen babesarekin. Azken batean, kaleei bizia ematen jarraitu beharra daukagu, guztiok batera".



Haur parke "artifizialen" ordeztu, parke "naturalak"

Zerrajera kaleko haur parkea berritzekotan da Udala, eta Haur eta Guraso Asanbladak hainbat kexa eta gogoeta plazaratu ditu. Besteak beste, ez daude ados azkenaldian Arrasaten berritu dituzten parke ereduak, eta parke "naturalak" lehenesten dituzte

Eneko Azurmendi ARRASATE

Asanbladak bat egiten du Arrasaten jolas parkeak berritzearekin eta horretarako prozesu parte-hartzaileak sustatzearekin. Hala ere, ez dago ados proposatzen diren jolas parke ereduak. "Azken urteetan Arrasaten berritu diren haur parke guztien ereduak molde, jatorri eta helburu berekoak direla ikusi dugu. Proposatzen diren parkeak elementu artifizialez osatuta daude, gehienbat, kautxuzko lurzorua dute, kolore biziak dituzte eta plastikozko edo metalezko egiturak gailentzen dira", adierazi dute. "Alde batera uzten dute egurraren naturaltasuna, goxotasuna eta leuntasuna, eta lurzoru naturalaren aukera".

Parke berrietako lurzorua kautxuzkoa dela salatu dute. "Petroliotik eratorritako materiala da, guztiz homogeneoa; beraz, haurrek irudimen eta jolas-aukera gutxi dituzte". Haurrek jolas egiteko dituzten mugak "agerikoak" direla adierazteaz gainera, udako egun beroetan "eguzkiak erretako plastiko usain bizia" arnasten dutela nabarmendu dute.

Haurrak naturarekin konexioan

"Ebidentzia zientifikoak frogatzen du" haurrek konexio handia dutela naturarekin. Horrez gain, diotenez, frogatuta dago haurrek zein helduek egunero denbora pasa behar dutela naturan. "Gure ustez, bereziki interesgarria da haurrek jolastoki natural bat izatea herrian, denontzat eskuragarria, haurren osasunari mesede egingo diona eta ingurunearekin eta, batez ere, naturarekin lotura eta denbora iza-eta erraztuko duena".

Udal Gobernuari eskaera

Diote natur elementuekin osatutako parkeak "izugarri" ari direla ugaritzen Europa osoan eta baita bailarako herrietan



Uribe auzoko jolas parkea, uda honetan eraberritu dutena. ARRASATEKO UDALA

ere. Hori dela eta, hainbat eskaera egin dizkiote Arrasateko Udal Gobernuari: Zerrajera kaleko parkea eraberritzeko aukeren artean jolas parke naturalak egiteko aukerak jartzea bozketan –gaur amaitzen da

bozkatzeko epea–, haurrentzat diseinatzen diren etorkizuneko espazioetan elementu naturalak integratzeko konpromisoa hartzea eta, era berean, herriko haur, guraso eta beste eragileen parte-hartze aktiboa sustatzea.



Bergarako San Martin eskolako patioa. HAUR ETA GURASO ASANBLADA

Debagoienean hainbat adibide

Elementu naturalez osatuta dauden Debagoieneko haur parkeen hainbat adibide jarri dituzte: Baratzeko pikua (Oñati); San Martin eskolako patioa (Bergara) eta Beilatokiko parkea (Elgeta). Bailaratik kanpo, Itsasondoko plazako parkea eta Ataungo San Gregorio.



E.A.

'Txiki' eta Otaegi gogoan

47 urte bete dira 1975eko irailaren 27an erregimen frankistak Txiki eta Otaegi ETAko kideak erail zituenetik, eta, urtero moduan, gogoan izan dituzte, Arrasateko Sortuk deitutako manifestazioan eta Montterongo ekitaldian. Ezker abertzalearentzat erreferentziako eguna bilakatu dela adierazi dute, eta Euskal Herriaren askapen nazionala eta soziala aldarrikatu.



HASIER LARREA

Nagusien Astea, arrakastatsua

Pertsona Nagusien Asteak emandakoarekin "oso pozik" daude Arrasateko Nagusien Kontseiluko kideak. "Ekintza guztiak oso jendetsuak izaten ari dira, nahiz eta eguazteneko azokan ez zen hainbeste jende egon. Halere, oso pozik gaude herritarrek eman diguten erantzunarekin". Gaur, ostalaritza tailerra dute Sartei tabernan eta bihar izango da egun handia.

"Biziberrituta" dator urriaren 7an egingo duten Maritxu Kajoi

Urriaren 7an ospatuko dute aurtengo Maritxu Kajoi, eta "biziberrituta" dator, "lagun artean ondo pasatzeko gogoia ez delako azken hiru urteetan desagertu", Komisiñoko kideen esanetan. "Astebete falta da urteko egun dotoreenaz gozatzeko, eta heldu da armairuak zabaldu, hautsa kendu eta atera beharrekoak ateratzeko ordua", adierazi dute.

Dotorezia, umorea eta aldarrikapena uztartu gura dituzte aurtun ere, eta dagoeneko prest daukate dena. Lehenik, gaur, 18:30ean, San Andres auzoko Jai Batzordea omenduko dute Nobenaixuen. "Herrian egin duen eta egiten duen lan guztiagatik jasoko du inbutu preziatua. Maritxuren azpian, eta, urteroko legez, primerako ardoa eta gazta probatzeko aukera egongo da". Bestalde, Ane Agirrek eta Miren Barrenetxeak egin dute aurtengo kartela.

"MU jokalari onak dituen taldea baino gehiago da"

JULEN BERROCAL MU-KO ENTRENATZAILEA

Euskal Kopan nahi baino lehenago kanporatu dute talde arrasatearra, baina entrenatzaile durangarra baikor dago ligara begira: "Aurrean egon nahi dugu"

Xabier Urzelai ARRASATE

Ofizios irakaslea eta afizios saskibalo entrenatzailea da Julen Berrocal (28 urte) durangarra. Jokalari moduan kirol ibilbidea osoa Tabirakon egin eta gero, Barrocalek Zornotza STn, Tabirako STn eta Ibaizabalgo emakumezkoen taldean jardun du orain arte. Udan, oportetara joan zen pentsatzen saskibalo entrenatzaile lanetik arnas apur bat hartu behar zuela, atsedean hartu behar zuela, baina uda amaieran Ointxe!-k egindako proposamenari ezin izan dio ezetz esan. Domekan, Euskal Kopatik kanporatu berri (85-88), tarte hartu zuen GOIENArekin egoteko.

MUko entrenatzaile berria gertu-gotik ezagutzea da elkarrizketa honen helburua...

Bada, oso pertsona normala naiz, lagunekin egotea gustuko duena, entrenatzea izugarri maite duena...

Zer dela-eta onartu duzu Ointxe!-ren eskaintza?

Egia da azken urteak entrenatzaile ibili naizela, eta aurtengo denboraldira begira nire asmoa zen arlo horri atsedean apur bat ematea eta beste esparru batzuetan zentratzea. Ez zegoen nire asmoen barruan lehenengo taldeko entrenatzaile



Berrocal, domekan Iturripen. GOIENA

"URTEAK EGIN DITUT OINTXE!-REN KONTRA JOKATZEN; ORAIN, PLAZERA DA BERTAKO PARTE IZATEA"

le izatea, eta lasai ibili naiz udan. Baina duela hiru aste inguru Ointxe!-ren deia jaso nuen, eskaintza oso polita egin zidaten eta ezin izan nuen ezetz esan.

Ezagutzen zenuen kluba...

Bai, bai, urteak egin ditut Ointxe!-ren kontra jokatzeko; kontrario moduan ezagutzen nuen kluba, eta orain, esan dezaket plazera dela klub honetako parte izatea.

Zer topatu duzu Arrasaten?

Oso talde kohesionatua. Lehenago ere banekien MUk zer-nolako mailako jokalariek dituen; esaten badut hemen talentu handia dagoela ez dugu ezer berririk deskubrituko. Baina lagun talde batekin egin dut topo; talde izaerari sekulako garrantzia ematen diot nik, eta horixe aurkitu dut, talde-lanean jarduteko prest dagoen kuadrilla bat da MU.

Zein da zure erronka?

Denboraldiaurrean nire erronka nagusia izan da jokalariei poliki-poliki erakustea zelan gustatuko litzaidakeen taldeak jokatzeko, eta horretarako baliatu ditugu orain arteko entrenamendu saioak, gure estiloa definitzen joateko. Alde horretatik, gauza berri asko sartu ditugu, arau berriak, jokaldi berriak



MUren eta Tabirakoren arteko partiduen une bat, domekan. GOIENA

Ordezkaritza bako lauoko finala

Euskal Kopako lauoko finala Iturripen jokatu dute asteburuan, baina zale arrasatearrek ezingo dute etxeko taldea kantxan babestu, Berrocalen mutilak dagoeneko kopatik kanpo geratu dira eta. Izan ere, joan den domekan, arrasatearrek 85-88 galdu zuten Tabirakoren kontra, eta Santurtzi ere Iturripen jokatu duten fasetik kanpora geratu da, joan den zapatuan Fundacion Bilbao Basketen kontra 60-79 galdu ondoren. Hori horrela, Tabirako Baque, Fundacion Bilbao Basket, Getxo eta Gipuzkoa Basket Easo taldeen artean jokatu dute lauoko finala.

Zapatuan (16:30), Tabirako Baque eta Fundacion Bilbao Basket izango dira aurrez aurre, eta jarraian jokatu dute bigarren finalerdia Getxok eta Gipuzkoa Basket Easok (18:30). Finala, berriz, domekan jokatu dute (16:30).

ikasten... Bai erasoan eta bai defentsan ari gara lanean. Egia da denboraldiaurrean ere irabazi egin nahi izan dugula, eta Easoren kontra eta Tabirakoren kontra ez dugu halakorik lortu, Euskal Kopatik kanpo geratu gara. Baina ondo ari gara lanean. **Ligara begira, zein da taldeak duen helburua?**

Klubaren helburua da anbizioz jardutea, eta, garbi esanda, ligan aurrean egon nahi dugu. Oraindik lana geratzen zaigu egiteko, jokalariek gauza gehiago barneratu behar dituzte, guk ere hobeto ezagutu behar ditugu jokalariek, baina bai, ligan ahalik eta gorenen egon nahi dugu.



GOIENA

Errugbi familia, batuta

Arrasate Rugby Taldeko lagunek asteburu bete izan dute. Egubakoitzean klubeko taldeen aurkezpena egin zuten Portalioan, eta hitzordu horretara batu ziren 25. urteurrena ospatzen zebiltzan beteranoak ere. Gero, beteranoei harrera egin zieten udaletxean, eta zapatuan lagunartekoak izan zituzten Mojategin, talde gonbidatuekin batera.



Eneko Azurmendi ARRASATE

40. urteurrenean askotariko ospakizunak egin zituzten, eta, konturatu orduko, pasatu dira beste hamar urte ere. Hala, 50. urteurreneko ekintzen berri emateko prentsa agerraldia egin dute asteon, Kulturateko areto nagusian. "Sasoitsu iritsi gara urteurren honetara, eta ikasturte osoan hainbat ekintza egingo ditugu hori ospatzeko", adierazi du Marta Izagirrek, Arrasate Musikaleko zuzendariak.

Mende Erdiko ibilbidea ospatzeko egin duten bideoa kalera-tu dute dagoeneko, eta, horrekin batera, egutegi bat ere kalera-tuko dute urrian. Azaroan argazki erakusketa bat egingo dute, Kulturaten. "Polita izango da; izan ere, ibilbide luzea da eta horrek askorako ematen du. Argazki asko jaso ditugu, eta eskertuta gaude", dio Izagirrek. Halaber, ikasturtean zehar hainbat hitzaldi ere egingo dituztela aurreratu dute, nahiz eta oraindik ez dituzten zehaztuta.

Herriko taldeekin elkarlanean

Ospakizunaren baitako emanaldiak "desberdinak" izango dira, herriko taldeekin elkarlana sustatuz, betiere. "Abesbatzekin, agian, elkarlan handiagoa dugu gure egunerokoan, baina badaude beste estilo batzuk gurekin bateragarriak direnak", azaldu du zuzendariak. Horren isla da, adibidez, The Potes taldearekin batera egingo duten emanaldia, 2023ko maiatzaren 20an, 19:30ean, Uarkape pilotalekuan.

Aurrez, ordea, bandaren eta orkestraren arteko elkarlana ikusi ahalko da, martxoaren 11n egingo baitute kontzertua, hori ere Uarkapen, 19:30ean hasita. "200 bat lagun izango gara, guztira. Herriko abesbatzak ere

Mende erdira osasuntsu iritsita, ospatzeko garaia

2022-2023ko ikasturtearekin batera, 50. urteurreneko ospakizunetan murgilduko da Arrasate Musikal, bihar hasita. Izan ere, gazteen eta helduen bandak elkarrekin egingo dute kontzertua, Monterronen, 18:30ean. Aurrez, kalejira bat ere egingo dute



Arrasate Musikaleko hainbat ikasle eta irakasle, musika eskolaren kanpoaldean, instrumentuak jotzen. XABI URTZELAI

elkartu gura ditugu; beraz, jende asko pilatuko da, eta Uarkape aproposagoa da horretarako".

Ekainean, ikasturte amaierarekin batera, beste hiru ekintza egingo dituzte: batetik, ekainaren 10ean, Debagoieneko Musika Eskolen Jaia egingo dute; bestetik, ekainaren 24an, bandaren kontzertua izango da, 13:00etan, Monterron parkean

–euria bada, Amaia antzokian–; azkenik, ekainaren 30ean, Arrasate Musikal Big Banden emanaldia egongo da Monterron parkean –euria bada, hori ere Amaia antzokian–.

Etorkezunari begira, "ilusioz"

Hasierako urteetan 300 bat ikasle ziren, eta gaur egun 500 ikasle inguru dira dagoeneko, eta,

etorkizunera begira ere, haientik beste horrenbeste pasatzea gurako lukete. Gainera, "ilusioz" daude, eskola berri bat zain dutelako. "Metalurgica Cerrajeran hasi ginen; gero, Aprendicesera pasa ginen; orain, Monterronen gaude; eta gure lehengo etxera itzuliko gara laster, Juan Arzamendi Musika Etxera. Ea laster hara joateko moduan gauden.

Estreinatzen dugunean, jende gehiago gurera erakarri ahal izango dugula uste dut".

Juan Arzamendi Musika Etxeak etapa berri bat abiaraziko du, eta hainbat erronka izango ditu, bide horretan, Arrasate Musikalek: "Teknologia berrietara egokitu, askotariko musika estiloak landu eta ikasleen adin tartea zabaltu. Orain ere etortzen zaigu adineko jendea, baina inoiz ez da berandu musikara hurbiltzeko, eta gure atea zabalik daude edonorendako".

2022-2023ko ikasturteko egitaraua:

2022

- **Irailean** Spota kaleratu.
- **Urriak 1** 18:30ean, Monterron parkean, banda gaztearen eta helduaren kontzertua.
- **Urriak** Egutegia kaleratu.
- **Azaroan** Argazkien erakusketa Kulturaten.
- **Ikasturtean zehar** Hitzaldiak.

2023

- **Martxoak 11** 19:30ean, Uarkapen, bandaren eta orkestraren kontzertua.
- **Maiatzak 20** 19:30ean, Uarkapen, bandaren eta The Potesen kontzertua.
- **Ekainak 10** Debagoieneko Musika Eskolen Jaia.
- **Ekainak 24** Bandaren kontzertua, Monterronen.
- **Ekainak 30** Big Banden kontzertua, Monterronen.

Kontzertu hirukoitza, Pertsona Nagusien Astea borobiltzeko

Bihar, zapatua, Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna da, Pertsona Nagusien Asteko egun nagusia. Hori dela eta, hiru kontzertu egingo dira. 13:00etan, Herriko Plazan, Puro Relajo taldeak joko du. 19:00etan, Portalioan, Trio Medianoheren txanda izango da. Azkenik, 20:30ean, Arbolapetan, The Song taldeak egingo du emanaldia.



Puro Relajo, Arrasaten, 2020an. GOIENA

Beatriz Arzamendi, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak atzo abiatu zuen 2022-2023ko denboraldia, Beatriz Arzamendi arrasatearraren *Sorginen soina* obrarekin. Iruñeko Baluartean egin zuten estreinaldia eta han izan zen arrasatearra ere, Perry So zuzendariarekin batera. Gaur, egubakoitza, Tafallako Kultur-gunean egingo dute bigarren emanaldia, 19:30ean.

'Black is beltza II: Ainhoa' filmaren hiru emanaldi Amaian

Joan den astean estreinatu zuten Fermin Muguruzak zuzentzen duen pelikula, Donostian. Maria Cruickshank aktore oñatiarrak, halaber, ahotsa jarri dio protagonistari, Ainhoari. Gaur, berriz, ohiko zinemetan estreinatuko dute, eta, hala, Amaia antzokian hiru emanaldi egingo dituzte, hirurak 19:30ean: gaur, etzi eta etzidamu. Sarrera bost euro da.

OHARRAK

Neomak, Kajoin, gaur

Disko berriaren aurkezpen txiki bat egin du Neomak taldeak gaur, egubakoitza, Kajoi tabernan, 18:00etan. Solasaldi eran izango da, eta abesti batzuk ere joko dituzte.

Bulego eta Lemak

Urriaren 8an, zapatua, Bulego eta Lemak taldeek emanaldia egingo dute Monterron parkean, 18:30ean.



Titulu ofizialak banatzeko ekitaldian, Bergarako alkatea ikasle bati eskua ematen; atzean, Aldundiko ordezkariak. GOIENA

Unibertsitatea, norbere beharretara egokituta

Bergarako UNEDek ingeniariak, zientziak, arkitektura, arteak, humanitateak zein osasunarekin lotutako 171 unibertsitate-ikasketa ofizial eskaintzen ditu, gradu, gradu konbinatu, master, doktorego-programa, mikrogradu eta mikromasterren bidez

Online bidezko eta aurrez aurreko formakuntzarako metodologia darabilte Bergarako UNED unibertsitatean, ikasleari bizitza pertsonala eta profesionala heziketarekin uztartzeko aukera emanaz. Arrakastatsua da jokabide hori, malgutasuna eta autonomia eskaintzen baitizkio erabiltzaileari, gaur egungo bizimodua aintzat hartuta, asko baloratzen diren abantailak: "Ikasketak norbera dagoen lekutik jarraitzeaz gain, ikasleak bere erritmoa eta intentsitatea aukeratu ditzake", azaldu dute UNEDetik. Horrek ekonomikoki ere laguntzen du, ez baita beharrezkoa maila osoetan matrikulatzea; kontrara, kreditu eta ikasgai kopurua bere behar eta interesen arabera aukeratzea posible du ikasleak.

Eskaintza zabala

Beraz, nahi izanez gero, online formakuntza tutorizatu aurrez aurreko arretarekin osa daiteke Bergarako San Martin Agerre

plazan kokatutako zentroan. Jakintza-arlo guztietako ikastaroak daude bertan, unibertsitate-ikasketa ofizialen balioa dutenak: askotariko ingeniariak, humanitateak, zientziak eta arteak, arkitektura, osasuna, gizarte-zientziak, zientzia juridikoak... Denera, 171 ikasketa desberdin burutu daitezke, sei kategoriatan banatuta; izan ere, 31 gradu, 21 gradu konbinatu, 81 master, 21 doktorego-programa, hamasei mikrogradu eta mikromaster bat daude UNEDen katalogoaren barruan.

Etengabe aurrera egiten ari den unibertsitatea da, eta horren erakusle da aurtengo ikasturterako bi gradu berri gehitu di-

AURTENGO IKASTURTERAKO INTERNET BIDEZKO MATRIKULAZIO-EPEA IREKITA DAGO JADA

tuela: Haur Hezkuntza eta Energiaren Ingeniaritza.

Bestelako ikastaroak

Horrez gainera, berezko ikastaroak eta etengabeko prestakuntzaren arloko ikastaroak eskaintzen ditu UNEDek: Psikomotrizitate eskola; Gobernantza ireki eta parte hartzaileko formakuntza; Aduana ordezkariak eta nazioarteko merkataritzako heziketa; Liburutegi laguntzaile ikastaroa; Idazle eskola; Osteopatia trebakuntza; eta Medikuntza osatzailea ikastaroa, esate baterako.

Gainera, etxetik mugitu gabe lau hizkuntza desberdin ikasteko parada ere badago Bergarako zentroan; euskara, ingelesa, frantsesa eta alemana metodologia berezia erabilia uztartzen dira unibertsitatean. Bestalde, 25 urtetik gorakoek eta 45 urtetik gorakoek aurretiko titulaziorik gabe unibertsitatean sartzeko ikastaroak ere eskura dituzte.



Hezkuntza zentroko aurrez aurreko ikastaro bat. UNED

Mikrograduak eta mikromasterrak

Denboraz justu ibiltzen diren baina euren ezagutzan sakondu nahi duten pertsona ugari daude gurean. Horiei begira, Bergarako zentroak gradu edo master oso bat egin beharrik izan gabe, jakintza-arlo zehatzetan espezializatzeko interesa duten pertsonen erantzun bat ematen die, mikrogradu zein mikromaster izeneko tituluak eskainita. Honela definitzen dute kontzeptua UNEDekoek: "Titulu ofizialak dira, eta emandako ikasgaiak gerora egin ahal izango den gradu edo master batean daude aitortuta, baliokidetzea eskatu beharrik izan gabe".

Hori horrela, UNEDek ikasturte honetarako guztira hamasei mikrogradu eta mikromaster bat proposatzen ditu, guztiak gaurkotasan betean dauden eta gizartearen konpromisoarekin lotutako gaietan zentratutakoak, besteak beste, klima-aldaketan edo garapen jasangarrian.

Alor honetan ere erreferentziatzeko heziketa zentroa da Bergarako, mikrogruetan eta mikromasterretan titulu ofizialak eskaini dituen Europa mailako lehenengo unibertsitatea izan baita.

Eman izena

2022-2023ko ikasturterako matrikula-epea irekita dago jadanik. Unibertsitate askotan ez bezala, UNEDen ez dago izena emateko kopuru mugaturik, eta ez dute sarbiderako gutxieneko kalifikaziorik eskatzen. Matrikulazio prozesua erabat online egiten da, modu errazean, www.uned.es/ca-bergara atarian sartuta. Behin bertan, erabiltzaile-izen bat eta UNED campusera sartzeko pasahitza behar dira; lehen aldian dutenek sistematik bertatik eskura dezakete identifikatzailea. Eta erabiltzaile-izen eta pasahitz jabeek, bietako bat gogoratuko ez balute, berreskuratzeko laguntza jasoko lukete UNEDeko lan-

URTETIK URTERA GORA EGITEN DU ONLINE HEZIKETA AUKERATZEN DUTEN GAZTEEN KOPURUAK

gileen aldetik. Horretarako zein bestelako informazioa kontsultatzeko, 943 76 90 33 telefono-zenbakira deitu edo idatziinfo@uned.bergara.es helbidera idatzi daiteke.

Askotariko profilak

Unibertsitate-ikasketak hasi dituzten gazteak, curriculum hobetu nahi dutenak, bizitza profesionalari bultzada bat eman nahi diotenak edota lanean ari diren profesionalak, birziklatu nahi duten pertsonak, lanik gabe dauden eta lan-aukera gehiago izateko formakuntzaren aldeko apustua egiten duten pertsonak, edo erretiroa hartuta dauden eta ezagutzak aberastu nahi dituzten helduak, denentzako tokia dago UNEDen. "Begi kolpe batez elkarren arteko zerikusirik ez duten ikasleek bat egiten dutelako kontu batean: formakuntza sakontzeko motibazioan". Urtez urte, gainera, gora egiten du unibertsitate-ikasketak egiteko online heziketa aukeratzen duten gazteen ehunekoak.



Getxoko saioan, Peru Abarrategi kantuan eta Alaia Martin ondoan. BERTSOZALE ELKARTEA

Esperientziaz gozatu, puntuei begiratu barik

Bertsolari Txapelketa Nagusian estreinatu zen Peru Abarrategi zapatuan; Getxon jokaturako saioan seigarren sailkatu zen, 627 punturekin; aste bukaeran, Manex Agirre herrikidearen txanda izango da. Gasteizen kantatuko du, domekan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Esperientzia berria izan zen zapatukoa Peru Abarrategi aramaiorrendako. Bertsolari Txapelketa Nagusian estreinatu zen, Getxon: urduri hasi zen Abarrategi, baina saioak aurrera egin ahala nerbioak kontrolatu eta gozatzeko aukera ere izan zuela aitortu dio GOIENARI.

Sei bertsolari ibili ziren kantuan. Ariketa puntuagarriak egin ostean, honela geratu zen sailkapena: 738 puntu batu zituen Alaia Martinek. Haren ondorengatik geratu ziren Nerea Elustondo, 695ekin, Agin Laburu, 685ekin, Oihana Bartra, 653,5ekin, Unai Mendizabal, 635ekin, eta Peru Abarrategi, 627rekin.

Martin finalurrekoetarako sailkatu zen zuzenean; bestek lehen faseko saio guztiak amaitu arte itxaron beharko dute sailkatu diren edo ez jakiteko.

Puntuazioari begira jarrita, hamarrek txikian ibili zen ondoen Abarrategi. Harena izan

zen bigarren puntuazio altuena ariketa horretan, Alaia Martinenaren atzetik. "Alaiarekin egokitu zitzaidan kantatzea, eta ederra izan zen. Jende askok ere esan zidan oso polita joan zela ofizio hori, eta ni alde positiboarekin geratuko naiz", dio aramaiorrenak.

Esperientzia berria

Etorkizunean balioko dion esperientzia izan zela dio Abarrategik: "Puntuetan azkena geratzea tokatu zitzaidan, baina ez da gauza bat atzera eragiten didana, badakit-eta ze izenen inguruan ibili nintzen kantuan".

Domekan Arrasaten jokatu zen txapelketako lehenengo faseko bigarren saioa. Joanes

MANEX AGIRREK GASTEIZEN KANTATUKO DU, MARIA DE MAEZTU ARETOAN, 17:00ETAN

Illarregik lortu zuen puntuazio altuena, eta, ondorioz, finalurrekoetarako sailkapena.

Manex Agirre, domekan

Asteburuan beste bi saioa jokatu dituzte: bihar, Gotaine-Iribarnen, eta domekan, Gasteizen, Maria de Maeztu aretoan, 17:00etan. Gasteizko saioan Manex Agirrek parte hartuko du; Txapelketa Nagusian badu esperientzia, 2013an kantatu zuen eta. Oraingoan, Amaia Iturriotz, Haritz Mujika, Iban Urdangarin, Miren Artetxe eta Xabat Galletebeitia izango ditu ondoan. "Bakoitzak bere proiektzioa egiten du eta ni aspirazio handi barik nago. Saio ona egin eta neure buruarekin pozik geratzeko gogoz; ea akats gutxi egiten ditudan. Nik aspiraziorik ez izateak ez du esan nahi beste batzuek ez dutenik izango, normala den moduan. Ez dut uste kantxa faktoreak eragiten duenik, baina niretzako erosoia izan daiteke. Abesteko gogoz nago".

Euskara ikasteko hainbat aukera daude Aramaion

Urriaren 7ra arte eman daiteke izena udaletxean; ondoren antolatuko dituzte taldeak eta ordutegia

A.E.G. ARAMAIO

Urriaren 7ra arte eman daiteke izena euskara ikasteko ikastaroetan. Udalak antolatutako eskaintzaren barruan hiru ikastaro daude: alde batetik, C1 edo EGA azterketa prestatzeko aukera dago. Aukera hori proposa da C1 ziurtagiria atera nahi dutenendako. Beste aukera bat mintzapraktika ikastaroa izango litzateke. Taldeetan elkartzen dira eta euskaraz berba egiteko gune proposa izaten da. Berba egiteaz gain, gramatika, aditzak... errepasa daitezke. Joan den ur-

tean ibilitakoek taldearekin jarraitzeko interesa erakutsi dute. Horrez gain, interesa duen edonork izango du taldean sartzeko aukera.

Hirugarren aukera da erretiratuaren taldearen ikastaroa. Hain zuzen ere, Alaiak erretiratuaren elkartearen izango da ikastaroa: goizetan eman beharko da izena, alaiak202@gmail.com helbide elektronikoan.

Udaletxean eman beharko da izena, 945 44 50 16 telefono zenbakian; ondoren antolatuko dira taldeak.

Egutegia ilustratzeko balio duten argazkiak, lehiaketara

Urriaren 28ra arteko epea egongo da lanak aurkezteko; udaletxean edo liburutegian aurkez daitezke

A.E.G. ARAMAIO

Aramaioko Udalak argazki lehiaketa jarri du martxan. Urtero egiten duten moduan, datorren urteko egutegia ilustratzeko balioko duten argazkiak aukeratzea izango da helburua. Argazkiek Aramaion egindakoak izan beharko dute, nahiz eta gaia libreza izan. Urriaren 28ra arteko epea dago lanak aurkezteko.

Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkez ditzake, gehienez. Nola aurkeztu behar diren azaldu dute: formatu horizontalean izan beharko dute argazkiek, eta

izenburua, tokiaren izena eta data izan beharko dituzte jarrita. CD batean edo arkatz elektronikoan aurkeztu beharko dira, JPG formatuan. Lehenago argitaratu gabeak edo saririk jaso gabeak izan beharko dute. Neurriari dagokionez, 1 MG baino handiagoak izan beharko dute. Argazkiak moldaketak izan ditzake, baina ezin izango da jatorrizko konposizioa aldatu.

Argazkietan pertsonen lehen planoak agertzen badira, pertsona horien baimena aurkeztu beharko da.

Fitflamc ikastaroa astelehenean hasiko dute, kiroldegian

Astelehenean hasiko dute ikasturtea; lehenengo eskola doan izango da, jendeak jarduera eza gutu dezan. Fitflamc ikastaroa Malena Lobo flamenko irakasleak emango du. Fitnessa eta flamenkoa batzen dituen jarduera da. Eskolak astelehenean izango dira, 18:30etik 19:30era, kiroldegian. 659 46 47 53 zenbakira deituta eman behar da izena.

Gaur, barikua, eta domekan izango dira pilota partiduak

San Martin pilota txapelketarekin jarraituko dute: gaur, 18:15ean hasita jokaturako dituzte partiduak infantil, alebin eta kadete mailetakoe. Domekan, 10:00etan hasiko dira partiduak. Aramaioko pilotariak domekan jokaturako dute: infantil A eta benjamin mailetakoe, hain zuzen. Domekako zortzi partiduetatik lau aramaiorrenak izango dira.

Lagun artean dantzatu nahi duenak, badaki

Bereziki euskal dantzak jorrazten dituen Lagun Artean taldea 1956a ezker ari da Aramaion dantzarekiko zaletasuna sustatzen. Dagoeneko ekin diote ikasturte berriari, Sagardo Egunean erakutsi zuten moduan. 4 urtetik gorako edonor dago gonbidatuta

Hasier Larrea ARAMAIO

Adin tarteen araberako sei taldek osatzen dute Lagun Artean: dantzari helduen talde batek eta adinez txikikoak diren bost taldek. Adinez nagusiak diren taldean hamasei dantzari daude gaur egun, eta, orokorrean, euskal dantzak eta koreografia itxiak ikasten dituzte. Bestalde, talde gazteetan zortzina lagun inguru aritzen dira. "Ume txikienekin gorputz adierazmena, sormena eta jolasak txertatzen saiatzen gara", adierazi du Oihane Vicentek. Hura da guztien irakasle, sei urte daramatza egiteko horretan eta "gustura asko" aritzen da, hein handi batean, aramaioarrak "oso animatuak" direlako.

"Ohiko ikasturtea" aurreikusuten du Vicentek, nahiz eta ez duen ukatzen "sorpesak" egon daitezkeela: "Izan ere, herri mailako ekitaldien atarian beti dago proposamen berriekin etortzen den baten bat".

Mutilak falta dira

Ostegun eta ostiral arratsaldeetan egiten dituzte ordu bateko in-guruko txandakako saioak kiroldegian. 90eko hamarkadan egondako eternaldia "aspaldi" gaudituta, "osasuntsu" dago gaur egun Lagun Artean. Aldar-



Joan den domekako Sagardo Egunean, Lagun Artean taldekoak dantzan. GOIENA

HERRIKO JAIETAN, ADIBIDEZ, HELDUEK ARIN-ARINA SALSA ESTILOAZ NAHASTUTA DANTZATU ZUTEN

te hori eta orain arte egindako ibilbidea azalduko duen dokumentala ere hasiak dira ekoizten eta grabatzen, Mikel Serratok zuzenduta.

Baina beti dago hobetzeko zerbait, eta, kasu honetan, taldeak

generoaren aldetik desorekatuta daudela aipatu du irakasleak: "Herri gehienetan dagoen arazoa da, mutilei kirolaren eta dantzaren artean aukeratzeko unea iristen zaienean kirolaren alde lerratzen direlako, gehienetan; zaila da hori iraultzeko formula bilatzea".

Hurrengo, jubilatuekin

Urri bukaeran, Jubilatuen Egunean, egingo dituzten dantzaldiak prestatzen jarriko dira datozen asteetan. Probatu nahi duenak 656 73 68 47 zenbakia du eskura.



Astehenean egin zuten hileroko saioa. AINHOA ALDAZABAL

Liburuetatik abiatu, bizitzari buruz jardun eta hausnartzeko

Irakurketa klub feministak ikasturteko lehen saioa egin du; hurrengoan, abortua izango dute mintzagai

H.L. ARAMAIO

Kuriositate kulturala eta irakurzaletasuna duten emakumeei zuzendutako irakurketa klub feministak prest dauka ikasturte osorako programa. Ainhoa Aldazabalek gidatuta, hileroko gai baten bueltan jarduteko irakurgaiak proposatuko dizkie partaideei: "Haiek eskatzen didate nik aukeratzeko, sarri behar bezala hautatzen ez dutela sentitzen baitute; eskaintza hain zabala da eta!", azaldu du.

Hala, askotariko formatuetan idatzitako euskarazko sorkuntzak eta itzulpenak lantzen dituzte;

irailean zehar, esaterako, Madi Ane Txoperenaren *Ez erran inorri* eleberria izan dute esku artean, aste honetan egin duten saioan txikitako abusu sexualen gaiari buruz jarduteko. Urrirako, abortua eramango dute erdigunera, *Emakume guztiok* komikiaren eta *Kontakizuna* autobiografiaren bitartez.

Ateak "beti" irekita

Normalean jendea urte osorako apuntatzen den arren, Aldazabalek aipatu du posible dela hilabete bakarrerako ere izena ematea, liburutegira deituta.

Orixol elkarteak Pirinioetako bi gailurretara egingo du irteera

Urriaren 14tik 16rako asteburuan Musales eta Gran Facha igotzeko izen-ematea urriaren 9a arte dago irekita

H.L. ARAMAIO

Orixol mendizale elkarteak gus-tuko du Pirinio aldera irteerak antolatzea. Aurten, pare bat aldiz zabaldu dute hara joateko deialdia, otsailean eskiatzeko eta ekainean tontorrez tontor ibiltzeko aitzakiarekin. Urrirako ere antzeko plana proposatu dute, Huescako iparraldera joango baitira hirugarren asteburuan. Ostiral arratsaldean autobusean irten eta gaua Piedrafita de Jacako babeslekuan pasa eta gero, hurrengo goizean La Sarratik Musales mendiko gailurra igoko

dute. Jaitsieran, Respmusorantz egingo dute, bertako aterpetxean hartu baitute ostatua. Domekan, berriz, hirimilako bat igotzea izango da erronka: Gran Facha. Arratsalde aldera, azkenik, Baños de Panticosan hartuko dute autobusa Aramaiora itzultzeko.

Orixolen sare sozialen bidez eman daiteke plaza mugatuko irteerarako izena. 110 euroren truke –baskideek, 100 euro–, lo-lekua, autobusa, zapatuko gosari eta afaria eta domekako gosaria daude ziurtatuta; gainontzekoa, beraz, mendizaleen kontu.

Ekitaldiek, "harrera beroa"

Erretiratuen Eguna, Gaba Baltza, Euskararen Eguna, Inauteriak, Dantzari Txikien Eguna, sanmartinak... Askotariko ekintzetan parte hartzen dute Lagun Artean taldeko kideek. Erakustaldi publikoak prestatzerakoan ekarpen ugari egiten dituzte dantzariak, dantza-pausoak eta arropak aukeratzeko garaian: "Emaitza gustuko izaten du ikusleak".



Aurtengo sanmartinetan, haur jaioberrien ongietorriko ikuskizuna. GOIENA



Orainsu arte Basotxoko erretiratuen egoitza izan den eraikina. MIRARI ALTUBE

Osasun etxe berriaren lanak hastear dira

Eusko Jaurlaritzak aditzera eman du 3,5 milioi euro inbertituko dituela; osasun zerbitzuekin batera Udalaren arreta sozialerako gunea ere egokituko da eraberrituko duten eraikinean, hala, zentro soziosanitario integratua sortuz

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaletako osasun etxe berriaren atzera kontaketa hastear da. Hala adierazi du Eusko Jaurlaritzak ohar bidez astean –nahiz eta data zehatzik ez eman–, eta aditzera eman du 3,5 milioi euro inbertituko dituela. Zaharren egoitza lehenengo eta azken urteetan Basotxo erretiratuen

izandako eraikina egokituko du "herritarren asistentzia-premia berrietara", eta eraikin berean Udalaren arreta sozialerako gunea ere egongo da, zentro soziosanitario integratua sortzeko; Aretxabaletako Udalak ere hartu du parte proiektu horretan.

Gaur egun, 7.118 pertsonak jasotzen dute arreta herriko

osasun etxean, eta Osakidetzatik adierazi dute eraikin berriarekin herritarrek zein profesionalek erabiltzen dituzten espazioak modernizatzea eta gizatiarrago egitea dela helburua. Lanek hamalau hilabete inguru iraungo dute, ondo bidean, eta 2023ko bukaerarako abian izatea gura-ko lukete.

Kontsulta gehiago

Errekabarren kalean –zaharretik gertu– dagoen eraikinak 1.700 metro koadro ditu lau solairutan banatuta –sotoa, beheko solairua, lehen solairua eta teilatupea–, eta horietatik 1.250 metro koadro erabiliko dira.

Familiako eta Komunitateko Medikuntzako profesionalek bost kontsulta izango dituzte eta Lehen Mailako Arretako Erizaintzakoek beste bost. Horiez gain, proba funtzionalak egiteko bi gela egongo dira eta Pediatriako eta Erizaintza Pediatrikorako kontsultak ere bai.

Ginekologoaren eta emaginaren bi kontsulta ere izango dira bertan; eta erditze unerako eta amaren eta umearen prestakuntzarako espazio bat eta edoskitze-gela bat ere bai. Horiekin batera, bilera-gelak, komunak eta biltegietarako ohiko eremuak ere izango ditu eraikinak.

Azken solairuan, ostera, Udaleko Gizarte Zerbitzuek izango dute tokia; sei bulego eta bilera-gela egongo direla han esan dute.

Proiektu berritzailea

Osakidetzak abian jarri duen Eskariaren Kudeaketa izeneko proiektuaren baitan –konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatuta arreta pertsonaltzaren aldeko eredu–, harre-ara-gune bat egingo da arreta pertsonalizatua emateko; hiru mahairekin osatutako gunea

izango da eta arreta bereziraiko bulego bat ere egongo da.

Hainbat kolektibok –bereziki, adinekoenak zein gazteenak– "zerbitzu sanitarioaren zein sozialaren beharra" izan ohi dutela jakinik, zentro soziosanitario integratuaren alde egin du Osakidetza: "Ikuspegi soziosanitarioaren beharra are handiagoa da, biztanleria pixkanaka zahar-tzen doala aintzat hartuta".

Adierazi dute antolaketa eredu berri horrek tresna egokiak eman gura dizkiela profesionalei beharrak dituzten pertsonen identifikazioa hobetzeko, eta erabiltzaileei, zerbitzuak jasotzeko tramite-kontuak ere erraztu egingo dizkiela: "Ekimen horri esker, Aretxabaleta EAE osoan proiektu berritzaile horren lehen onuraduna izango da".

Basotxokoak, Zainduz-en

Basotxo erretiratuen elkarteak kideek azken asteotan jardun dute egoitza husten. Komentua izandako eraikinean izango dute lekua laster, adinekoendako gizarte zentroa egokitzen dutenean han; bien bitartean, Zainduz gimnasioa izandako lokalean elkartuko dira.

FAMILIA MEDIKUEK BOST KONTSULTA IZANGO DITUZTE ETA ERIZAINZAKOEK, BESTE BOST

Biribilgunea eraikiko du Foru Aldundiak herriaren sarreran

Kuartel parean dagoena ordezkatuko du; lanak urrian hasiko dituzte eta sei aste inguru iraungo dute

M.A. ARETXABALETA

Herriaren iparraldeko sarreran, kuartel zaharraren parean, biribilgunea eraikiko du Foru Aldundiak. Hori kokatuko da GI-3920 errepidearen –Foru Aldundiaren jabetzakoa– eta Santakurtz, Otalora eta Bedarretako San Migel kaleen arteko bigurutzean, eta ordezkatuko du gaur egun bi erditan zatituta dagoena. 80.000 euro inguruko aurrekontua bideratu dute horretara eta Excavaciones y Transportes Orsa enpresak egingo ditu lanak. Horiek urrian

hasiko dira eta sei aste epean amaitzea aurreikusi dute.

Aretxabaletako Udalak egin zion biribilgunea eraikitze eskaera Foru Aldundiari, herriko sarrera horretan abiadura murrizteko eta bide-segurtasuna hobetzeko helburuarekin.

Egungo diametroarekin

Biribilgunearen barruko eraztuna itxi egingo dute, ibilgailu guztiek ingura dezaten. Deuseztatutako galtzadaren zabalera 6,64 metroko errete batek eta 0,50 metroko barne-bazterbide batek



Kuartel parean bi erditan zatituta dagoen biribilgunea. M.A.

osatuko dute. Erreien neurriak ere eman dituzte: GI-3920 errepidetik biribilgunera sartzeko zabalera 3,41 metrokoa izango da goranzko noranzkoan, eta norabide bereko irteerakoa, berri- ruz, 3,56 metrokoa; behe- ruzko

noranzkoan, 3,30 metroko sarrera eta 3,45 metroko irteera. Bi ertzak urbanizatuta daudela kontuan hartuta diseinatu dituzte zabalera horiek. 29,30 metroko egungo diametroa mantendu egingo da.

Ludotekaren jarduna ezagutzeko atek irekiko dituzte

Atek irekiko egingo dituzte Algara ludotekan urriaren 3tik 6ra bitartean. 4 eta 6 urte arteko neska-mutikoei eskainitako aisialdi-gunea da eta adinaren arabera txandak osatu dituzte Gernika plazan dagoen egoitza eta bertako jarduna ezagutzera joateko. Lehen txanda 16:45etik 18:15era izango da eta bigarrena, 18:15etik 19:30era. Ondoren, izena emateko epea zabalduko dute, urriaren 17tik 18ra, hain zuzen ere; online egingo da hori –urteko prezioa 90 euro da–.

Argibide gehiago gura izanez gero, telefonoz deitu daiteke –943 79 05 81 eta 634 45 28 37–, edo mezu bat bidali: loramendi.aisia@gmail.com.

Lehiaketa abian da, Karmele Igartua gogoan

Idazle aretxabaletarraren omenezko sorkuntza lehiaketa antolatu dute Bergarako Idazle Eskolak eta Udalak, eta poesia lanak jasoko dituzte aurten; aurkezteko epea dagoeneko zabalik dago, azaroaren 30a bitartean, eta saria 2.500 eurokoa izango da

Mirari Altube ARETXABAETA

Karmele Igartua Sorkuntza Lehiaketa badator berriro, oraingoan ere Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak elkarlanean antolatuta. Hasiara batean, Idazle Eskolak ikasle artean antolatutako beka izan zen baina Udalak bat egin zuen horrekin eta lehiaketa gisa egin du ibilbidea azken urteetan; hala, hamabigarrenez egingo da. "Plazera da guretzat, herriko idazle eta olerkari garrantzitsua izan zelako Igartua", zioen Ainhoa Cabero zinegotziak.

Saria: 2.500 euro

Deialdiaren nondik norakoak aurkeztu zituzten martitzenean Kultura zinegotzi Caberok, Bergara Idazle Eskolako zuzendari Tere Irastortzak eta epaimahaia- ren kide Pako Aristi idazleak. Poesia izango da aurten landuko den generoa, eta 16 urtez gorako edozein idazlek parte hartu ahal izango du. Gaia librea izango da

eta poema-bilduma bakarra aurkeztuko da.

Lanak aurkezteko epea azaroaren 30ean amaituko da; udal-letxera eroan ahal izango dira edo posta elektronikoki bidez bidali: kultura@aretxabaleta.eus. Lehiaketaren irabazleak 2.500 euro jasoko ditu, eta 2023ko Idazle Eskolako edozein modulutan parte hartu ahal izango du, inolako matrikularik ordaindu gabe. Argibide gehiago eta oinarriak www.idazten.com orrian aurkitu ahal izango dituzte interesatuek. Lehiaketen garrantzia nabarmendu zuten: "Idazle berrientzat, askotan, bekak eta lehiaketak ezinbestekoak dira. Horregatik, Aretxabaletako Udala eskertu gura dugu".

IGARTUAREN POESIA OSOA ARGITARATUKO DU PAMIELA ARGITALETXEAK DURANGORAKO

Aintzat hartzekoa

Bergarako Idazle Eskolako beka irabazi zuen Igartuak 2006an –orain, haren izena daramana–, *Gero arte* ipuin-bildumarekin. Eta hurrengo urtean, Euskaltzaindiaren Felipe Arrese Beitia saria jaso zuen haren lehen lanak: *Hitzak orbainetan*. Irastortzak haren ekarria izan zuen gogoan: "Gidoiak landu zituen, haurrentzako antzerkiak ere bai, baina hura poeta gisa egin zen ezagun; haren azken liburua Espainiako Poesia Sari Nazionalako finalista euskalduna izan zen. Poesia ona egin zuen, eta aintzat hartzekoa da".

Igartuaren poesia Durangorako

Aurtengo edizioa berezia izango dela jakinarazi zuten antolatzaileek. Izan ere, Pamiela argitaletxeak Karmele Igartuaren poesia osoa argitaratuko du abenduan, Durangoko Liburu Azokarako; Aretxabaletako Udalak diruz lagunduko du argitalpen hori.

Portasol auzoaren gaineko iritzia jasoko du EH Bilduk

Auzo "bizigarriagoa" egiteko hainbat proposamen egin ditu eta bizilagunen ekarpenak jasoko ditu inkesta bidez

M.A. ARETXABAETA

Zazpi proposamen aurkeztu zituen EH Bilduk uztailan, Portasol "bizigarriago" egiteko helburuarekin. Orain, auzotarren iritzia jakin gura du, eta haien ekarpenak jaso. Inkesta bidez batuko dituzte: "Auzoaren inguruko iritzi orokorra, egin nahi diren ekarpen zehatzak eta guk egindako proposamenen inguruko iritzia jaso nahiko genuke. Auzoa eraberritzeko plan bat egiteko ezinbestekoa da hori".

EH Bilduren helburua da epe motzean egin daitezkeenak zerrrendatzea eta aurrera eramateko ahalegina egitea eta horiek baino epe luzeagokoak direnak diseinatu eta etorkizuneko plan-gintzetan txertatzen joatea.

Etxe guztietara

Etxe guztietan jasoko dute inkesta, eta erantzuteko hainbat



Etxeetan jasotako inkesta. EH BILDU

bide zabalduko dituzte: Whatsappez (688 82 65 81); ehbildu@aretxabaleta.eus helbidean elektronikoki; eta paperean, Herriko Plazan dagoen EHbilguneko postontzian sartuta. EH Bilduko kideek hori betetzera animatu dituzte auzotarrak.

Zirku tailerra eta ukenduen gaineko ikastaroa, urritik

Komiki eta marrazketa ikastaroa ere antolatu du Kultura Sailak eta hiruretarako izen-emate epea zabalik dago

M.A. ARETXABAETA

Urrian abian jarriko diren hiru ikastaro antolatu ditu Kultura Sailak eta bihurtik eman ahal izango da izena –zirku eskola debalde eta gainerakoak ordaindu egin beharko dira–.

Zirkuaren mundura gerturatu

Zirku eskolek jarraipena izango dute aurtengo ikasturtean ere. Biribil Zirku Eskolak izango du horren ardura, eta, urriaren 8an hasi eta abendura arte, hilabetean bi zapatutan elkartuko dira. Bi talde osatuko dituzte: lehenengoa 6 eta 13 urte arteko neska-mutikoekin 10:30etik 11:30era eta bigarrena 14 urtetik gorakoekin 11:30etik 12:30era.

Ikastaroaren helburua da zirkuaren mundura gerturatzea gaztetxoak, sormena, zirku-teknikak eta trebetasunak landuta.

Komikiak eta marrazketa

Manga komiki eta marrazketa teknikak jorratzeko saioak ere antolatu dituzte; urriaren 19tik abenduaren 14ra bitartean, eguztenetan izango dira, 18:00etatik 19:30era. 14 urtetik gorakoek zuzenduta dago eta 30 orduko ikastaroa izango da. Inaki Martiarena *Mattin* ibilbide luzeko marrazkilaria gidatuko ditu eskolak –euskaraz zein gaztelaniaz– eta haren aginduetara bi-lau orrialdeko komiki bat osatuko dute, eta oinarritzko kanon literarioa ezagutu.

Ukenduak zelan egin

Ukenduak egiteko ikastaroaren egunak ere zehaztu dituzte: urriaren 20an eta 27an eta azaroaren 3an, 10ean eta 17an. Arkupen izango dira, 19:00etan hasita, eta gehienez hamar lagunendako dute lekua.



Inma Miguel teknikaria, Ainhoa Cabero zinegotzia, Idazle Eskolako zuzendari Tere Irastortza eta Pako Aristi idazlea. KOLDO ZUBIA

ARETXABALETAKO SANMIGELAK 2022



Artisautza eta nekazaritza ekologikoa. AITOR AGIRIANO



Kantu afaria Iturrigorri pilotalekuan. AITOR AGIRIANO



Aretxabaleta Abesbatza Iturrigorri pilotalekuan. MIRARI ALTUBE



Doke txapelketan parte hartutakoak. MIRARI ALTUBE

Sanmigelek emandakoaz irakurketa positiboa

Ainhoa Cabero Aretxabaletako Kultura zinegotziak adierazi duenez, ohiko ekintzak berreskuratu dituzte, aldaketa batzuk izan dira, eguraldi iragarpen txarraren beldurra, baina, orokorrean, eskertuta daude ekintza guztiek izan duten harrerarekin

Imanol Beloki ARETXABALETA

Sanmigela joan den egubakoitzean hasi zituzten, Bergarako Erraldoien eta Kilikien Konparatsarekin, erraldoiekin eta buruhandiekin eta Bergarako gaiteroekin, eta, ondoren, klasiko bat: Kantu afaria, Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak girotuta. Aurten, baina, plazan egin beharrean Iturrigorri pilotalekuan egin da, euria egingo zuen aurreikuspenagatik.

Zapatuan, berriz, artisau eta ekoizleak Durana eta Mitarte kaleen artean izan ziren artisautza eta nekazaritza ekologikoan. Aurtengo edizioan 48 postu jarri dituzte, eta herritarrek askotariko produktua ikusi, dastatu eta erosteko aukera izan zuten. Aretxabaletako artisauak horietatik hamar inguru izan ziren postuetan.

Horretaz gain, ganaduaren zortzigarren feriarekin ere gozatu dute Arlutzeko kantxa ondora joan ziren herritarrek. Trikitilariak, joaldunek eta bertsolariak girotu zuten goiza eta taloa jateko aukera ere izan zen, Loramendi taldeko kideen eskutik.

Domekan, aldiz, doke txapelketa, herri kirolak, mus txapelketa eta Aretxabaleta Abesbatzaren kontzertua izan ziren. Aretxabaletako Udaletik irakurketa positiboa egiten dute sanmigelen gainean, eta herritarren jarrerarekin eta berta-

ratutakoan harrerarekin pozik agertu dira.

Balorazio positiboa

"Ekintza guztiak berreskuratu ditugu. Eguraldiak ez du guztiz lagundu, baina aurreikusitako gehiago errespetatu gaitu. Ekintza guztietan jende pila bat egon da, eta hori poztekoa da. Gainera, berritasunak ere izan ditugu: Loramendiko talo-txosna lekuz lekualdatu, arrakasta izan du. Kontrara, kantu-afaria ez da berdina izan frontoian egitea. Plazan Iturrigorri frontoian baino espazio gehiago dugu, eta jende gehiago etorri daiteke. Laburbilduz, oso eskertuta gauden jendearen harrerarekin", adierazi du Ainhoa Caberok, Aretxabaletako Udaleko Kultura zinegotziak.

ARETXABALETAKO UDALA ESKERTUTA AGERTU DA SAN MIGEL JAIEK EMANDAKOAREKIN



Aretxabaletako mendi bizikleta martxa batean partaideak ibilbidea hasi berri. GOIENA

Hiru ibilbide aukeran zapatuan egingo den bizikleta martxa

09:00etan emango diote hasiera probari, eta horren aurretik eman beharko dute izena interesdunek

I.B. ARETXABALETA

Bihar, zapatua, Aretxabaletako mendi bizikleta martxa egingo da. 09:00etan hasiko da, Herriko Plazatik, eta, parte-hartzaileek hiru ibilbide izango dituzte aukeran. Batetik, ibilbide motza: 30 kilometrokoa eta 1.200 metroko desnibeletakoa; bestetik, ibilbide ertaina: 40 kilometrokoa eta 1.500 metroko desnibeletakoa; eta, azkenik, ausartenentzat: 50 kilometroko ibilbide luzea eta 2.000 metroko desnibeletakoa.

Parte hartu nahi dutenek hamabost euro ordaindu beharko dituzte eta izen-ematea plazan

bertan egin ahal izango dute, 08:15etik 08:55era bitartean, proba hasi aurretik. Egongo diren sari nagusiez gain, kirol materiala ere zozketatuko dutela adierazi dute antolatzaileek.

Anoa-postuak

Ibilbide motza egingo duten partaideentzat anoa-postua egongo da 21. kilometroan eta ibilbide ertaina eta luzea egingo dutenentzat, berriz, 21. eta 33. kilometroetan. Antolakuntzak gaineratu duenez, ibilbideek aldaketak izan ditzakete eguraldiarengatik.

Astelehenean hasiko da Okila elkartearen taila ikastaroa

Aretxabaletako tailaginen Okila elkarteak kideek oinarrizko mailako taila ikastaroa antolatu dute, eta astelehenean emango diote hasiera ikasturte berrinari.

Urriaren 3an, astelehenean, hasiko dira saioak, eta ikastaroa astean hiru egunetan emango da –astelehena, martitza eta eguaztena–. Hiru egun horietan, 18:00etatik 20:00etara izango da ikastaroa, eta, guztira, 60 orduko iraupena izango du taila ikastaroak. Izena eman nahi duten interesdunek Aretxabaletako udaletxera edo kultura etxera deitu dezakete, edo Okila elkartearen –Murubide 5 atartearen– tailerretik pasatu.

OHARRAK

Lan eskaintza:

Hezkuntza errefortzurako monitorea behar du Gu Haziak Gara elkarteak. Interesdunek guhaziakgara@gmail.com-era idatzi edo 681 65 59 39 zenbakira deitu dezakete.

Asanblada irekia

Gaur, 18:00etan, asanblada irekia egingo dute udaletxe zaharrean Pikarraituz taldekoek.

Irakurketa kluba

Erdu feminista taldeak antolatuta, Ana Freixas idazlearen *Yo vieja* liburua urriaren 6an komentatuko dute, Arkupen, 18:30etik 20:00etara bitartean egingo duten afari-meriendan.



Eskoriatzako udalbatzako kideak iraileko osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

Zergak eta tasak izozteko proposamena, aho batez

EAJk 2023rako Ordenantza Fiskalen proposamena mahai gainean jarri zuen martitzenean, iraileko osoko bilkuran, eta, gainontzeko alderdien adostasuna izan arren, EH Bilduk kezka agertu zuen erabakiak eragin ditzakeen kostuen gainean

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Martitzenean iraileko osoko bilkura izan zuten Eskoriatzako udalbatzako kideek, eta gai-zerrendan azpimarratzeko puntu bat izan zuten: 2023rako Ordenantza Fiskalak. EAJk 2023rako udal tasak eta zergak izoztea proposatu zuen Ogasun Batzordean, eta proposamen bera eraman zuen osoko bilkuren aretoa, martitzenean. Eskoriatzako Elizateen Elkartekoak eta EH Bildukoak ados agertu ziren zergak eta tasak izoztearekin.

"Kontuan hartu behar da KPIaren igoera %10 ingurukoa dela. Gainera, familia eta pertsona asko sufritzen ari dira, eta, beraz, pentsatu dugu tasa eta zergak izoztea. Nahiz eta erabaki hori Eskoriatzako Udalaren finantzen kontra joan. Udalak igotzen ez duena ordaindu behar du berdin-berdin, eta esfortzu bat egin behar dugu ginkostu horrek herritarrei ez eragiteko", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozeramaileak.

Oposizioaren kezkak

Nestor Arana EH Bilduko bozeramaileak ados agertu zen proposamenarekin, baina zenbait kezka adierazi zituen. "Orain arte, dinamika bat jarraitu dugu; hau da, batzorde baten aurretik, proposamena bidali izan dugu, lanketa bat egin dugu... adostasun bat lortzeko. Oraingoan, zuzenean

joan da erabakia Ogasun Batzordea. Horrez gain, Udalari kostu bat ekarriko dio zergak eta tasak izozteak. Kalkulatu duzue zenbatekoa izan daitekeen?".

Horren harira, Ezkurdiak esan zuen batzordearen aurretik informazioa banatu arren ez dutela bilerarik egin, proposamena zehatza zelako. Bestetik, zergak eta tasak izozteak ekarriko duen kostuaren bueltan, datuak falta direla azpimarratu zuen. "Mankomunitateak kobratzen duen zabor zerbitzuaren tasa oraindik ez dakigu zenbat igoko den, adibidez. Hala ere, badakigu kiroldegiko kudeaketa kostua %20 igoko dela. Ez dugu prezioen igoerarik ezarri azken urteetan, gaur egun indarrean dugun kontratu publikoaren legeak horrela agintzen duelako, eta aurten %10eko KPIaren igoera izango dugu".

Inbertsioak hizpide

Horrez gain, zergak eta tasak izozteak herrian egin nahi diren inbertsioetan eragina izango ote duen ere galdetu zuen Nestor Aranak, eta honako hau erantzun zion Ezkurdiak: "Aurrekontua-

ORDENANTZA FISKALAK ONARTUTA, FORU FUNTSETIK JASOKO DUTEN KOPURUAREN ZAIN

ren proiektua egiten ari gara, eta urriaren erdi arte ez dugu jakingo Aldundiko Foru Funtsetik jasoko dugun dirua zenbatekoa izango den. Hala ere, aurrekusten dugu kostuak igo egingo direla, oro har. Hala ere, Udalaren diru sarrerak Foru Funtsetik bideratutakoak dira gehienak, eta ez zerga eta tasetatik. Gastu arruntak diru sarrerara arruntetatik finantzatu behar direla esan dugu beti, eta inbertsioak soberakinetik edo maileguren bitartez finantzatu behar direla. Zoritxarrez, oraindik ezin dugu askorik aurreratu, baina urte zaila izango dugu hurrengo".

Epe laburreko inbertsioak

Horren ildora, herrian egin nahi diren inbertsioak ez zituzten zehaztu, baina, horren bueltan galdetuta, honako hau adierazi zuen Ezkurdiak: "Datorren urtean, maiatzean hauteskundeak izango dira, eta inbertsioak egiteko prozesua zaildu egiten du horrek. Hala ere, gure asmoa inbertsio berriak egitea da. Skate parke berria egin nahi dugu; azken asteetan erabiltzaileekin egon gara, eta, beraiek esanda-koekin planteamendu tekniko bat jorratzen ari gara. Beste inbertsio bat osoko bilkuran egin dugun 30.000 euroko kreditu aldaketa batetik dator. Aranburuzabala kalean, bi zebra-bide berritzeko".

Animaliak babesteko ordenantza egiteko proiektua du Udalak

Zenbait bidetatik, urriaren 25era arteko epea dute herritarrek egoki irizitako ekarpenak egiteko

I.B. ESKORIATZA

Gaur egungo gizartearen garapen ekonomikoak eta horrek ingurumenean duen eraginak gizarte-kontzientzia handia sortu du ingurunea errespetatzeko eta, bereziki, gizakiarekin gertuen bizi diren animaliak errespetatzeko. Bizikidetzaren ororekin gertatzen den bezala, zentzuz bideratu behar dira animaliak gertu izateak dakartzen onurak desabantaila bihurtu ez daitezen. Arrazoi horientatik, Eskoriatzako Udalak udal ordenantza arautzailea egin nahi du, honako irizpide hauek abiapuntu gisa izanik: animaliak dituztenen eta ez dituztenen arteko bizikidetzaren heziketa eta sentsibilizazioa; higieena eta apaindura bermatzea Eskoriatzako; animaliak edukitzea eta haien zaintza arautzea; animalien eskubideak babestea eta defendatzea eta, animaliak abandonatu eta tratatu txarrak jasoz gero, haien premiei erantzutea; eta animaliak edukitzea eta bizikidetzaren arduratsua sustatzea.

Ordenantza, jendaurrean

Pertsonen eta animalien arteko bizikidetzaren hobea bultzatze al-

dera, ordenantzak animaliekiko sentsibilitatea eta errespetua areagotzeko helburua lortzen lagunduko luke, eta Eskoriatzako gizarte moderno eta justu baten berezko portaerak sustatuko dituen hezkuntzarako oinarriak ezarri. Hala ere, ordenantza idatzi eta onartu aurretik, ordenantza-proiektua jendaurrean jarriko da, interesdunek arrazoiak ezagutu eta egoki irizitako ekarpenak egin ditzaten.

Ekarpenak egiteko aukera

Proposatzen den araudi-proiektua Eskoriatzako udal webgunean aztertu daiteke xehetasunez, eta interesdunek 2022ko urriaren 25a arteko epea izango dute proiektuari ekarpenak egiteko. Horretarako, hainbat modu proposatzen ditu Udalak. Modu presentzialean egin daiteke, udaletxeko *H@zi* Herritarrentzako Arreta Zerbitzu Integrallean –astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 14:30era, online, edo udal webgunean–. Informazio gehiago behar duenak, bestalde, 943 71 45 32 telefono zenbakira deitu dezake edo *udaltzaina@eskoriatza.eus* helbide elektronikora idatzi.

GORA ETA BEHERA



Saihesbideko zubiko lanak, luze

"Lana burutzeko epea bi hilabetekoa izanda, bost hilabete daramatzate, eta egunotan sekulako aktibitatea dago. Normala da Aldundiko lan batean epeak ez betetzea? Garrantzirik gabeko herri txiki bat garelako da? Diru kopurua itxia da edo denboran luzatu den beste luzatuko da?", dio herritar batek.



Dorleta auzoko pasabidean egiten ari diren lanak, Huhezi fakultateko eraikina ezkerrean dela. IMANOL BELOKI

Dorleta eta Huhezi arteko pasabidea berritzen

Aurreikuspenen arabera, urri amaiera aldera bukatuta izango dira Dorleta auzoaren eta Huhezi fakultatearen arteko zubiko lanak. Donostiako Altuna Eta Uria enpresa ari da obra egiten, eta, bide batez, hango argiteria hobetzeko asmoa ere badute

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA 2019ko urtarrilean ekin zioten Dorleta auzoaren eta Huhezi Humanitate eta Hezkuntza Fakultatearen arteko lanei. Eremu horretan irisgarritasuna hobetzeko lanak bi fasetan egingo zituztela adierazita, orduan lehenengo faseko lanak egin zituzten; hain zuzen, espaloia jartzea Dorletako zubitik Aramburuzabala kaleraino. Bestetik, bigarren fasea egiteko, Ura uraren euskal agentziaren baimena ezinbestekoa zen, Dorletako zubiari hegoa jartzeko, eta, pandemia ere tarteko, bigarren fase horri orain ekin diote.

Irisgarritasun aldetik beharrezkoa izango den pasabide berria Huheziko campusaren ondoan eraikitzen ari dira, eta lanen helburua oinezkoen segurtasun handiagoa ematea da. Orain arte, Deba ibaia zeharkatzen duen zubia ibilgailuen zirkulazioko ia izan da, eta baita oinezkoentzat ere, nahiz eta zubira iristean espaloia desa-

gertu. Hala, lanak amaitzean, espaloia jarraipena emango zaio, eta oinezkoek ez dute asfalto zapaldu beharko. "Aurreko agintaldian espaloia egin zen, eta orain bigarren zutia zubi edo pasabide baten bitartez egitea eskatu genuen. Pandemia aurretik hasi ginen prozedurarekin, eta geratu egin behar izan genuen. Ukrainako gerra ere etorri zen, eta, orokorrean, prezioak izugarri igo ziren. Hori horrela, lizitazioa garestiago ateratu behar izan genuen, zoritxarrez. Hala ere, uztaile amaieran kontratua sinatu genuen, eta lanean ari dira", adierazi du Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Udaleko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak.

URRI AMAIERARAKO LANAK AMAITUTA IZATEA AURREIKUSTEN DU ESKORIATZAKO UDALAK

Obrak martxan dira

Obrak lizitatuta eta martxan, urri amaiera aldera amaituta izatea aurreikusten da. Aurrekontua 78.119 eurokoa da, BEZA barne, eta gauzatzeko epea zazpi astekoa da. Bi enpresa aurkeztu ziren lehiaketa publikora, eta Donostiako Altuna Eta Uria izan zen irabazlea, eta haiek ari dira lanekin. "Une honetan, ematen du lanak ez direla egiten ari. Kontua da jarriko duten zubia aurrefabrikatua dela eta zubia oso-osorik jarriko dutela. Zuloak egin dituzte alde bietan, neurriak ondo hartzeko eta nola lotu behar duten jakiteko. Bi edo hiru aste horrela egon ostean, zubia ekarri eta garabi handi batekin jarriko dute".

Argiztapena ere hobetuko dute Lan horiek egitearekin batera, eremu horretako argiztapen publikoan zehar hobekuntza egiteko ere aprobeztatuko dutela jakinarazi du Eskoriatzako Udalak.

Irakurzaileek urri amaieran hasiko dituzte solasaldiak

Hilero liburu bat irakurtzeko proposamena jaso, eta gero, aztergai izango dute mahai-inguru formatuan

I.B. ESKORIATZA

Ikasturte berriarekin batera, Eskoriatzako bibliotekak koordinatutako Literatura Solasaldiak bueltan dira. Mikel Antzaren gidaritzapean izango dira, beste urte batez, euskarazko liburuen literatura solasaldiak, eta gaztelarazko liburuen saioak, berriz, Monica Leivaren eskutik egingo dira. Lehenengo irakurketak zeintzuk diren adierazi dute, eta baita zein egunetan egingo dituzten solasaldiak ere.

Euskarazko lehenengo irakurketaren gaineko hausnarketa

Eider Rodriguez idazlearen aurreneko nobelarekin egingo da: *Eraikuntzarako materiala* izeneko lana. Urriaren 27an, 18:00etan batuko dira kultura etxean solasaldian parte hartu nahi dutenak, baina aurrez eman beharko dute izena, udal bibliotekaren.

Era berean, gaztelarazko lehenengo irakurketa Patrick Radden Keefe idazlearen *No digas nada* liburuarekin egingo da, Monika Leivak gidatuta. Urriaren 20an izango da, 18:00etan, kultura etxean.

Tortolis ludoteka ezagutzeko aukera izango da gaur

Eguaztenean hasi zituzten Tortolis ludotekako ate irekiak. Eguenean ere izan zituzten, eta gaur, egubakoitza, ere egingo dituzte.

3 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako aisialdi zerbitzua da ludoteka, eta hainbat helbururen artean daude haurren parte hartzea, euskararen sustapena, sormena eta bi ikaste-

txeetako haurren arteko harremanak lantzea sustatzen. Hori horrela, haurrez gain, gurasoek ere lokala, bertan dituzten joko eta jolasak... ezagutzeko aukera izango dute. 17:00etatik 18:00etara HHkoentzat zabalduko dituzte ateak; eta LHkoentzat, 18:00etatik 19:00etara. Datorren astetik aurrera eta urrira begira, berriz, ekintza ugari antolatuko dituztela ere adierazi dute, haurrek ondo pasatzeko: *slime* tailerra, karaokea, trebetasun jolasak, Gaba Baltzari lotutako tailerrak...

GORA ETA BEHERA



Osasun zentzoko apalategia berri egin dute

Udal bibliotekako arduradunek osasun zentzoko pediatriako itxarongelan liburu berriak jarri dituzte. Euskarazkoak eta gaztelarazkoak dira, eta haurrak ondoezik daudenean kontsultara sartu aurretik entretenitzeko helburua du ekimenak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Erretiratuak omentzeko hitzordua domekan

Eskoriatzako Udalak antolatuta, Olazar Erretiratuen Elkarteko 150 lagun batuko dira, aurten, lehenengoz, Manuel Muñoz kiroldegian bazkaltzeko. Opariak banatuko dituzte erretiratuen artean eta herriko nagusienek oroigarriak jasoko dituzte, urtero moduan

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Domekan, urriaren 2an, 65 urtetik gorako jubilatuek omenaldia jasoko dute Eskoriatzako Udalaren partetik. Ohiko ohiturari eutsiz, San Pedro parrokian egingo den mezara joango dira herriko nagusiak, eta, ondoren, salda beroa izango da jubilatuen tabernara joaten den pertsona ororentzat. Gero, bazkaria izango dute Manuel Muñoz kiroldegian, eta, urtero moduan, opari banaketa egingo dute. Amaitzeko, musika jarri eta dantzarako tartea hartuko dute.

150 lagun bazkaltzeko

"Aurten, lehenengoz egingo dugu jubilatuen omenaldiko bazkaria Manuel Muñoz kiroldegian. Normalean, Joseba Iñurrategi pilotalekuan egin izan dugu, baina aurten, lekualdatzea erabaki dute antolatzaileek. Leku aldaketa egin arren, guztira, 150 lagun batuko gara bazkaltzeko. Menu itxia da jarriko digutena, eta bapo jango dugula aurreikusten dugu. Gero, bertan banatuko ditugu opariak erretiratuen artean, eta horiek Eskoriatzako komertzioek eta Olazar Erretiratuen Elkarteak eskainitakoak izango dira. Beste behin, ez dute hutsik egingo Eskoriatzako udal ordezkariak herriko



Jubilatuei egindako omenaldi bat. ESKORIATZAKO UDALA

nagusienei eskainitako oroigarriak", adierazi du Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak.

Nagusienen erreleboa

Azken urteetan, egun horretan omendu izan dituzten Eskoriatzako erretiratu nagusienak Elena San Vicente eta Pablo Gamboa izan dira. Hala ere, Olazar Erretiratuen Elkarteak adierazi dutenez, aurten, San Vicente ez da bazkarira joango. Gamboa, berriz, 2021eko abuztuaren 25ean hil zen, 103 urte zituela; beraz, bazkarira joango

diren gainontzeko pertsonen artean, emakume nagusienak eta gizonezko nagusienak jasoko dituzte oroigarriak; batek lore-sorta eta besteak, txapela.

Manifestuaren irakurketa

Urriaren lehen Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna izanda, urriaren 2ko hitzorduan bazkalostea aprobetxatuko dute Olazar Erretiratuen Elkarteak manifestu bat irakurtzeko. "Agijupens Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak atera duen manifestu bera irakurriko dugu".



Aitor Larrañaga bisita eskaintzen. GATZAGAKO GATZ MUSEOA

Garai onenean sartuta, bisitariak agenda betetzen

Oporraldiko balorazio onarekin, ikastetxeetatik eta jubilatuen elkarteetatik hasi dira hitzorduak hartzen

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagan, Gatz Museoko ohiko bisita gidatua ez da bertan duten eskaintza bakarra. Guztira, bost eskaintza dituzte: museo bera ezagutzea eta bertan egiten duten gatzaren prozesua azaltzea, Hiruerreketako ibilbidea, Vasco-Navarro trenbideko ibilaldia, herriguneko bisita eta Jakion ezagutzeko bisita; eta horien artean egin daitezkeen konbinazio guztiak.

Udako oporraldia ondo joan dela adierazi du Aitor Larrañagak, Gatzagako Gatz Museoko arduradunak, eta pozik agertu da izan duten harrerarekin: "Udan jende asko izan dugu Gatzagan. EAE-tik, Kataluniatik, Madrildik izan ditugu bisitariak, batez ere. Hala ere, frantsesak eta ingelesak ere etorri zaizkigu bisitetara. Ohiko lurraldeetako bisitariak dira, baina oso pozik gaude harrerarekin".

Bisita gidatuak asteburuetan egingo dituzte, ohiko egun eta ordutegia jarraituz; hau da, zapatu, domeka eta jaiegunetan, 12:00etan euskarazko bisita izango da eta 13:00etan, gaztelarazkoa. Horrez gain, hamar lagunetik gorako taldeak badira eta hitzordua hartzen badute, aste barruan ere joateko aukera dute.

Haurrak eta nagusiak

Ikastetxeak ere martxan hasi dira, eta, beraz, hasi dira museoko bisitetarako hitzorduak hartzen. "Iraila eta urria data onak dira, familia asko etortzen dira, kintadak... Ikastetxeetako dagokienez, debagoiendarrak etorri zaizkigu, oraingoz, baina Gipuzkoako beste ikastetxe batzuen deiak ere jaso ditugu. Horrekin batera, Erretiratuen Elkarteak ere hasi dira deitzen bisita eskean".

Modako ikastaroa

Zubiaten egiten den Buztinate buztzingintza eta zeramikako ikastaroak markak hautsiz hasi du ikasturtea. Izan ere, espazio gabe ari dira geratzen, izen-emate kopuru handiaren ondorioz. Eguaztenetan izaten dituzte saioak, eta helduentzat zuzendutako arratsaldeko saioa bete egin da. Haurrak, berriz, urriaren hasiko dira saioekin.



OLATZ PAGALDAY

Azoketan saltzen

Leintz Gatzagako gatzak oihartzuna izateko eta, bide batez, produktutakoa jende gehiagorengana iristeko asmoz, azoketara joaten dira Gatz Museokoak. Hori horrela, *urre zuria* postuetan jarrita, produktu preziatua ezagutzera ematen herri hauetan izan dira: Arrieta (Bizkaia), Goiatz (Gipuzkoa) eta Aretxabaleta, San Migel jaietan.



GATZ MUSEOA

Elikaduraz hausnartzeko jardunaldiak urrian

'Zure platerean hasten da mundua' egitasmoaren baitan bost jardunaldi antolatu dituzte Bergarako Elikadura Mahaia eta beste zenbait eragilek; halaber, azarotik otsailera bitartean askotariko taldeei zuzendutako jarduerak prestatuko dituzte

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Elikadura katea osoan eragiteko asmoz, Bergarako Elikadura Mahaia jarri zuten martxan duela urtebete, eta, orain, *Zure platerean hasten da mundua* jardunaldiak antolatu dituzte Elikadura Mahaia osatzen duten kideek –Begarako Udala, Deba Garaia Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartea, Ereindajan, Eskubaratz eta herriko nutrizionistak, Ehunduren gidaritzapean–, Landalan elkarteak, Biolur elkarteak eta EHKOLEktiboarekin elkarlanean. Agroekologiaren eta elikaduraren inguruko hitzaldi horiek urrian izango dira, eta herritarren parte-hartzea dute oinarrian.



Elikadura Mahaiko, Landarlaneko eta Biolur elkarteko kideak aurkezpenean. B.U.

Ekoizpen ereduak abiapuntu

Joan den martitzenean egin zuten aurkezpen ekitaldia, Oxirondo azokan. Jardunaldien helburua da herritarrei elikagaien kontsumo kontzientziaz baterako foro eta baliabideak eskaintzea, antolatzaileek diotenez, "elikaduraren bueltan egunero hartzen diren erabakiek eragin zuzena dutelako ingurunean, osasunean, gizartearenean zein munduarenean". Saiotetan ekoizpen ereduak sakonduko dute, eta ekologikoari, bertakoari, pertsonen neurrikoari zein ekonomia sozial eta solidarioari balioa emanda.

Bost eguneko egitaraua

Guztira, formatu askotariko bost hitzaldi antolatu dituzte, eta guztiak urrian izango dira. Aurrenkoa urriaren 6rako dago deituta, eta *Duina* izeneko proiektuaren emaitzen aurkezpena egingo dute Biolur elkarteko kideek eta herriko ekoizleek, Irizar jauregian, 18:30ean. Aurreratu dutenez, "sektorean eta herritarrengan duten inplikazio sozioekonomikoagatik garrantzitsuak diren ondorioak partekatuko dira".

ELIKADURAKO ETA AGROEKOLOGIAKO SAIOEK HERRITARREN PARTE-HARTZEA DUTE OINARRI

Urriaren 19an, Seminarixoan, zineklubaren barruan, Landarlan Ingurumen elkarteak eta ON Produzioak-ek duela gutxi aurkeztu duten *Zure platerean hasten da mundua* dokumentala pantailaratuko da. Gainera, ikus-entzunezkoan parte hartu dutenak han izango dira, bertaraten direnekin berba egiteko. Hilaren 22an, berriz, goizean zehar, agroekologiaren inguruko informazio-puntua ezarriko da Oxirondo azokan, egitasmoan jorratuko duten gaia herritarrengana heltzeko.

Hurrengo jardunaldia urriaren 26an egingo dute. Oxirondoko eguaztenetako azoka baliatuko dute *Nolakoa izango da etorkizuneko elikadura?* galderaren inguruan dastaketa-solasaldia antolatuko. Aurkezpenean adierazi dutenez: "Bertako produktuak dastatuz zentzumen guztiak

martxan jarriko ditugu eta jateko hautatzen dugun horrek eragiten duen aztarnaren inguruan jardungo dugu". Kontsumo zein ekoizpen-ereduak aztertuko dituzte, baita etorkizun iraunkor baterako alternatiba moduan agroekologiak eskaintzen dituen aukerez hausnartu ere.

Jardunaldiak urriaren 29an amaituko dira, goizeko hamarretan Antzuolako Pikunieta baserrira egingo den irteerarekin. Ate-ireki formatuko bisitan hartu ahalko da parte, eta bertatik bertara baserritarren jarduna ezagutu nahiz euren produktuak dastatzeko aukera egongo da. Ekintza honetarako beharrezkoa da izena ematea, 635 20 21 46 telefonora deituta.

Azarotik aurrera jarraipena

Antolatzaileek baieztatu dute azaroan hasi eta otsailera bitartean ere askotariko taldeei zuzendutako jarduerak antolatuko dituztela; hala nola LH4ko ikasleei zuzendutako *Mila kolore, mila zapora* ekimena eta bi berrietasun: *Bertako eta sasoiko platerak* ekimena eta *Ikasbidaiako saskiak, bertatik bertara* kanpaina.



UNEDeko eta Bergarako udaleko ordezkariak Alkar Lankidetzaz Gunean. B.U.

Ekintzaileentzako lan-espazio berria, zabalik urritik aurrera

Debagoienean erroldatutako ekintzaileek erabili ahal izango dute UNEDeko Alkar Lankidetzaz Gunea

I.A.A. BERGARA

Urriaren 3tik aurrera eman ahal izango dute Alkar Lankidetzaz Gunea erabiltzeko izena Bergaran edo Debagoienean erroldatutako ekintzaileek, Bergararren Arreta Zerbitzuan eskaera aurkeztuta. UNEDekin egindako hitzarmenari esker, UNEDeko gela bat prest jarri du Udalak. Erabiltzaileek indarrean dauden prezio publikoak ordaindu beharko dituzte, eta ordutegia egoitzak duena izango da.

Espazio honen helburua da bailarako ekintzaileei lanerako espazio partekatua eskaintzea;

lankidetzako ekonomia ereduaren oinarrituta, hala nola sinergiak lortu, elkarrekin ikasi, harremanak sustatu eta proiektuak nahiz ezagutzak partekatuko.

Udalak adierazi duenez, lan egiteko moduak eta lanbideak ere aldatzen doaz, eta, askotan, pertsona horiek euren lana garatzeko espazio faltan egoten dira. Hori dela eta, egin sortu dute espazioa: "Lanerako eta elkarlanerako espazioa izango da; izan ere, lanerako plazarekin batera, partekatuko diren espazio eta zerbitzuak ere egongo dira erabiltzaileen eskura".

OHARRAK

Ortu komunitarioen zozketa

Lursailak esleitzeko zozketa urriaren 5ean 11:00etan egingo da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Behin-behinean, 75 eskaera onartu dira, eta 96 lursail aterako dira zozketara. Libre geratzen direnak epe kanpo eskaera egin duten pertsonen esleitzeko zaizkie, eskaeren hurrenkera errespetatuz; betiere, baldintzak betetzen badituzte.

Gorlako Kantina ustiatzeko deialdia

Interesatuak urriaren 13ra arte aurkeztu dezakete eskaintza, BAZeko bulegoan dokumentazioa aurkeztuta. Lizitazioari eta zerbitzuari dagozkion arau ekonomiko administratiboak Udalaren webgunean daude ikusgai. Zerbitzuari zein lizitazioen inguruko zalantzak argitzeko, idatzi kontratazioa@bergara.eus webgunera edo deitu 943 77 91 38 telefonora.

Begarako Orfeoiaren logo lehiaketa

Sorreraren mendeurrena ospatzeko, Bergarako Orfeoiak lehiaketa antolatu du elkartearen irudi korporatibo berria izango den logoa aukeratzeko. Proposamenak azaroaren 1era arte aurkeztu daitezke, eta irabazleak 500 euro eskuratuko ditu. Oinarriak jakiteko, idatzi bergarakoorfeoiarlogoa@gmail.com-era.



Herritarrekin eta kultura eragileekin egindako lehen batzarra, eguaztenean, Arrizuriagan zer egin erabakitzeko. GOIENA

Hasi dira Arrizuriagaren etorkizuna eraikitzen

Eguaztenean egin zuen Udalak partaidetza prozesuaren lehen bilera irekia herritarrekin eta kultura eragileekin; helburua, Arrizuriagan egin daitezkeen jardura proposamenak eta kultur eragile modura garatzeko interesgarriak izan daitezkeen erabilerak jasotzea

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Maiatzean hasi zituzten Arrizuriaga jauregia egonkortzeko lanak, eta, aurreikuspenen arabera, datozen asteetan amaituko dira. Obren amaieraren atarian, eguaztenean egin zuten *Arrizuriagaren etorkizuna eraikitzen* partaidetza prozesuaren lehen bilera irekia, herritarren eta kultur eragileen proposamenak jasotzeko: alde batetik, espazioen kudeaketa-ereduari buruzkoak, eta, bestetik, kultur eragile gisa garatzeko interesgarriak diren erabilerak.

Era guztietako kultura jardueren egoitza izateaz gain, emakumeentzako gunea ere izango du jauregiak. Udalak adierazi duenez, herriko emakumeekin eta emakume taldeekin batera adostuko dira espazio horren helburuak, zereginak eta dinamika, besteak beste.

Partaidetza prozesua hasi baino lehen, uztailaren 12an elkartu zen Udal Gobernuak kultura eragileekin. Eguaztenean bileran

landu ziren ekarpenak eta zailtasunak jaso zituzten orduan udal ordezkariak. Gainera, bilera hartan parte hartu zutenek jauregiko obrak ikusi ahal izan zituzten barrutik.

Udal Gobernuak aditzera eman duenez, partaidetza prozesuan zehar emango zaie bilera irekietako informazioa herritarrei.

EAJren proposamena

Coworking-gune bihurtu nahi dute jeltzaleek Arrizuriaga jauregia. Maiatzean etxez etxe banatu zuten eskuorrian zioten proiektu berritzaile baten kokalekua izan behar zuela Arrizuriagak: "*Coworking*-a lanpostuek, bilera gelek, atsedentzek, tailerrek eta kafetegiak osatzen

**KULTUR JARDUEREN
EGOITZA IZATEAZ
GAIN, EMAKUMEEN
TXOKOA IZATEA
AURREIKUSTEN DUTE**

dute, baina, batez ere, *coworker*-ek; alegia, pertsonak. Arrizuriaga ezin da soilik lanerako espazio bat izan, askoz gehiago izan behar du".

Egin beharreko lanak

Goitu Eraikuntzak SL enpresari esleitu zitzaizkion lanak, 547.964 eurotan -BEZa barne-. Eusko Jaurlaritzaren ondare izendapena daukanez jauregiak, baldintza batzuk bete behar ditu eraberritzeak; adibidez, kanpoko itxura mantentzea. Horregatik, fatxadari dagokionez, finkatze, konpontze eta garbitze lanak egiteaz aparte, egoera txarrean dauden arotzeriak eta hondatutako beirak ordezkatzeko dituzte. Barrualdean, egoera txarrean dauden zeramikazko trasdosatuak eraitsi egingo dituzte, eta euskarri ez diren banaketa guztiak nahiz zoladura arinak kendu egingo dira solairu guztietan. Hala, solairu bakoitzean espazio huts bana sortuko dute.

Onartuta azokaren eraikinean lanak egiteko kreditu aldaketa

Bestalde, udalbatzak aho batez onartu du herriko enpresak euskalduntzeko sinatu nahi duten hitzarmena

I.A.A. BERGARA

Astelehenean egin zuten iraileko osoko bilkura Bergaran, eta kontrako botorik gabeko saioa izan zen. Bi puntu azpimarragarri landu zituzten, besteak beste: azokarako kreditu aldaketa eta lan esparruan euskara sustatzeko Harixa programaren baitako hitzarmena. Horiez gain, Aranerreak auzoko mendi lursail bat erostea eta OlatuKoop elkar-tearekin duen hitzarmenean aldaketak egitea onartu zuen udalbatzak. Beste puntuetako bat izan zen Kikioren busto bat eta haren hainbat txirula dohaintzan onartzea.

Udal Gobernuak nabarmendu egin zuen kontrako botorik gabeko bilkura izan zela. EH Bilduko bozeramaile Nagore Iñurategiak hauxe esan zuen: "Gure plan estrategikoan jasota genituen proiektuak dira, eta orain gabiltza fruituak jasotzen. Oso positiboa da. Ez da bakarrik zer egiten dugun, baizik eta nola egiten dugun".

Kreditu aldaketa

Bergarako azoka biziberritzeko planaren bueltan, kreditu aldaketa bat onartu zuten azokaren eraikinean egingo diren lanak burutzeko. Kreditu aldaketarekin eta obra horientzako diru kantitatea gehitzearekin ados egon arren, EAJ eta PSE-EE abstenitu egin ziren, prozedurari buruzko kezka dela eta. Alderdi jeltzaleak dioenez, azokaren kudeaketaren inguruan

oraindik ez da lanketarik egin, eta eurak horretarako prest daude: "Baldintzak ez daude ez idatzita ezta zehaztuta ere, eta horregatik gaude arduratuta".

Hala ere, EH Bilduko Ainhoa Letek baieztatu zien obra hori lanketa zabalago baten barruko urrats bat gehiago dela, haren ibilbidea duen egitasmoa dela eta parte hartzeko aukera badutela.

Euskara enpresetan sustatzen

Halaber, udalbatzak aho batez onartu zuen lan esparruan euskara sustatzeko Harixa egitasmoaren baitan herriko enpresekin urriaren amaieran sinatu nahi duten hitzarmena. Gai hori lantzeko mahaia sortu zen, eta egin duten lana nabarmendu zuen Ekaitz Aranberri zinegotziak; esan zuen euren lanik gabe kostata aterako zela aurrera hitzarmena.

Dagoeneko hogeita hamar enpresa inguruk agertu dute interesa lan esparrua euskalduntzeko egindako hitzarmenarekiko, eta oraindik programarekin bat egiteko aukera daukate enpresek. Horren harira, azken 30-40 urteetan administrazioek egindako lanaren ondoren, euskara kalera eramateko garaia duela adierazi zuten sozialistek: "Egia da enpresa munduan, gehienbat, gaztelania erabiltzen dela, eta ohitura hori badagoela hemen Debagoienean ere, eta uste dugu euskara sustatzeko hitzarmen berriak etor daitezkeela".

Gaur eta bihar ospatuko dituzte Espoloiko jaiak

Espoloitxoren jaitzietarekin emango diete hasiera festei gaur, 19:00etan. Ondoren, pintxo lehia-keta egingo dute, eta 22:00etan, Gordon Calling-ek kontzertua emango du. Zapatuan, Espoloitxoren II. jaitziera, umeentzako jolasak, auzo-bazkaria, nagusien jolasak eta karro-poteoa egingo dituzte. Zapatu gaua girotzeaz DJ USB arduratuko da.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluak salmenta

• Besuak, mahaiak, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Jokin Bereziartua BERGARA

Berezia izango da hasi berri den 2022-2023ko ikasturtea Ipintza institutuan. Duela 50 urte, 1972ko irailean, hasi zuen ibilbidea Bergarako eskola publikoak, eta, 50 urtez lanean, denok batera aurrera bidean leloa oinarri hartuta, gertu daude mende erdia bete dutela ospatzeko. Ikasle kopuruari dagokionez, 50 urteotan 450 ikasleren bueltan ibili da batez besteko kopurua. 1974-1975eko ikasturtean izan ziren ikasle gutxienez 250 inguru eta 1998-1999ko ikasturtean izan ziren ikasle gehien ia 600 ikasle.

Hazia herriaren nahia izan zen

Ipintzaren sorrera ulertzeko ezinbestekoa da Promocion Cultural Vergaresa elkarte aipatzea. Elkarre horrek Bergarako hezkuntza eta kultura arloetako beharrei erantzutea zuen helburu. 1967an, hamazazpi pertsonak osaturiko taldea sortu zen, eta orduan idatzitako estatutuak onartu zituen orduko gobernu zibil frankistak. Horrela eratu zen lehen zuzendaritza batzordea: Jose Antonio Zabala presidentea, Jose M. Sañudo presidenteordeak, Josu Oregi idazkariak, Jose M. Gallastegi diruzainak eta beste hamabi batzordekidek osatu zuten lehen batzorde hura. Promocion Cultural Vergaresa elkartearen hainbat azpiatzorde zuden, eta horietako bat hezkuntzako zen. 1970an, Hezkuntza Orokorraren Legea ezarri zela baliatuta, batzordearen zeregin garrantzitsuenetako bat izan zen Bergararentzat hezkuntzako institutu publiko bat lortzea. Horretarako, ikerketa bat egin zen herriko hezkuntza-egoera zein zen ezagutzeko. Maria Lagundiko eta Domingotarren ikasleen artean galdeketa egin ziren, jakiteko zenbat familia zeuden prest euren seme-alabak herrian irekitzekoa zen batxilergo institutura bideratzeko.

Bada, galdeketen emaitzak garbi adierazi zuen ikastetxe berriaren alde zegoela herria. Orduko alkate Luis Laskurain Ugalde frankismoko azken alkatea jakitun zen herriaren nahiaz eta horrela hasi ziren ikastetxea eraiki ahal izateko tramiteak; bertan herriko gazteek ikasi ahal izango zituzten batxilergoko ikasketak eta horrela lortuko zuten prestakuntza gero maila goreneko ikasketak burutu ahal izateko.



Ipintzako lehen irakasle taldea, 1974an; tartean, Imanol Irigarai abadea –eskuinean, zutik–. ITURRIA: IPINTZA

50 urtez erronka berriei eusten

1972ko irailean abiatu zen Ipintzaren ibilbidea, 'Instituto Nacional de Enseñanzas Medias de Vergara' izenarekin; 50. urteurrena ospatzen hasteko, argazki zaharrez jositako erakusketa irekiko dute gaur Aroztegi aretoan, urriaren 23ra arte

Eskumen aldaketa Jaurlaritzara
1970eko Hezkuntzaren Lege Orokorraren ezarpen mailakatuaren (OHO/EGB, BBB/BUP, UBI, COU) ondorioz, 1978-1979ko ikasturtera arte ez zen Ipintza erabat martxan jarri ikasturte hartan matrikulatu ziren ia 500 ikaslerentzat. Aldaketa esanguratsuenak, baina, 1979ko urrian EAEko estatutua onartu eta horri esker hezkuntza eskumenak Jaurlaritzak jaso ostean etorri ziren. Izan ere, 1980ko hamarkadan inbertsio handiak egin zituen Jaurlaritzak Ipintzan. Hobekuntza aipagarrien ar-

"EZJAKINTASUN HANDIAREKIN ETORRI GINEN, IA DENA ZEN BERRIA GURETZAT"

BEGO MUJIKIA, IKASLEA 1972-1973AN

tean, honako hauek daude: ikasgela gehiago egitea; areto bat eraikitzea beharrezkoak ziren hainbat ekintza burutzeko, adibidez, antzerkia, zinema emanaldiak, hitzaldiak, jaialdiak eta kontzertuak; mintegi didaktikoak antolatzea irakasleriari begira; irakasle-gela berria egitea, zabalagoa, hobeto kokatua eta hobeto hornitua; teknologia eta ikus-entzunezko gelak zabaltzea; eta liburutegi berria egitea.

LOGSE: aldaketak antolaketan
1990eko hamarkada Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoari LOGSE moduan ezaguna izan zena lotua dago. Lege horrek aldaketa handiak ekarri zituen Ipintzaren antolaketara. Batetik, ikasleen banaketa ekarri zuen, adin-taldee zein eraikinari dagokienez. Hau da, DBHko ikasleak

eraikin baten kokatu zituzten lau ikasturtetarako, eta batxilergoko ikasleek bi ikasturteak beste eraikinean egiten hasi ziren. Bestetik, 12 urtetik gorako Antzuolako eta Elgetako ikasleak ere orduan hasi ziren Ipintzara etortzen. Horrez gain, hezkuntza premia bereziak zituzten ikasle guztiak ere Ipintzara bideratzen hasi ziren, eta horretarako irakasle espezializatuak zituzten ikasgela bereziak sortuko ziren –gaur egun ZIG gela dena–. LOGSEren ondorioz etorri zen beste aldaketa bat izan zen, besteak beste, ireki berri

"HUTSUNEAK EGON ARREN, SAIATU GARA AHALIK ETA ARGAZKI GEHIEN BATZEN"

AGURTZANE ARRIOLA, IAZ ERRETIRATU ZEN

zen Miguel Altuna Lanbide Heziketako ikasgelak Ipintza integratu zirela; horrek aldaketak ekarri zituen irakaslerian, asko Migel Altunatik etorri zirelako; eta ordutegietan ere aldaketak izan ziren askotariko etapa eta adinak bateratu ahal izateko.

Lege berriaren bidegurutzea

1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak "beharrezko arau-esparrua" eman badie ere, azken urteotan hezkuntza arloan izan diren "aldaketa sakonek" ikuspegia "eguneratzea eta berritzea" eskatzen dutela uste dute. Eta, horregatik, gertutik jarraitzen ari dira hezkuntza lege berria: "Legebiltzarrean gehiengo oso handiz onartu berri den akordioak mende honetarako gure hezkuntza sistemaren oinarria izan beharko du. Espero dugu haren garapenean itxaropen guztiak beteko dituela".

Etorkizunerako erronkak

Atzera begiratzeaz harago, baina, etorkizunerako erronkei begira dago Ipintzako zuzendaritza. Diotenez, "dinamikoagoa" den ikastetxea izatea ahalbidetzen duten azpiegiturak lortzea eta elkarbizitza errazten duten egiturak eta tresnak ezartzea da erronka nagusietako bat, ikastetxeko giroa eta bizikidetzaren etengabe hobetzea helburu. Era berean, digitalizatorako erronkarekin ere buru-belarri dabil: "Teknologia berrien erabilera sustatu eta garatu nahi dugu, bereziki hitzezko, ez-hitzezko eta komunikazio digitalean lan egiteko". Eta, erronka orokorrago bati begira, Debagoiena 2030 ekimeneko esparruetan jardutea da Ipintzaren iparrorratza; bereziki, euskararen, inklusioaren, hezkidetzaren, jasangarritasunaren, mugikortasunaren eta ingurumenaren arloetan.

Erakusketarako arakatze-lana

Ipintzako historia gehiago jakin nahi duenak aukera ederra izango du horretarako gaurtik urriaren 23ra Aroztegi aretoan zabalik egongo da erakusketa. Hain zuzen ere, 1972-1973ko ikasturteko lehen promozioko ikasle-tako bat izan zen Bego Mujika aritu da erakusketara begira buru-belarri lanean. "Ezjakintasun handiarekin etorri ginen. Mariaren Lagunditik gentozen eta dena berria zen guretzat, ikaskideak izan ezik: ikastetxea



Ipintzako hainbat ikasle eta irakasle, 2021eko urrian ateratako argazkian. KARRIAGA



Gela egonkorra, 2013ko abenduan; bailarako bakarra da Ipintzako. ITURRIA: IPINTZA

bera, irakasleak... Hori bai, jarraitu genuen neskek alde bateatik eta mutilak bestetik". Erakusketara begirako lanetan ondoan izan du Bego Mujikak Agurtzane Arriola, iaz erretiratu zen Ipintzako langilea. Erakusketan, informazio panelez gain, argazkiak dira protagonista. "Argazki zaharretarako oinarria Angiozarko abade Imanol Irigaraik utzitako fondoa izan da, argazki bilduma oso zabala zuen eta. Gerora, garrantzitsua izan da Udal Artxiboko arduranak [Arantzazu Oregi] eskaini digun laguntza; laguntza hori

"HARREMAN BEREZIA SORTZEN DA BEHAR BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEKIN"

JESUS LOPEZ, IRAKASLEA GAUR EGUN

eskertu nahiko genioke. Hortik aurrera, bereziki, irakasle eta ikasle ohien eskutik, poliki-poliki joan gara 50 urteotan Ipintzatik pasatutako ikasle, irakasle eta gainerako ikasleen argazkiak batzen. Izan ere, hainbat urtetan hutsuneak zeuden, baina saiatu gara ahalik eta argazki gehien batzen". Gainera, Miguel Angel Alvarezek eta Xabier Larrañagak historia laburbiltzeko egindako lana eskertu dute.

"Pluraltasuna" da oinarria

Egun handia izango da gaurkoa, DBHko hirugarren mailako curriculum-dibertsifikazioko tutore Jesus Lopezek arabera: "Bazkarian elkartuko gara gaur, eta, zorionez, etortzekoak dira erretiratu dauden irakasleak eta langileak; oso harreman ona mantentzen dugu, eta ziur ederto pasatuko dugula aspal-

diko kontuak gogoratzen". Behar bereziak dituzten ikasleekin esperientzia oso aberasgarria dela dio Lopezek: "Harreman berezia sortzen da. Duela hamar bat urte Ipintza utzi zuten ikasleek harremana mantendu egiten dugu, eta pozgarria da ikustea bideratuta daudela. Akademikoki oso ona ez izateak ez du esan nahi pertsona ezin hobekoak izango ez direnik".

Bestalde, Ipintzan dago bailara mailako gela egonkorra. "Autismoa, asaldura edo nahasmen garrantzitsuak dituzten ikasleak hartzen dituen da gela egonkorra. Helburu nagusia da ahalik eta autonomoen bihurtzen laguntzea. Gela egonkorra eta ZIG gela izatea luxua da, elkarbizitzarako eta inklusiorako bide berriak zabaltzen dizkigulako", dio gela egonkorreko tutore Ana Azpirozek. Gainera, hitz baten definitu du Azpirozek Ipintza: "Plurala da, zentzu askotan. Pluraltasun funtzionala, kulturala, sexuala eta belaunaldien arteko pluraltasuna dugu, eta horri balioa eman beharko genioke". Erakusketa gaurtik urriaren 23ra egongo da zabalik, martitzenetik domekara.

"ZENTZU ASKOTAN DA PLURALA IPINTZA, ETA BALIOA EMAN BEHARKO GENIOKE"

ANA AZPIROZ, IRAKASLEA GAUR EGUN



Obrak, 1974an. ITURRIA: IPINTZA



Igerileku zaharra eta Ipintzako eraikina, 1978an. ITURRIA: IPINTZA



Obra gehiago, 1982an. ITURRIA: IPINTZA



Ipintzako eraikinen egoera, gaur egun. ITURRIA: IPINTZA

Lehen proiektua: 15.543.193 pezeta

Herrian egindako inkestek argi utzi zuten institutu publikoa egiteko beharra zegoela, eta lehen eginbeharra lursaila lortzea izan zen. Agorrosin-Ipintza zona aukeratu zuten; 1968ko otsailaren 10eko notario-aktaren arabera, erositako lurren balioa 5.488.500 pezetakoa izan zen. Jabeen artean zeuden Muro-Balzola fundazioa, Javier Unceta eta beste hainbat jabe txiki. Francisco Bernabek proiektua egin eta Oñatiko Construcciones Ugarte enpresa arduratu zen hurrengo hiru urteetan zehar lanak gauzatzeaz. Hala, 1972ko irailean abiatu zen ikastetxea, *Instituto Nacional de Enseñanzas Medias de Vergara* izenarekin. Hasiera baten eraiki zen azalera 3.197 metro koadrokoa izan zen, horietatik 2.156 metro koadro erabilgarri. Proiektuaren aurrekontu osoa 15.543.193 pezetakoa izan zen.

Mailaz igo berri den Munttarpe, lehenengoa

Soraluce BKEk bihar, zapatua, jokatu du ligako lehenengo jardunaldia, 18:00etan, Labegaraletan. "Sentsazio onak utzi dizkigu denboraldiaurreak, lagunartekoetan ondo ibili gara, baina orain dator garrantzitsuena", dio Joseba Elortza entrenatzaileak

Xabier Urzelai BERGARA

Hilabetez lanean jardun eta gero, bihar, zapatua, izango du Bergarako gizonezkoen senior mailako eskubaloia taldeak lehenengo *azterketa*. "Gure jokoa definitzeko asteak izan dira, jendea aktibatzen joatekoa, eta zelan jokatu nahi dugun erabakitzekoa. Trantsizio azkarrak egin, kontraerasoak... Halakoak lantzen ibili gara. Bigarren taldeko jokalariek ere lehenengo taldeko dinamikan murgildu ditugu, ohitzen joan daitezten; izan ere, denboraldian zehar lesioak izaten dira eta beheko taldeko jokalariek garrantzitsuak izaten



lazio denboraldiko erretratuan, taldekideak elkarrekin berbetan. GOIENA

dira hutsuneak betetzeko", dio Joseba Elortzak.

Hala, lagunarteko partiduetan oso sentsazio ona izan dute bergarrek: "Ikusiko dugu biharko partiduan zer egiten dugun, baina aste hauetako lanarekin pozik geratu gara. Elgoibarri irabazi egin genion, baita Askartzari ere... Jokatu dugun azkena Tolosaren kontra izan da eta 25-24 galdu genuen. Baina Tolosa kategoriatan bat gorago da goen taldea da, guk minutuak jokalariek askoren artean banatu genituen... Gol bateko aldeagatik galdu genuen, baina pozik geratu ginen kantxan erakutsitako mailarekin". Hala, biharko kontrarioari dagokionez, mailaz igo berria den taldea da Munttarpe.

Gainontzekoak ere hastera doaz Senior mailako bigarren taldeak, Goizper Bergarak, Leizaran izango du aurrean (12:45, Labegaraletan). Eta emakumezkoetan Bergarak gazte mailako taldean izango du ordezkari nagusia. Hala, Erreka Bergarak zapatuan 16:00etan jokatu du, Txingudiren kontra, Irunen.

Miguel Angel Elkoroberezibarren erakusketa Donostian

Miguel Angel Elkoroberezibar bergararrak ateratako argazkiekin osatutako erakusketa jarri dute Donostian, Txirain elkartearen. Hain zuzen ere, erakusketaren izenburua da *Leihoei begira Donostian*. Hala, kalean, burua altxatu eta begirada leihoei eta leihoen inguruari luzatzeko proposamena egiten du egileak.

Txapa irratia batzar irekia egingo du urriaren 2an, domeka

Irratsaio bat egin nahi dozu? Zatoz! izenburupean, batzar irekia egingo dute Txapa irratiko ordezkariak oraingo domekan, urriaren 2. Batzarra kartzela zaharrean izango da, 18:30ean, eta bertaratu ezin dezaketenek ere txapa35urte@gmail.com helbidera idatzi dezakete, eta bertan jasoko dute behar duten informazioa.



DEBAGOIENENKO GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETAK / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETAK / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

19 TALDE AUKERATUTA

Hauek dira Danbaka lehiaketan parte hartuko duten taldeak:

**BROKEN LEGACY • ETXEPE • ARRAGOA
SINDY BERBENAS • LETAGIN • THE CLAYTON
SUKENA • ISLABAT • ILUMINATIZZ • LEMAK
ERROMINTXELAK • EYHARTS • ORHI
INGUMA • KIIMAK • KATARSIA • JASAN
AIERT • BALARRASA**

20.A ZURE ESKU!

Publikoak botoa eman beharko du www.danbaka.eus webgunean,
hamabi talde hauen artean aukeratzeko, urriaren 5era arte:

**ETEN • UNAI CANTABRANA • KORDA ROTA
TRIGGER • GOLDEN BLEND • TRUMANS
112 • BANANA SHAKE • GOZZUE
DEBEKU • LOW COST DELUXE
EL EXTERMINIO DE LA RAZA DEL MONO**



ANTOLATZAILEA

goiena
KONINKAZO TALDEA

LAGUNTZAILEA



Bergarako Udala



Antzuolako alde zaharreko etxebizitzak. MAIDER ARREGI

Birgaitzen planaren bigarren deialdia, abian

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran aho batez onartu du udalbatzak profil sozioekonomiko zaurgarria duten familia antzuolarren etxebizitzetan isolamendua jartzeko Birgaitzen planaren bigarren deialdia martxan jartzea

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako udalbatzak aho batez onartu du osoko bilkuran Birgaitzen ekimenaren bigarren deialdia abiarazteko proposamena. Iazko urrian gauzatu zen lehenengoz Birgaitzen plana, eta erantzun ona izan zuela azaldu du Puri Arregik, Gizarte Ongizate zinegotziak: "Lehen deialdian bost herritarrek egin zuten eskaera; horietatik lauk betetzen zituzten baldintzak eta lau haien etxebizitzetan jarri da jada isolamendu sistema. Elektrizitatearen gorakada ikusita, orain, iazko fakturekin alderatuta zer aurreztu duten ikusi beharko da, baina, dakigunez, konfortean irabazi dute, eta kontsumo berarekin etxean epelago daude".

Goizperrek, H-Eneak eta Udaleko Gizarte Ongizate Sailak Debagoiena 2030 ekimenaren baitan bideratutako plana da Birgaitzen; eta Goizper herriko enpresak bigarren deialdi honetarako ere 10.000 euroko dirulaguntza eman du.

Bete beharreko baldintzak

Birgaitzen planaren onurak jasotzeko, ordea, zenbait baldintza bete behar dira: "Etxearen jabea izatea, etxea 1980. urtea baino lehenago eraikia izatea eta profil sozioekonomiko jakin bat izatea, besteak beste. Zeren xedea baita "herri kohesionatuagoa eta inklusiboagoa" lortzea. "Guztiok elkarlanean berdintasunaren bidea egitea; dirulaguntza horren helburua da gutxien daukatenei laguntzea".

Gureak-ekin hitzarmena

Gureak fundazioarekin lankidetzaren hitzarmena onartuta geratu da. Hala, urrian herriko gazte bat Herri Eskolan hasiko da atezain eta bestelako lanetan.

JADANIK LAU HERRITAREN ETXEBIZITZATAN JARRI DUTE ISOLAMENDU SISTEMA

Gerakina eztabaidagai

Osoko bilkuran aurreko akta onartzerako garaian, ordea, Udalaren gerakina izan dute eztabaidagai. Uztaileko aktak udal gerakina 600.000 eurokoa zela jaso zuen, eta EAJko Basilio Ormazabal bozeramaileak desadostasuna azaldu du: "Uztailean onartutako kreditu aldaketarekin diru gabe geratu gara; gerakina, beraz, zeroan dago, eta ez 600.000 eurotan. Horregatik, planteatzen nuen lehen fasean 300.000 euroko kreditu aldaketa egitea, zeroan ez geratzeko. Beste gauza bat da bestelako sarrera eta dirulaguntza batzuk jasotzea, eta urtea gerakinarekin amaitzea".

Horren harira, argudio horretan Goizperreko dirulaguntzak eta bestelako sarrerak ez daudela aintzat hartuta adierazi du alkateak; "interpretazioak" argitzeko eta "egoera erreala" jakiteko ogasun batzordera diruzainaren txostena eramango dutela esan du.



Bigarren eskuko arropa azoka, eskolako patioan. GOIENA

500 euro inguru batu dituzte bigarren eskuko arropa azokan

Batutako dirua Anelkarrek dituen proiektuetara bideratuko da: Sahara, Kongo eta Senegalgora

M.A. ANTZUOLA

Andramanuelak emakume taldeak eta Anelkar elkarteak antolatuta egin dute bigarren eskuko arropa azoka, eta Onintza Legorburu (Andramanuelak) pozik agertu da emaitzarekin. "Bagenuen beldurra jendea arropak eman bai baina erostera ez zela animatuko, baina ez!", aitortu zuen.

Zapatu goizean egon zen mugimendu handiena, eta orduan saldu zuten arropa gehien. Arratsaldean, aldiz, azken orduan hasi zen jendearen joan-etorria. Azoka girotzeko zuzeneko mu-

sika ere izan zuten, Ki.imak taldearen eskutik.

Azokan batutako 500 euroak Anelkarrek dituen hiru proiektu bultzatzeko erabiliko da: Sahara, Kongo eta Senegalgoak. Saldu ez diren arropak, berriz, beharra dutenen esku utziko dituztela adierazi dute.

Arropa salmentarekin batera, jostailu truke azoka ere egin dute, Idolaz elkartearen eskutik. Eta horrek ere arrakasta izan du: "Ume pila bat ibili dira. Batez ere, gurasoek eskertu dute ekimena, jostailu asko pilatzen dira-eta etxeetan".



JOXE ANGEL ARBULU

Erretiratuak, Lodosan

Primerako giroa lagun, Landatxoek antolatuta, martitzenean Lodosan egun-pasa ederra egin zuten herriko erretiratuek. "Lehenengo, piper fabrika bat bisitatu genuen Lodosan; ondoren, bueltatxo bat eman genuen eta bazkaltzera joan ginen. Arratsaldean, berriz, Logroño ezagutzera joan ginen", kontatu du Landatxoeko presidente Joxe Angel Arbuluk.

Lizentzia librearen askatasuna eztabaidagai

'Copyright', 'creative commons' eta domeinu publikoaren ertzak aztergai izan dituzte Torresoroan eguaztenean egindako mahai-inguruan. 'Eskubide guztiak babestuta, bai ala ez?' galderari erantzun zioten, besteak beste, adituek, nor bere esparrutik

Maidar Arregi ANTZUOLA

Teknologia burujabetzaz eta lizentzia libreez jardun dute Torresoroan, *Jabetza pribatutik ezagutza kolektibora* izeneko mahai-inguruan. "Teknologia burujabetza lantzeko asmoz antolatutako mahai-ingurua izan da, zeren bazegoen herritarren artean oinarriko kontzeptuak azaltzearen nahia", azaldu du Ion Lizarazu dinamizatzaileak. Hala, lizentzia libreen inguruan lanean diharduten lau adituek parte hartu dute: Iban Arantzabal, Tokikomeko presidentea; Iosu Isaias Villanueva, Mukuruko kolektiboko kidea; Aiora Mujika, Euskarazko Wikipediak elkarteko kidea; eta Mikel Larreategi, CodeSyntaxeko software garatzailea.

Aztergai, *copyright* -baimen gabe ezin da erabili-, *creative commons* -lizentzia librea, aitortza eginda- eta domeinu publikoaren -edonork nahieran erabili dezake- ertzak.

Komunitateari bueltan berriro

Lizentzia libreen eztabaida ez da berria Tokikomeko bazkide den Goienan. Iban Arantzabalek azaldu du Sustatu jaio zenean Goienak CodeSyntaxeko lantaldearekin gaiaz hausnartu zuela: "Internetek ekarri du nagusiki lizentzia librearen eztabaida. Hasieratik argi geneukan komunitatearekin egindako lana berriro herriari itzuli behar zitzaioela. Aitortza partekatzeak onurak ekarri ditu: edukia zabaltzea eta euskarazko erreferentziak sortzea. Hala, gure kasuan, *creative commons*, aitortu eta partekatu erabaki genuen. Hau da, gure edozein argazki eta bideo saretik jaitzi daitezke eta erabili; trukean eskatzen duguna da zeinena den aitortzea".

Musika eta lizentzia librea

Mukuruko kolektiboko Iosu Isaias Villanuevak, ordea, lizentzia



Lizentzia librearen inguruko mahai-inguruko adituek, Torresoroan. M.A.

EREMU ZABALAGORA IRISTEKO BIDE DA EDUKIAK PARTEKATZEA ETA ZABALTZEA

libreen beste aldeaz hausnartzeko bidea ireki du: "Mukuruko kolektiboa 10-11 proiektu osatzen dute eta lizentzia librearen eztabaida irekita dago. Egia da naturalki lizentzia libreen alde egin genuela hasieratik. Baina, denborarekin, oztoporen bat etorri da. Hau da, bada kolektiboan musikatik bizi nahi duenik, eta kezka badira. Musika goi-mailakoendako luxu bilakatu ote den ardura dago", aitortu du Villanuevak. "Lizentzia librearen alde egiteak ekarri dio musikariren bati bere kantua ibilbidea izan duen film batean agertzea *creative commons* lizentziarekin; hau da, doan".

Auzolana jakintza sortzeko

Euskarazko Wikipedia komunitateak etengabe sortu eta osatzen duen entziklopedia da. "Entziklopedia editatzeko askatasuna

izanda geroz eta eremu zabala gora iritsi daiteke. Aberastasuna dakar auzolan horrek, edonork editatu dezakeelako", aitortu du Aiora Mujikak. Gaineratu du esperientziak irakatsi diela onurak askoz gehiago direla. "Askoz ere ekarpen interesgarri gehiago dago jakintza sortzeko aukera hori herritar guztien artean zabaltzen baduzu".

Datuen aroa

Mapen erabilera asko orokortu da sarean. Modu publikoan erabiltzeko aukera eskaintzen du, gainera, OpenStreetMap zerbitzuak. Wikipediaren filosofia bera dauka eta auzolanean oinarritzen da. "Edonork edita dezake, eta kaleak nahiz lekuak gehitu. Baina eboluzioa izan du, eta gaur egun herriko iturriak, mendi tontorrak... nahi den informazioarekin eta datuekin osatu dezake edonork", dio Mikel Larreategik. "Era libreen banatzen denez, berrerabili egin daiteke eta hor dauden datuekin herritarrek lanak egiteko informazioa erabili dezakete, besteak beste". Era berean, edozein hizkuntzatan editatzeko aukera ere nabarmendu du Larreategik.

Hainbat ikastarotan izena emateko aukera dago oraindik

Yogan, eskulanetan eta udal kiroldegiko hainbat jardueratan izena emateko epea zabalik dago

M.M. ANTZUOLA

Udal gimnasioan hainbat ikastaro eskainiko dira, urrian hasita: zumba, pilatesa eta spinninga, jarduerak hurrenez hurren.

Hala, izena emateko epea zabalik dute antzuolarrek. Bazkideentzako prezioa 28 euro izango da ikastaroko; eta bazkide ez direnentzako, berriz, 56 euro.

Hileroko gimnasioko kuota, aldiz, 12 euro izango da.

Horrez gain, bazkideek klase funtzionaltara joateko aukera ere izango dute -asteleheneretan

eta eguaztenean, 10:30etik 12:30era bitartean-. Eskola horietan giarrak eta artikulazioak modu naturalean landuko dira, besteak beste.

Bestalde, urrian hastear dauden beste bi ikastarotan ere izena eman daiteke: yoga ikastaroan -urriaren 4an hasiko da- eta eskulanen ikastaroan -urriaren 5ean hasita-. Izena emateko, udal webguneko eskuorria bete eta kultura@antzuela.eus helbidera bidali behar da. Udaletxean ere bete daiteke eskuorria.

GORA ETA BEHERA



Zuhaixka adarrek espaloia oztopatzen dute

Herriko hainbat espaloia zuhaixken adarrek gaina hartuta daude eta bertatik igarotzeko bidea oztopatu eta zaildu egiten dute. San Josepe eta Ondarrerako biderearen kasua, esaterako; ondorioz, bidea txukuntzea iradoki du herritar batek Udalaren Hirix plataforman.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Euskaraldiaren inguruko lanketa egiteko batzarra

Kike Amonarrizen eskutik, atzo aurkeztu zen Euskaraldia Antzuolan. Izen ematea zabalik dago, eta liburutegira jo daiteke. Orain, hurrengo urratsa egitea da asmoa, eta Euskaraldiaren batzardea osatu nahi da herritarrekin. Hala, urriaren 6an, 18:30ean, bilera irekia egingo da Euskaraldiaren inguruko lanketa egiteko.

Mendiko segurtasunaz jardungo dute

Urriaren 8an, zapatua, ospatuko dute Arrola Eguna. Egun osoko egitaraua gertu dute, baina, motorrak berotze aldera, urriaren 4rako, martitzena, hitzaldia antolatu du Arrolak. Mendiko segurtasunaz jardungo duten adituek etorriko dira solasaldia eskaintzera. Olarango bigarren solairuko ekintza aretoan egingo da hitzaldia, 18:30ean hasita.

Eskolako jangela zabaldu zela 20 urte

Baserrietan bizi ziren familien eskaera izan zen hasieran, baina 29 jankiderekin abiatu zen eta ordutik hirukoiztu egin da erabiltzaile kopurua. Urteotan guztietan Ana Urzelai, Marga Castro eta Tere Deskarga arduratu dira umeei bazkaria emateaz

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Herrigunetik sei bat kilometro-ra dagoen baserri batean bizi da Ana Urzelai, eta bost bat kilometro daude Tere Deskarga bizi den baserrira. "Dezente familia bizi ginen orduan herrigunetik urruti, eta eskolan jangela zerbitzua zabaltzeko eskaera indarra hartzen joan zen", dio Deskargak. "Galdeketa egin zen eskolako familien artean, eta, denon sorpresarako, herriguneko familia askok ere zerbitzua erabiliko zutela esan zuten", gaineratu du Ana Urzelaiak. "Halako batean, zabaltzeko baimena heldu zen, eta kartelak agertu ziren herrian, langileak behar zirela jakinarazten. Izena ematea erabaki genuen. Irailaren 30a zen eta 29 jankide izan genituen lehen egunean", dio Marga Castrok. "Janaria, hasieratik, Auzolagunetik ekarri izan da, eta, gaur-gaurkoz, dozena bat menu berezi ematen ditugu: alergikoendakoa, intolerantziendakoa, txerrikirik gabekoa, menu begetarianoa, kobre gutxikoa... Gauzak asko aldatu dira".

Ordutik, handitzen joan da jankide kopurua. Irene Santamaria gaur egun jangelako arduraduna. Azaldu du ikasturte honetan altan emandako jankideak 76 direla, eta noizbehinka



Eskolako jangela zerbitzuko lehen txanda, martitzenean. L.Z.L.

koak hiru. "Badira urte batzuk bi txanda ditugula bazkaltzeko. Lehenengo, HHko eta LH-1eko ikasleek bazkaltzen dute, eta bigarren txandan LH-1etik LH-6rakoak". Zerbitzua sortzeak herriko familiek zuten premia bati erantzutea ekarri zuen, eta, gaur-gaurkoz, ezinbestekoa da.

Hamaika anekdota

Hogei urteotan Elgetako umegehienak pasa dira eskolako jangelatik, eta hamaika dira anekdotak. "Gogoan dut jangelara etorri nahi ez eta hozkailu

ondoan jarri eta negar eta negar egon zen neskatala bat. Egun hartan ez genuen lortu mahaian esertzea eta bazkaltzea", dio Urzelaiak. Semearekin ere anekdota polita du Deskargak: "Ardura handia zuen niri *ama* edo *Tere* deitu behar ote zidan. Esan zidan gainerakoek *Tere* esaten zidatela, eta hark nola esango zidan *ama...*".

Lan polita dutelakoan daude hiru emakumeak, baina ratioak estuegiak direla diote. "Gainerakoan, gure artean ondo konpontzen gara, eta horrek asko



Ana Urzelai, Marga Castro eta Tere Deskarga. L.Z.L.

"Hasiera gogorra izan zen"

Zerbitzua zabaltzeko, psikomotrizitate gelan kokatu zen jangela. "Ez zegoen ez aulki ez eserlekurik, eta aldameneko gelatik hartzen genituen egunero. Amaitutakoan, denak ondo garbitu eta berriro itzuli behar genituen bere lekura. Sukaldea ere erdipurdi zegoen. Iturria irekitzen zenuenean, harraskak gainezka egiten zuen, eta ontziak haurren komunean garbitzen genituen". Bina orduko dedikazioa bakarrik aitorzen zieten, eta ez zuten orain moduan jangelako menurik bazkaltzeko eskubiderik.

Lan handia egiten dute eta Elgetako umeen haurtzaroan leku berezia dute Urzelaiak, Castrok eta Deskargak. Bazkaria emateaz gainera, 2 urteko umeak siestara eramaten dituzte, eta jolastokiko zaintza lanak ere egiten dituzte. "Inoiz-edo etorri izan dira ikasle ohiak bisitan. Ilusio handia egiten du".

Bereziki gogoan dituzte elur-egunetan zerbitzua emateko baserrietik oinez etorritako egunak. Gertatu izan zaie, baita ere, lanera heldu baina janaririk ez iristea. "Batean, hotelean prestatutako makarroiak jan zituzten umeek". Irribarrea ahoan kontaktzen dituzte eguneroko gorabeherak. "Guk ez dugu zigortzen; umeak pentsatzera bidaltzen ditugu. Baina gaurko umeek seguituan pentsatzen dute, eta hurrengo egunean berdin. Bezeran bizkorregi pentsatu zutela esaten diegu, eta beste pixka bat pentsatzeko. Horrela ibiltzen gara gu".

egiten du. Hogei urtean gu gaude, herrikoak gara, eta ikusten ditugu Elgetako umeak handitzen. Ez dakigu zenbat urte gehiago jarraituko dugun. Hasi ginenean ez genuen pentsatzen hogei urte beteko genituenik".

EGUN BEREZIA DUTE GAUR ESKOLAN; JANGELA APAINDU ETA FESTA GIROAN BAZKALDUKO DUTE

Euskaraldi giroa Elgetan

Patata-tortilla lehiaketa egunean, Euskaraldiaren aldeko herri argazkia atera zuten elgetarrek. Eguaztena ezkerre, zabalik da *ahobizi* zein *belarriprest* izena emateko aukera. Aurreko Euskaraldietan izena emandakoek mezua jasoko dute izen-ematea berresteko. Gainerakoek izena eman behar dute. Gainera, txapa berriak banatuko dituzte aurten.



L.Z.L.

Urrian hiru ikastaro doan Elgetako KZgunean

Plaza mugatuak dira eta ezinbestekoa den izen-ematea zabalik da urriaren 7ra arte. Ikastaroak 16:00etatik 19:00etara izango dira, kultura etxeko KZgunean. Gaiak honako hauek dira: *Erosketak eta ordainketa seguruak Interneten*, urriaren 13an eta 14an; *BakQ ziurtagiria*, 17an; eta *Online izapideak Osakidetzaekin*, 18an eta 19an.

"Kanpaiak joko dituzten mazozen zain gaude"

ALFONSO SUESCUN ERLOJU-KONPONTZAILEA

Isilik dago aspaldian kanpandorreko ordularia; barikua ezker, orratzik ere ez du. Erloju-konpontzaile aditua den Gasteizko Alfonso Suescunek dihardu berritze lanetan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Kanpoko itxura ez da aldatuko, baina sistema elektronikoa batek ordezkatu du orain arteko makineria mekaniko guztia. Udalak 7.000 euroko inbertsioa egingo du.

Non daude kanpandorreko ordulariaren orratzak?

Gasteizko gure tailerrean. Garbitu, txukundu eta margotu egin ditugu, eta haien lekura itzuliko dira erlojuaren barruko makineria berria ipintzerakoan.

Zer gertatzen zaio ordulariari?

Orduak joarazten dituen mekanismoak huts egiten zuen, eta baita pisuak igotzen zituzten motor elektrikoek ere. Hori dela-eta, sarritan gelditzen edo atzeratzen zen. Ordulari ona da, baina urte asko ditu eta espezializatutako jarraipena eta mantentzea eskatzen ditu, eta Elgetan ez dago espezialistarik aldiro behar dituen doikuntzak egiteko. Gasteizko Murua etxean egindako erlojua da, eta 50 bat urte ditu. Hiriburuan badira martxan dauden erloju berdinak, baina guk egiten ditugu mantentze-lanak.

Zer aldatuko diozue, orduan?

Erabiltzaileari begira, erlojua ez da aldatuko. Esfera, orratzak eta kanpai-hotsak mantendu egingo dira. Barruko sistema da aldatuko dena; orain arteko



Alfonso Suescun erloju-konpontzailea, Elgetan. ARTXIBOKO IRUDIA

"GUTXIENEZ, BESTE ZAZPI EGUN BEHARKO DIRA ERLOJUAREN KONPONTKETA LANEKIN JARRAITZEKO"

sistema mekanikoa kendu eta sistema elektronikoa bat jarriko diogu. Zehaztasuna hobetu egingo da, mantentze-lanak gutxitu egingo dira eta, orain arte ez bezala, sistema programatzeko aukera izango da.

Noiz egongo da ordularia berriz ere martxan?

Gutxienez beste zazpi bat egun kalkulatu behar dira. Ordulari mota honekin gertatzen dena da bakoitza bakarra dela eta piezak enkarguz eskatu behar izaten dira. Kasu honetan, kanpaiak jotzen dituzten elektromazozen zain gaude. Kantabriako Hermanos Portilla artisauek eskatuta daude. Abel Portilla maisu galdatzailea ari da lan horrekin. Lehen mailako espezialista da, baina bere denbora behar duen lana da.



Plaka fotovoltaikoak frontoiko teilatuan. ELGETAKO UDALA

Eguzki bidezko energia sortzeko instalazioa frontoiko teilatuan

Energia komunitate bat sortzeko aukera dago, eta Udal Gobernuak batzar ireki batera deitu ditu herritarrak

L.Z.L. ELGETA

Astebete pasatxo da beharginak udal pilotalekuko teilatuan lanean direla. Eguzki bidezko energia sortzeko plaka fotovoltaikoak instalatzen ari dira. Udal Gobernu taldearen asmoa da 34 kW-ko instalazioarekin argindarra ematea udal eraikinei eta beharizanik larriena duten hamar familiei. Goien-ekin eta Nafarkoop-ekin garatutako proiektua da, eta 2021eko azaroaren 22an pasa zen Hirigintza batzordetik. Ondotik, 2022ko udal aurrekontua onartzeko abenduan egindako osoko

bilkuran, 30.000 euroko diru-leerroa bideratu zen proiektu horren finantzaketarako.

Energia komunitatea

Udal Gobernuak, orain, eguzki-energia oinarri duen energia komunitate bat sortzeko aukera jarri nahi du mahai gainean. Hala, lehen informazio batzar irekia deitu du eguaztenerako, hilak 5. Ingurumen zinegotzi Ibai Larrañagak aurreratu du herritarren konpromisoa ezinbestekoa izango dela egitasmoa aurrera ateratzeko. Batzarra 18:30ean izango da, Espaloian.

OHARRAK

'Ipuinen ordua' gaur liburutegian

Gaur izango da ikasturteko lehenengo saioa, herriko ipuin kontalari talde boluntarioaren eskutik. Orduategi hauxe da: 17:30ean, HH-3ko eta HH-4ko umeendako; 18:00etan, HH-5 eta LH-2 artekoendako; eta 18:30ean, LH-3 eta LH-5 artekoendako.

Euskal dantzen ikastaroa gaur

Herritar talde baten ekimenez, euskal dantzetan trebatzeko saio irekiak egingo dira hilean behin Elgetan. Hileko azken barikuan egingo dira. Lehenengoa gaur izango da, 19:00etan, gimnasioan.

'Hitzez pitz' irakurketa taldea martitzenean

Euskarazko irakurketa taldeak Harkaitz Canoren *Beti oporretan* narrazio sortarekin emango dio hasiera ikasturteari. Lehenengo saioa martitzenean izango da, urriak 4. 19:00etan hasiko da, liburutegian.

Lursailen digitalizazioa: batzarra egunean

Elgetako lursailen kartografia digitala egiteko prozesuan urratsak egiteko bilera deitu du Udalak urriaren 6rako, eguena. Bilera 18:00etan izango da, Espaloia kafe antzokian.

Kanpandorretik zintzilik lanak egiteko

Suescun anaiek egin dizkiote orain arteko mantentze-lanak kanpandorreko ordulariari, beti ere udal brigadako langileen aldiroko doitze lanekin. Orratzik gabe dago egunotan ordularia, baina laster itzuliko dira bere lekura. Kentzekoa den sistema mekanikoari dagokionean kanpandorrean egon da beti, eta erretiratutakoan ikusgai jarri nahi du Udalak.



Orratzak kentzeko lanak, aurreko barikuan. LUIS ATORRASAGASTI



Adin askotariko nagusiak Kale Barrian behean. O.E.G.

Nagusien Gunearen beharra aztergai Udalak

Jakin gura du ea nagusiek euren propio litzatekeen gune baten beharrik ikusten duten, eta, ikustekotan, nolakoa behar lukeen izan espazio horrek. Aurre-diagnosia lantzen hasi da; 65 urtetik gorako 50 herritar baino gehiagorekin egon da dagoeneko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Pertsona nagusiekin lan egiten duten eragileetako kideekin, elkarteetako ordezkariarekin eta herriko norbanakoekin osaturiko gune baten beharra dagoen edo ez jakin gura du Udalak, eta, egonez gero, espazio horrek nolakoa beharko lukeen izan. Aurre-diagnosi hori egiten ari da eta dagoeneko 65 urtetik gorako 50 herritar baino gehiago elkarrizketatu ditu.

Dagokienez egonda

Orain arteko aldiaren aldiko dinamika nahikoak diren ikusi edo foro egonkor bat sortzeko beharra dagoen baloratu gura du Udalak. Horren beharra dagoela ikusiz gero horrek nolakoa izan behar lukeen ere aztertu behar dutela adierazi du Iزارo Elorza alkateak: "Betiere, balizko erabiltzaileen ekarpenetan oinarrituta, haiekin berba eginda, galdetuta, euren beharrak ezagututa...". Horrela, "dagoeneko sortuta dauden programen

artean bat aukeratu eta martxan jarri beharrean", alkateak uste du "nagusiak entzutea eta haien benetako beharrak ezagutzea" beharrezkoa dela, eta hori da, hain zuzen ere, aurre-diagnosi hau egiteko arrazoia Udal Gobernuarendako. "Guneak balizko erabiltzaileen beharren arabera izan behar du. Behar horiek ezagutu behar dira osteko urratsak definitu aurretik. Izan daiteke gune baten beharrik ez antzematea, dagoeneko sortuta dauden ekinbideetako batekin bat egitearekin aski dela iriztea edo elkarrizketatuek euren tamainara eraikitako espazio baten alde egitea. Nola edo hala, prozesuak erdigunean behar ditu izan balizko erabil-

GAUR-GAURKOZ, OÑATIKO HERRITARREN %24TIK GORA DIRA 65 URTETIK GORAKOAK

tzaile izango liratekeen, herriko nagusien, nahiak eta beharrak", argitu du. Udalak emandako datuaren arabera, gaur-gaurkoz, Oñatiko herritarren %24tik gora dira 65 urtetik gorakoak.

Bizipoz-ekin batera

Bizipoz zahartze aktiboen kooperatiba dabil aurre-diagnostikoa lantzen. Herri mailan erreferentziakoak izan litezkeen pertsonak, eragileak eta erakundeak identifikatuta, haiekin elkartu eta nagusien gunearen inguruko hausnarketarekin dabil, horren ostean gaiaren inguruko txosten bat egin eta balizko proposamenak aurkezteko. Oñatiko Udalak hori izango luke oinarri ondorengo pausoak definitzerakoan. Zahartzaro aktibo eta osasuntsua bultzatzen duten programekin jardun ohi du Bizipoz kooperatibak, eta esperientzia du, esaterako, Nagusien Kontseiluak sortzeko zereginen; Arrasaten, Hernanin, Pasaian eta Zumarragan jardun du horretan.

Urriaren 5etik egongo dira eskuragarri udazkeneko bonuak

%20ko deskontua izango dute eta pertsona bakoitzak 50 euro artekoak eros ditzake azaroaren 30a bitartean

O.E.G. OÑATI

Urriaren 5ean abiatuko du Udalak udazkeneko bonuen kanpaina, "herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu alorreko establezimenduei bultzada" emateko. Azaroaren 30era arte iraungo du, aurrekontua lehenago agortzen ez bada. Kanpaina honetarako Udalak aurreikusita zituen 15.000 euroei udaberrikoan agortu gabeko 4.768 euroak batuko zaizkie. Hori horrela, guztira, 19.768 euroko aurrekontua izango du udazkeneko kanpainak.

Aurrekoan legez, Oñatin errol-datutako 16 urtetik gorako herritarrendako dira, eta pertsona bakoitzak 50 euro arteko muga izango du %20ko deskontua duten bonuak erosteko. Bonuak onati.bonoak.eus webgunean sartuta edo atxikitutako komertzioetan -43, oraingoz- eskura daitezke. Erabiltzeko azken eguna abenduaren 2a izango da.

Udalak emandako datuaren arabera, udaberriko kanpainan 1.118 herritarrek erosi zituzten bonuak, eta 70.902,83 euroko salmentak sustatu.



JULEN IRIONDO

Natur Eskola eredu hartuta

Euskadiko Klima eta Energiaren Astearen (Asteklima) barruko ekintzetako bi egin dituzte Oñatin astean: Natur Eskola eta Olateko zentral hidroelektrikoa ezagutzeko bisita bana. Bada, Natur Eskolan egin dute Eusko Jaurlaritzak, IHOBek eta EEEK aurkezpena, proiektua eredu izateagatik.

Animaliak nola hil eta zatikatu erakutsiko du Hazik Oñatin

Animaliak hiltzea, prestatzea eta zatikatzea erakusteko ikastaroa egongo du Hazik Oñatin, Udalaren eta Zubillagako hiltzearekin elkarlanean. 180 orduko ikastaroan, helburua da haragiaren sektorean lan egiteko gaikuntza edo formakuntza ematea. Urriaren 10ean hasiko da eta goizez izango dira eskolak. Lanbiden eman daiteke izena.

Hamahiru ikaslek hasi dute Lege Soziologiako kurtsoa

Hamar herrialdeetako hamahiru ikaslek hasi dute 33. master ikasturtea Lege Soziologia Institutuan. Kanada, Kolonbia, Txile, Gambia, Indonesia, Liberia, Pakistan, Turkia eta Espainiatik etorritakoak dira, eta tartean daude hiru euskaldun ere. Antixena egoitzan hartuko dute gehienek ostatu, etorriko diren ikertzaileekin batera.

OÑATIKO JAIK 2022

Beteta dator jaietako bigarren asteburua ere

Jaietan arduraz eta errespetuz jokatzeko mezua zabaldu du alkateak, eta Txosna Batzordetik ere dei egin dute ekitaldietan parte hartzeko. Udaltzainen ordutegia luzeagoa izango da, eta egon daitezkeen intzidentziei erantzuteko egongo dira

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

San Migel biharamun eguna gaur eta Errosarixo jaiak oraindik aurretik ospatzeko. San Migel eguneko, atzoko, eguraldi txarragatik, Zubikoako kantxa berdean muntatu zituzten haurrentako jolasak eta puzgarriak, baina tokiz aldatu den ekitaldi bakarra izan da. Gainerakoak, apur bat moldatuta bada ere, aurreikusita bezala gauzatu dira.

Izandako gertakariak

Eguraldiari begira egin zituzten joan den asteburuko, jaien atarian, ekitaldiak ere, baina, azkenean, aldagai horrek ez zuen ezer zapuztu. "Makina bat aldiz kontsultatu genuen eguraldi iragarpena, baina, azkenean, ekintza guztiak egin ahal izan ziren. Oso parte-hartzaileak izan ziren guztiak, gainera", adierazi du Kultura batzordeburuak, Iñaki Olalde. Gaurtik astelehenera bitartekoak ere daudenetan egitea da aurreikuspena. Txosnagunetik ekitaldietan parte hartzeko dei ere egin dute, "espazioak errespetatu eta inolako erasorik gabe".

Aurreko asteburuko gertakarien artean, txosnagunearen inguruan zarata handia zegoela



Nagusien danborrada eguzten gauean, Atzeko kalean gora. AITOR AGIRIANO

zioten keak jaso zituzten Udaltzaingoan eta Ertzaintzan. Txosna Batzordeko ordezkariak horren berririk ez dutela adierazi dute, eta, Izaro Elorza alkateari galdetuta, arduraz jokatzeko eskatu du. Udaltzaingoan ordutegia luzatu egingo dela ere gaineratu du, eta azkarrago erantzun ahal izango dute.

Autobus zerbitzu bereziak

Jaiak bukatu bitartean, aldaketak egongo dira autobus zerbitzuan. Herribusa, esaterako, urriaren 4ra arte, martitzena, ez da berriro eskainiko. Bitar-

tean, ibilgailuak Arantzazurako zerbitzu berezia beteko du. Dimekan ohiko ordutegia izango du Oñatitik Arantzazurako lineak eta zapatuan, Herri Egunean, eguerditik aurrera, egun horretan jendeak etxetik kanpo bazkaltzeko ohitura duela kontuan izanda eta Arantzazura bidean jatetxe asko daudela ikusita. Zapatutik domekarako gauean gaueko zerbitzu berezia eskainiko du Lurraldeusek, eta Oñati eta Arrasate arteko linea indartu. Eskoriatzaraino eta Leintz Gatzagaraino ere iritsiko dira linea batzuk.



O.E.G.

Sarea, fatxada babesteko

Sarea jarri du Aldundiak Sancti Spiritus unibertsitateko fatxadan hainbat elementu babesteko. Apurtzeko eta lurrera jausteko arriskua duten guneak babestu dituzte horrela. Behin-behineko neurria da, baina zaharberritze lanak egin bitartekoa. Sarrera nagusiaren gainaldeko zati handi bat jausi zen abuztuan, eta, azterketaren emaitzen zain, babesa jarri dute.

Domekara arteko epea Zai Zoi Beleren irudia aukeratzeko

Hamabost lan aurkeztu dituzte Zai Zoi Bele musika elkarteko logotipo edo irudi lehiaketarako. Lehengo Kirrin dendaren erakuslehoan daude ikusgai eta han agertzen den QRa eskaneatuta eman daiteke botoa. Herriar bakoitzak boto bakarra eman dezake domekako 18:00ak aurretik. Ordubete geroago Atzeko kalean egingo den kontzertua hasi aurretik erakutsiko da boto gehien lortu dituen irudia zein izan den, eta sari banaketari ekingo diote; 150 euro irabaziko ditu bozkatuenaren egileak.

Logoan elkartearen izena, *Zai Zoi Bele*, agertzea zen jarritako baldintza bakarra, eta hamabost lan aurkeztu dira.

Liho ikastaroa da Parketxean egingo den ekintzetako bat

Udazkenari ongietorria egiteko ekintzak antolatu dituzte Gipuzkoako Parketxeetan, eta Arantzazukoak ere zehaztuta dituzte. Liho landarearen erabilerari buruzkoa izango da horietako bat. Euskal Herrian izan duen funtzioaren gainean jardungo dute eta makrame ikastaro bat ere egingo dute. Azaroaren 5ean izango da hori.

Horrekin batera, Arantzazutik Gomiztegira joan eta han gazta dastatzeko irteera gidatua ere egingo dute, adibidez. Ipuin kontaketa antzeztu bat ere izango da abenduaren hasieran eta dagoeneko ezaguna den orientazio jolasa ere egingo dute familia osoarentzat.

ERROSARIXO BIXAMONA

GOIENA TELEBISTA, ZUZENEAN OÑATIKO PLAZATIK
URRIAREN 3AN, ASTELEHENEAN, 13.30EAN

OÑATIKO SANMIGELAK

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK' SAIOA
URRIAREN 4AN, MARTITZENEAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Oñatiko San Migel Pilota Torneoko partida bat. GOIENA

San Migel Txapelketako finalak etzi, domeka

Arratsaldeko bostetan hasiko dira, eta gazte mailako eta 23 urtez azpiko finalak jokatuko dira. Azken urteetan gertatu bezala, "Oñatiko zein kanpotik etorritako jendea" elkartzea espero dute Aloña Mendiko pilota saileko antolatzaileek

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Oñatiko jaietako asteburuak pilota usaina izango du, San Migel pilota txapelketako eta Herriko Pilota Txapelketako finalak jokatuko baitira. Domeka arratsaldean jokatuko dira San Migel torneokoak. Gazte mailan, Oihan Etxeberría (Oiartzun) eta Arkaitz Gabirondo (Gaztelu) eta Ugaitz Amundarain (Tolosa) eta Jonan Peñalver (Tafalla) izango dira nor baino nor gehiago. 23 urtez azpikoetan, berriz, Iker Egiuren (Azpeitia) eta Ekain Lizeaga (Astigarraga) bikoteak Antton Apeztexea (Goizueta) eta Oier Ariztegi (Iruñea) izango ditu aurkari txapelaren lehian.

Antolatzaileak pozik

COVID garaiak igarota, alde batetik, txapelketa normaltasunera itzultzea zen antolatzaileen helburua, eta, bestetik, ikusgarritasun handiagoa ematea. "Debagoieneko eta Gipuzkoako txapelketa izanik, gertuko pilotariei garrantzia eman nahi

genien, eta uste dut lortu dugula, finaletan izango diren zortzi pilotarietatik bost gipuzkoarrak izango baitira", dio Ander Bian antolatzaileak.

Jendea erakartzeko helburua

Antolatzaileek badute kezka, ordea, joango den ikusle kopuruari dagokionez, eta hurrengo urteetara begira jendea erakartzeko "helburua" finkatu dutela aitortu dute. "Jende gehiago erakartzeko moduko txapelketa dela uste dugu. Ez dakit ohitura falta den, baina, finaletan izan ezik, ez dugu lortzen afizionatuak ikustera profesionalak ikustera etortzen den jende kopuru bera erakartzea", dio Biainek.

**ASKOTARIKO
PRODUKTUEZ
OSATUTAKO SORTAK
ZOKKETATUKO DITUZTE
FINALEAN**

Herriko finalak gaur

Ekainaren 10ean hasi zen txapelketa, 33 bikote gizonetako eta sei emakumetako izan dira lehian nor baino nor gehiago, eta gaur emango zaio amaiera txapelketari, arratsaldeko bostetan hasiko diren finalekin. Emakumetakoetan, Jaione-Aran bikoteak Nerea-Miriam izango ditu aurkari. Gizonetakoetan, Larrea I.a eta Larrea II.a Ugarteren eta Guridiren aurka arituko dira 2022ko txapelaren bila.

Eguna festa handia izan dadin, egitarau zabala antolatu dute egun osorako. 14:00etan, Merkatu plazan, herri bazkaria egingo dute, finalaren aurretik indarrak hartzeko, eta partiduak jokatuko bitartean barra zerbitzua ere izango da. Eguna borobiltzeko, finalen ostean profesional ohien partida jokatuko da, Xala-Azanza eta Mendizabal-Pascual bikoteen artean. Eguraldi txarra egiten badu, partiduak Zubikoa pilotalekuan jokatuko dira.

Gipuzkoako Kopako final laurdenetan da Aloña Mendi

Aurreko zapatuan TEEP Tolosalari 3-0 irabazi ostean, final laurdenetan da Ingou Coinbroker Aloña Mendi

I.B.K. OÑATI

Hurrengo asteburuan ekingo dio areto futboleko taldeak liga txapelketari, baina denboraldia Gipuzkoako Koparekin hasi dute. Lehen partiduan erraz menderatu zuten Aldapeta taldea, 6-2ko emaitzarekin. Zapatuan, berriz, gehiago sufritu zuten TEEP Tolosala gaunditzeko. 5-5eko emaitzarekin, penaltietan egin zuen aurrera Aloña Mendik. Lehen bi kanporaketak gaundituta, final laurdenetan dira, baina, liga hasiera dela-eta, abenduan jokatuko dira Kopako hurrengo kanporaketak.

Ilusioa denboraldi berrirako

Joan den denboraldian igoera lortuta, Gipuzkoako lehen mailan arituko da aurten Aloña Mendi. Ikasturte berrirako iazko talde berbera mantendu dute, taldea indartzeko fitxaketa batzuk



Taldekako jokariak. S.B.

eginda. "Badakigu kategoria berria izanik zailtasuna ere handitu egingo dela, baina denboraldi aurreko sentsazioak onak izan dira eta denboraldi polita egiteko gogoia eta asmoa dugu", dio Santi Bernalek, taldeko ordezkariek.

Oñatin jokatuko da 34. eskolarteko mendi lehiaketa

Urriaren 23an, Gipuzkoa osoko eskoletatik etorritako ehunka haur eta guraso izango dira Oñatin jokatuko den Finalistaren Egunean. Goizeko bederatzietan hasiko da, Foruen enparantzan, eta bi orduko ibilbidea izango da. Amaieran, diplomak eta sariak banatuko dituzte. Izen-ematea urriaren 20ra arte egongo da zabalik.

Zubikoa kiroldegia astearte arratsaldera arte itxita egongo da

Oñatiko jaiak direla eta, Zubikoa kiroldegia itxita egongo da. Hilaren 29tik urriaren 4ra arte erabilzaileek ezingo dituzte kiroldegiko zerbitzuak eta instalazioak erabili. Urriaren 4an, martitzena, goizean ere itxita egongo da, eta arratsaldean irekiko ditu berriz ateak. Eguaztenetik aurrera itzuliko da normaltasunera.



Realaren eta Vila-realaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Vila-real partida (urriaren 9an, domeka, 18:30ean) beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Parte hartzeko azken eguna: Urriak 3



Eserlekuak
Premium gunean



Catering
zerbitzua



Aldageletako tunelean
jokalariak ikusteko aukera



Ikus-entzunezko
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu
pertsonalizatua



353 metro karratuko
gunea

**Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!**



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

**goiena[“]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak

Espainiako 'pitch and putt' txapelketa, Oñatin

GOLF-A Irelore Golf Eskolak hogeitau urte bete ditu, eta urteurrena baliatuko du asteburuan Espainiako Txapelketa Oñatira ekartzeko. P&P –'pitch and putt'– modalitatean jardungo dute Espainia osotik etorritako maila oso oneko 54 jokalarik

Xabier Urzelai OÑATI

Irelore Golf Eskola gertu dago asteburuan Espainiako P&P –*pitch and putt*– txapelketa hartzeko: "Egia esan, gu arduratu gara golf zelaia ahalik eta kondizio onenetan egoten. Gainontzeko guztiaz Federazioa arduratzen da", dio azken asteotan lanez lepo ibili den Jabi Balzategik. Guztira, 54 golf jokalarik hartuko dute esku, modalitate horretan Espainiako onenetakoak egongo dira tartean, eta, Oñatiko egutegiko azken proba puntuagarria denez, Ireloren erabakiko dira zeintzuk diren txapeldunak. Hala, parte-hartzaileen zerrendan daude sailkapenean aurre-aurrean dauden Jose Maria Ortiz de Pinedo, Prakash Aisa Barrera, Jose Gomez Sanmartin eta Fernando Cabezudo golf jokalariaik. Eta tartean izango dira, baita ere, bailarako zenbait golf jokalaria: "Montserrat Lizarralde oñatiarra, Bergarako Iker Hiart eta Ignacio Peñin eta Eskoriatzako Gerardo Pagaldai ere parte-hartzaileen zerrendan daude. Ea lan ona egin dezaketen".

Txapelketa zapatu goizean hasiko dute, eta, goiz eta arratsalde jardun eta gero, domeka goizean jokatuko dituzte finalak: "10:00 aldera hasiko gara uste



Golf jokalarik bat Ireloreko *green* batean. GOIENA

dut; lehen aipatu moduan, Federazioak erabakitzen ditu ordutegiak, eta sari banaketa ekitaldia domeka eguerdian egingo dugu".

Egun gutxitan, hobera

Irelore zelaiak hobera egin du azken egunotan. Batetik, txapelketara begira kanpoko profesionalak ekarri dituztelako belardiak zaintzera –bereziki, *green*-ak ondo jartzera–, baina, horrekin batera, aste barruan egingo dako euriari esker Oñatiko golf

eskolak beste itxura bat erakutsiko du bihar.

Zenbat aldatu den Irelore

Aipatu moduan, Irelore 20. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil. Hasieran, kirol jarduera horren aldeko apustua egin zuenean praktiketako gunea izan zen Balzategik egokitu zuen lehenengo gunea, eta 2006an jarri zituen lehenengo lau zuloak. Kopuru hori handitzen joan zen poliki-poliki eta 2012an amaitu zituen gaur egun dauden bederatziko zuloak: "Baina, zuloak be-

"Mimoz prestatu dugu hitzordua, dena ondo irten dadin"

JABI BALZATEGI IRELOREKO ARDURADUNA

Duela 20 urte golfaren aldeko apustua egin eta gero, urteurren borobila ospatzeko txanda iritsi zaio Ireloreri. Sikateak ez du lagundu zelaia berde mantentzen, baina hitzordurako gertu dago Oñatiko golf zelaia.

Ahalegin berezia egin duzue halako mailako txapelketa bat ekartzeko...

Bai; lehenago ere eskatu izan dugu Espainiako txapelketa gurean antolatzea, baina beste zelai batzuk aukeratu izan dituzte. Orain lortu dugu, eta bada egindako ibilbidearen saria.

Beste txapelketa batekin alderatuta, ezberdina da Espainiako antolatzea?

Federazioko jendea etortzen da ikustera zelaia zelatzen dagoen, eta ahalegintzen zara dena mimoz antolatzen, azken detailea ere zaintzen.



GOIENA

Pena, sikatea tarteko zelaia ez da onenean egongo.

Federazioko ordezkariak etorri zirenean esan ziguten horregatik ez arduratzeko, beste zelaiak ere berdin zeudelako. Sikateak denean izan du eragina. Baina profesionalak etorri dira *green*-ak zaintzera, beroaren eraginez irteten diren belar txarrak kentzera... Eta, azken egunotako euriak mesede egin dio zelaiari. Izugarri hobetu dira kondizioak.

deratzi badira ere, joko-leku bakoitzak bi irteera ezberdin ditu, elkarren artean erabat ezberdinak direnak. Hala, bederatziko beharrenean guztira 18 joko-leku ditugu: "Hori da zelai txiki batek daukan abantaila, aste barruan ere etor zaitezkeela momentu batean eta pare bat orduan ibilbide osoa bete. Zelai handietan ezin da halakorik egin".

"Harrapatu" egiten duen kirola Urte hauetan guztietan, Irelore aldatu den bezala aldatu da herriarrek golfarekiko duten per-

tzepzioa ere: "Aberatsen kirola zela esaten zuten lehen, eta hori aldatu egin da. Eta egia da nagusiendako kirol moduan ikusten dugula, eta gero, zenbatek esaten didaten: 'Gazteago nintzenez hasi banintz...'. Harrapatu egiten duen kirola da, bai".

'PITCH AND PUTT' MODALITATEAN ZULOA GEHIENEZ 90 METRORA EGOTEN DA –100 YARDA–

Alebinak eta gaztek, kopa

HOCKEYA Joan den asteburuan jokatu zuten, Bilbon, Euskadiko kopa txapelketa, eta Burdinolako alebinak eta gazteak kopa irabazita itzuli ziren etxera.

Ondoren, ligako eta kopako sariak banatu zituzten, eta, aipatutakoez gain, ligan, talde mistoetan –gazteetan– ere txapeldunaren oroigarria ekarri zuten.



BURDINOLA IRRISTAKETA TALDEA

ATLETISMOA Azaroaren 5ean egingo dute Antxintxika krosa

Antxintxikak azaroaren 5erako antolatuko du Antxintxika krosaren 16. aldia. Ohi moduan, hamar kilometroko lasterketak Soraluze eta Bergara lotuko ditu eta korrikalarietara batera aulki gurgildunean lehiatzen direnek eta patinekin dabiltzanek ere esku hartu ahal izango dute. Izen-ematea zabalik dago *kirol-probak.com* atarian.

"Txapelketan txakurrak egiten du lanaren %90"

IBAN IGARTUA DEBAGOIENENKO EHIZA TXIKIKO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

EHIZA Bergarako Gipuzkoako txapelketan lehiatuko da domekan, Debagoieneko txapela jantzi eta gero; Matias Igartua –aitona– eta Basilio Eguren izan ditu gogoan

Xabier Urzelai BERGARA

Zanbranan jokatuako Debagoieneko Ehiza Txikiko Txapelketan txapela jantzi zuen joan den astean Iban Igartuak (Bergara, 1983), eta domekan, leku berean jokatu duten Gipuzkoako Txapelketan faboritoen multzoan egongo da. Entrenatzeko dituzten zailtasunen gainean mintzatu da Igartua, eta ehizarako zaletasunak bizi duen beherakadaz ere jardun du.

Orain arte irabazitako txapelik garrantzitsuen da hau?

Duela urte batzuk, Gipuzkoakoan laugarren sailkatu nintzen, eta horrek ere ilusioa egin zidan, baina bai, polita da txapela jantzea. Aitona –Matias Igartua– eta Basilio Eguren ditut gogoan, egun ez daude gure artean, baina, neurri handian, eurei esker daukat zaletasun hau. Dikar eta Armeria Etxaniz babesleei ere eskerrak eman nahi dizkiet.

Aipatu duzu etxetik datorkizula ehizarako zaletasuna.

Bai; txapelketetarako ez horrenbeste, baina ehizarako bai, gure etxean zaletasun handia izan dugu. Esango nuke odolean daramagula, aitona, aitak, osabak... Gogoan dut 14 urterekin aitari laguntzen joaten nintzela, eta 16 urterekin adin txikikoek ehizan egiteko baimena eskura-

Ainhoa Toledo antzuolarra ere irabazle

Bergarako Oilagorra elkarteko Iban Igartuarekin batera Zanbranan egindako txapelketan beste debagoiendar batzuk ere nabarmendu ziren. Antzuolako Jose Mari Alberdi bigarren sailkatu zen, eta Iñaki Toledo sailkatu zen hirugarren postuan. Hiru ehiztariak ehizatu zituzten bosna eper, baina Bergarakoak azkarrago egin zituen egin beharreko lanak. Hala, beteranoren txapelketan Eskoriatzako Jose Maria Zubizarretak –Aldaipe elkartea– irabazi zuen, zazpi eper ehizatuta– eta junior mailan Ander Gutierrez legazpiarra gailendu zen. Eta emakumezko onena Ainhoa Toledo izan zen, Eper elkartekoa.

tu nuen, pentsa. Txapelketetan, berriz, duela 10 urte-edo hasiko nintzen, errebotez. Tiro ondo egiten nuelakoan proposamena egin zidaten, eta halaxe hasi nintzen.

Orain, berriz, entrenatzeko asti barik zabilta...

Etxean familia ere badugu, eta ezin naiz denera iritsi. Bergarako ehiza elkartean ere aipatu nien denbora gutxirekin nentzela, eta elkarteko zereginak alboratu egingo nituela denbora batez; orain dagoen gazte taldea sekulako lana egiten dabil.

Zanbranan egiten dituzue txapelketak...

Bai; hango lurjabearekin adostasuna dute Federaziokoek, eta leku egokia da. Debagoieneko txapelketan, esaterako, bertako herrietako ordezkariekin batera etortzen dira baita Urretxukoak, Legazpikoak eta Zumarragako ehiztariak. Eta datorren domekan Gipuzkoa osokoak egongo gara.

Eta entrenatzeko Zanbrantaraino joan behar duzue?

Alde horretatik, ehizarako entrenatzea ez da batere erraza, oso mugatuta daukagu dena. Mendian ehiza denboralditik kanpora ezin gaitezke txakurrekin ibili, berez, sosokume edo erbikumeak egon daitez-



Iban Igartua, ezkerretik hirugarrena, sari banaketa ekitaldian. IBAN IGARTUA

keelako. Logikoa da, baina... Ehizak geroago eta jarraitzaile gutxiago ditu, kontrarioak ere asko, eta segurtasun neurriak tarteko dena oso mugatuta dago. Lastima da, denek ez dute ehiza modu berean ulertzen, baina halaxe daude kontuak. Arratera ere joaten gara, baina... Bai, txapelketak prestatzea ez da erraza.

Txapelketetan non egoten da gakoa?

Txakurrak egiten du lanaren %90. Hasteko, txakurrak ohituta egon behar du etxaldean egiten den ehizara; alegia, antolatzaileak eperrak askatzen ditu mendian eta horiek ehizatu behar izaten ditugu. Oso ezberdina da etxaldeko eperrak ehizatzea edo aske bizi diren eperrak ehizatzea. Txakurrak ohituta egon behar

"ETXEAN BETIDANIK IZAN DUGU EHIZARAKO ZALETASUNA, ESANGO NUKE ODOLEAN DARAMAGULA"

du usain ezberdinerara... Batzuen dako erakargarria ere ez da eper klase hori. Horregatik, txakurra ondo entrenatuta izatea oso garrantzitsua da, eta gero, zortea izatea ere oso garrantzitsua da. Eta bai, ehiztariak tiroa jotzerakoan abilezia izan behar du, baina gutxienezkoa da hori, aske dauden eperrak ehizatzea zailagoa da. Akaso, konfiantza larregi izateak ekar ditzake hanka-sartzeak. Halakoak zaindu egin behar dira.

Domekan nabarmentzea zailagoa izango da...

Gipuzkoako eskualde bakoitzeko hiru onenak sailkatzen dira Gipuzkoako txapelketarako. Senior mailan Gipuzkoa osoko 24 ehiztari inguru batuko gara eta tartean egongo da, besteak beste, Espainiako txapelketa irabaztea zer den badakien Arkaitz Egaña. Izan ere, hura da faboritoetako bat. Gero, erretiratuen kategorian egongo dira beste hamar ehiztari eta emakumezkoen kategorian, berriz, beste hiru.

Bergarak eta Aloña Mendik 'etxean' dute hitzordua

FUTBOLA Bergararrek Mojategin jokatu dute etxeko partidua domekan, eta oñatiarrek Antzuolan, zapatuan

Xabier Urzelai ARRASATE

Bergarak eta Antzuolak *etxean* jokatu dute ligako laugarren jardunaldia, nahiz eta Agorrosinen eta Azkoagainen berdegunean egokitzeko lanean jarraitzen dutenez partidua ez

dituzten euren futbol zelaietan jokatu. Hala, zale bergarrek Arrasatera joan beharko dute domekan (16:30) mahoneroek Hernaniren kontra jokatu duten partidua ikustera, eta Antzuolako Eztala futbol zelaietan

jokatu dute oñatiarrek, zapatuan (15:30), Tolosaren kontra. Aretxabaletak, berriz, Deban jokatu du, zapatuan (18:00) Amaiak Baten kontra, eta Mondrak Eibarren jokatu du (17:45).

Emakumezkoek, kanpoan

Leintz Arizmendiko eta Bergarako neskek kanpoan jokatu dute asteburuan. Lasarten jokatu dute bergarrek bihar (17:30), Ostadarren kontra, eta goizean (11:30) Leintz Arizmendikoek Zumarragan.

MENDIA Aiba! mendi martxa egingo dute domekan Arrasaten

Aramaio ibarrari bira Arrasate mendi martxa egingo dute domekan (07:00). Besaide mendi elkartekoek 300 lagunendako proba antolatu dute, eta aste barruan 250ek emana zuten izena. Hala, lekuri badago, domekan bertan izena emateko aukera egongo da. Ibilbide motzak 34 kilometro izango ditu eta luzeak, 41 kilometro.

ZIKLOTURISMOA Iker Eskibel bosgarren Quebrantahuesos-en

Joan den asteburuan egin zuten berez ekainean egitekoak ziren eta tenperatura altuengatik atzeratu zuten Quebrantahuesos proba. Eta aurrean ibili ziren zenbait debagoiendar: Iker Eskibel (5.41.24) bosgarren sailkatu zen, Iker Ibabe 18.a izan zen (5.55.48) eta Iñigo Alzola 26. postuan iritsi zen helmugara (5.56.16).

Dena prest bosgarren Danbaka lehiaketarako

Epaimahaiak hemeretzi talde aukeratu ditu, zuzenean lehiaketan arituko direnak; hogeiko zerrenda osatuko duena, berriz, publikoak aukeratu beharko du boto bidez. Gaurtik hasita botoa eman daiteke 'www.danbaka.eus' webgunean

Iñigo Barrena Kortabarría DEBAGOIENA Hamabi urteren ostean, indartsu itzuli da Danbaka musika lehiaketa. 31 talde eta bakarlarik eman dute izena eta askotariko musika estiloetakoak entzun ahal izango dira Bergarako Seminarixoan. Ez da, ordea, denentzat lekua izango oholtza gainean. Epaimahaiakide izango direnek dagoneko aukeratu dituzte zuzenean lehiaketan parte hartuko dituzten hemeretzi taldeak, eta "lan oso zaila" izan dela azpimarratu dute.

Antolakuntzatik ere harridura izan da nagusi jasotako erantzunarekin. "Harritu egin gaituzte jasotako proposamen kopuruak eta horien kalitateak, eta horrek biderkatu egin du antolatzailerik alde aurretik genuen gogoan bosgarren edizio honi begira", dio Jokin Bereziartua Danbakako koordinatzaileak. Lehiaketako azken taldea publikoak aukeratu du boto bidez.

Epaimahai berria

Danbaka berritasunekin dator, nola ez, eta horietako bat epaimahai osatuko duten kideak dira. Bost izango dira; Julen Narbaizak errepikatu egingo du eta lau aurpegi berri izango dira taldeen lanak baloratzeko eta epaitzeko: Kristina Markina eta Aitor Aldanondo bergararrak,



Iñigo Ugarte oñatiarra eta Cascantekoa den baina Arrasaten bizi den Nerea Loron *La Furia*, hain zuzen ere.

Danbakako datak

Parte hartzaile guztien zerrenda kaleratu ostean, honako hauek izango dira bosgarren edizioako datak: urritik abendura bitarteko bost ostiraletan izango dira kontzertuak, guztiak Bergarako Seminarixoan, 21:30ean hasita. Beraz, emanaldiak urriaren 14an, urriaren 26an, azaroaren 11n, azaroaren 25ean eta abenduaren 16an izango dira. Kontzertu bakoitzean lau taldek joko dute eta egutegia urriaren 10ean argitaratuko

"HARRITU EGIN GAITUZTE PROPOSAMENEK ETA HORIEN KALITATEAK"

da *danbaka.eus* webgunean eta Goienako hedabideetan. Bost kontzertu horietatik, hiru onak aukeratuko ditu epaimahaiak finalerako; hain zuzen, 2023ko urtarrilaren 13an izango da, Seminarixoan.

Antolatzailerik, ilusioz

Luzea izan da itxaronaldia, baina ilusioa da nagusi Danbakaren bueltan, Jokin Bereziartua Danbakako bozeramaileak dioenez: "Hamabi urte Danbaka barik egon ostean, bagenekien baldintzak bazeudela berriro ere ekimenari heltzeko, bazegoela Debagoiengan uzta berri bat Danbaka moduko erakusleihen baten gustura parte hartuko zuena. Sinistuta gaude Danbaka plaza ederra izango dela musikarien uzta berria behar den moduan loratzeko. Ordu erdiko hogeia emanaldi ditugu aurretik, gozatu eta gozarazteko. Seminarixoan espero zaituztegu!".

Aurkeztu diren 31 taldeen zerrenda

EPAIMAHAIK AUKERATUTAKO TALDEAK

Aurkeztutako taldeen artean hauek dira epaimahaiaren izango diren kideek lehiaketan zuzenean izateko aukeratu dituzten hemeretzi taldeak:

- **AIERT** Oñati. Bakarlarria.
- **ARRAGOA** Bergara. Folk.
- **BALARRASA** Aramaio, Eskoriatza eta Atxondo. Metala eta rocka.
- **BROKEN LEGACY** Oñati. Metal-corea.
- **ERROMINTXELAK** Arrasate eta Bergara. Swinga eta gipsy jazz.
- **ETXEPE** Arrasate. Musika urbanoa.
- **EYHARTS** Bergara. Elektronika.
- **ILUMINATIZZ** Aretxabaleta eta Otxandio. Punk-rocka eta rock-and-roll esperimental.
- **INGUMA** Oñati. Oi! eta rock-and-rola.
- **ISLABAT** Bergara eta Elgoibar. Post-rocka.
- **JASAN** Aretxabaleta eta Eskoriatza. Metala eta rock gogorra.
- **KIIMAK** Antzuola. Pop-rocka.
- **KTARSIA** Bergara. Akustikoa.
- **LEMAK** Bergara eta Antzuola. Pop-rocka.
- **LETAGIN** Oñati. Rock-and-rola.
- **ORHI** Bergara. Pop-rocka.
- **SINDY BERBENAS** Arrasate. Oi!
- **SUKENA** Oñati. Euskal triki-popa.
- **THE CLAYTON** Aramaio. Punka eta rock-and-rola.

PUBLIKOAK AUKERATZEKO TALDEAK

Azken taldea aukeratzeko publikoak botoa eman beharko du *www.danbaka.eus* webgunean, aukeratu gabe gelditu diren hamabi taldeen artean:

- **112** Arrasate. Punk-rocka.
- **BANANA SHAKE** Arrasate. Punka, rock-and-rola eta ska.
- **DBQ** (Debeku) Bergara. Punka, metala eta rocka.
- **EL EXTERMINIO DE LA RAZA DEL MONO** Aramaio eta Arrasate. Spiz-punka.
- **ETEN** Aretxabaleta. Rocka.
- **GOLDEN BLEND** Bergara eta Antzuola. Punk-rocka.
- **GOZZUE** Oñati-Otxandio. Rocka.
- **KORDA ROTA** Arrasate-Antzuola. Eskandinaviako kutsua duen punk-rocka.
- **LOW COST DELUXE** Bergara eta Arrasate. Rock-and-rola.
- **TRIGGER** Aretxabaleta. Musika esperimental, txeloa oinarri.
- **TRUMANS** Arrasate, Oñati eta Bergara. Bluesa eta rocka.
- **UNAI** Cantabrana Elgeta. Bakarlarria.

GOIENA TELEBISTAK
8.000 IKUSLE EGUNERO.
ESKERRIK ASKO!

Iturria: CIES, 2022 (Gipuzkoari dagozkien datuak)

goiena
Zu hemen zaude.



Lizarran maiatzean egin zuten estreinaldian lantaldeko kide batzuk. VALEN MOÑUX

Afrikako esentzia herriko artisten musikalean

Donato Goyenecheren musika piezak oinarri dituen eta Bergarako Musika Eskolako ikasleek eta irakasleek eta askotariko artista gehiagok parte hartzen duten 'África, las dos orillas' ikuskizunaren hiru emanaldi egingo dituzte asteburuan Seminarixoa

Aitziber Aranburuzabala BERGARA Lizarran estreinatu zuten, maiatzean, eta, hainbat atzerapen "beharturen" ostean, bihar, zapatua, 19:00etan eta 22:30ean eskainiko dituzte bi saio eta domekan hirugarrena, 19:00etan. Sarrera gutxi geratzen diren arren, oraindik eskuragarri daude, *Seminarixoa.eus* atarian; tokiaren arabera, hamabost edo hoge eurotan.

"Koloretsua eta berritzailea"

Bi ordu pasa irauten duen ikuskizuna da, Donato Goyenecheren musika piezak oinarri dituen. "Obra oso koloretsua da, musika aldetik, bereziki, orain arte egin ditugun ikuskizunekin alderatuz, ezberdina; musika afrikarra du honako honek oinarri. Obra originala gaztelaraz eginda dago, eta, elkarrizketa eta abesti batzuk hala izango diren arren, Afrikako hizkuntzetan ere badira beste hainbat elkarrizketa eta kantu ere", azaldu du eszena zuzendari Valen Moñuxek.

tzetan ere badira beste hainbat elkarrizketa eta kantu ere", azaldu du eszena zuzendari Valen Moñuxek.

Askotariko arte-diziplinak

Musikariak, dantzariak eta aktoreak izango dira taularen gainean.

Afrikako lo-kanta bat du obrak oinarri, eta hortik abiatuta "iragan bat eta etorkizuneko egoerak" sortu dituztela azaldu du libretoaren ardura izan duen Elena Ibarbiak. Kolonia garaian girotuta dago obra, Niger ibaiaren ondoan.

Lantalde artistikoa eta teknikoa

- **Musika** Donato Goyeneche.
- **Libreto** Elena Ibarbia eta Donato Goyeneche.
- **Eszena zuzendaritza eta dekoratuak** Valen Moñux.
- **Musika zuzendaritza** Jose Miguel Laskurain.
- **Kantu irakaslea eta abesbatza zuzendaria** Marije Ugalde.
- **Talde instrumentala, abeslariak, aktoreak** BMEeko ikasleak, irakasleak eta gonbidatuak.
- **Koreografia** Raquel Koroma.
- **Taldeko koreografia** Nere Ibarra.
- **Dantzariak** Isabel Halzuet, Isheba Mc Kulsy Koroma, Warling Santana eta Pilar Sue Osa.
- **Jantziak** Ndank-Ndank elkarte eta Maddi Sormena.

Hamahirugarren Kooltur Ostegunak abiatzeko prest dago

The Casanovas, Againsters, Feline eta Sega Sound Killers izango dira, hurrenez hurren, urriko gonbidatuak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Australiako The Casanovas taldeak zabalduko du, urriaren 6an, ziklo berria. "Europar bira bat egingo dute eta gurean eskainiko dute Euskal Herriko kontzertu bakarra. Australiako

taldeen ezaugarriak dituzte oinarrian, baina ibilbidean zehar hard-rockera egin dute. Nazioarteko bisita rockzalea, bada, lehenengo kontzertuan", azaldu du Kooltur Ekintzak taldeko Iker Barandiaranek.

Bartzelonakoa eta euskaldunak Eskarmentuko musikariek pandemian sortutako Bartzelonako Againsters izango da hurrengo astean, punk rock-and-roll bizia eskaintzeko.

Talde euskaldunek hartuko dute lekukoa gero: Bilboko Feline izango da urriaren 20an eta Donostia eta Pasaia inguruko Sega Sound Killers azken eguean. "Rocka, punk ukituekin, egiten dute Bilbokoek eta elektronika basatia da, berriz, azken asteko gonbidatuen ikurra".

Goienakideen txokoa

